

2014. URTEKO TXOSTENA

**CAF**

**PRESIDENTEAREN ESKUTITZA** **2**

---

**TALDEKO 2014KO KUDEAKETA  
TXOSTEN BATERATUA** **6**

---

· Emaitzak	7
· Jarduera komertziala	8
· Industria jarduera	10
· Giza baliabideak	12
· Ingurumenarekin lotutako jarduera	14
· Inbertsioak	16
· Garapen teknologikoa	18
· Arriskuak kudeatzeko politika	22
· Etorkizuna	24
· Ondorengo gertaerak	25
· Gobernu korporatiboa	25

**IKUSKATZAILEAREN ESKUTITZA** **26**

---

**TALDE BATERATUAREN URTEKO KONTUAK** **29**

---

· Egoera-balantzeak	30
· Galdu-irabazien kontuak	32
· Sarrera eta gastuen egoerak	33
· Ondare garbien aldaketen-egoerak	34
· Esku-diruaren fluxuen egoerak	35
· Memoria	36

**ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN  
ONARPENEA** **96**

---

Administrazio Kontseiluak batzar nagusiak onar ditzan aurkeztu dituen erabakiak	97
--	----

**EMAITZA APLIKAZIO PROPOSAMENA** **98**

---

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUA** **98**

---

**INFORMAZIO OSAGARRIA 2010-2014** **99**

---

· Egoera-Balantze Bateratuak	100
· Galdu-irabazien kontu bateratuak	102
· Burtsari Buruzko Informazioa	103

## 2014. URTEKO TXOSTENA



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.  
ETA CAF TALDEA OSATZEN DUTEN MENDEKO ELKARTEAK

Argitalpen honek CAF  
eta bere Mendeko Sozietateen  
dokumentazio legala jasotzen du  
eta frantsesez, gaztelaniaz,  
alemanieraz eta ingelesez  
ere argitaratu da.

[www.caf.net](http://www.caf.net) helbidean CAFi  
eta bere produktuei buruzko  
informazioa nahiz akziodun  
eta inbertitzaileei legez  
ezarritakoa aurki daiteke.

## PRESIDENTEAREN ESKUTITZA

Akziodun agurgarriak:

Ohorea da niretzat zuengana jotzea 2014ko Urteko Txostena aurkezteko. Bertan, iazko ekitaldian CAF Taldearen jardueren urteko kontuei eta bilakaerari buruzko informazio zehaztua duzue.

Aurtengoan, trenbide-sektorean azkenaldian agerian jarri diren joera batzuk are gehiago berretsi dira, eta horien atzean, batez ere, ekonomiaren globalizazioa eta gaur egun dugun finantza-zailtasunen aldia daude.

Hala, bezero eta lehiakideen merkatu globalizatuan gaude, merkatua gero eta konplexuagoa, zailagoa eta ziurgabeagoa da. Baina aldi berean, zirrargarria da, aldakorra, eta aztertzeke aukera asko eta asko ditu.

Testuinguru horretan, inoiz baino gehiago, gure proiektuak garatzeko eta bezeroekin hartutako konpromisoari erantzuteko etengabeko esfortzua eta arreta behar izan duen urtea itxi dugu. Baina aldi berean, garraio-irtenbide aurreratuen garapenaren aldeko apustu garbiaren emaitzak jaso ditu gure Konpainiak, hain zuzen ere, kontratazio berriak izan baititugu, aipagarriak bai bolumenagatik, bai guretzat oso garrantzitsuak diren merkatuko segmentuetan jartzen gaituztelako, hazteko perspektibak baitituzte.

Aurrekoa zifratara ekarrita, esan dezakegu ekitaldian 1.447,1 milioi euroko salmenta-bolumena izan dugula; horietatik % 82 nazioarteko proiektuei dagokie, gure jardueraren zati garrantzitsuena izaten jarraitzen baitute, azken urteetan bezalaxe. Zerga ondorengo emaitzari dagokionez, 2014a 62,1 milioi euroko zifrarekin itxi genuen; aurreko urteko ekitaldian izandako balioa baino baxuagoa, sektorean dagoen presio lehiakorraren ondorioz; horrek ere guran eragina baitu. Bestalde, EBITDA 146,4 milioi eurokoa izan zen, hau da, urteko salmenta zifraren % 10 baino zertxobait handiagoa. Ekitaldiaren cash-flowa 109 milioi eurokoa izan zen eta, azkenean, ekitaldiaren itxieran eskaeren zorroa iazko itxieran baino % 9,3 handiagoa zen. Horri esker, Konpainiaren historian beste maximo bat markatu du, 5.251,1 milioi eurotan jarrita, eta horrek, epe ertainean gure industria-jardueren inguruko ikuspena eman digu.



Emaitza horiek ikusita, Akziodunen Batzar Orokorrari akzio bakoitzeko 5,25 euro gordineko zenbatekoaren truke dibidenduak banatzea proposatzen diegu, aldi berean, Konpainiaren funts propioak indartuta, horren inguruko gure ohiko politikaren arabera.

Indarrean jarraitzen dute, mundu mailan, trenbidearen inguruan mugikortasuneko proiektu berriak jartzea ekarriko duten faktoreek. Izan ere, ingurumenarekiko gero eta kezka handiagoa dago, hirigune eta hiri-inguruko eremu askotan trafikoa pilotuta dago, eta baliabide energetikoen arloan prezioa eta eskuragarritasuna ezegonkorak dira. Hala, Europa mailan, nabarmendu beharrekoa da Batasuneko urte ugariatako aurrekontu berrian trenbide-sistemarako bideratutako finantza-baliabideak nabarmen ugartu direla, eta beste geografia batzuetan ere joera hori errepikatzen da berritutako inbertsio-planekin. Hori dela eta, hemendik 2019ra sektore osorako

% 2,7ko urte arteko igoera jarraitua izatea espero da UNIFEn World Rail Market Study azken txostenaren arabera, administrazio publikoen finantza-zailtasunen ondorioz hainbat urtetan geldotasuna izan ostean.

Lidergo teknologikoak industria baten lehiakortasuna gero eta gehiago zehazten duen munduan, CAF Taldeak 2014an egindako apustua 81 berrikuntza-proiekturen bidez gauzatu da. Horietako batzuek datozen urteotan giltzarri izango diren segmentuetan gure presentzia areagotzeko helburua dute.

Esate baterako, abiadura oso handiko gure OARIS plataforma behin betiko homologatzeko lan egin dugu, eta esfortzu hori, 2015ean sartuta, tren mota horretarako Norvegiar lortutako lehen kontratuan gauzatu da.

Aipatu beharrekoa da Europako ERTMS estandarren arabera seinalizazio-sistema propioa ere garatu dugula, eta horrek ere, aurreko kasuan bezala, ADIFekin kontratu ugari ixtea ahalbidetu digu, 2. mailako abiadura handiko bide zatietan, gure irtenbidea instalatzeko zirkulazioan segurtasun arloko zorrotzeta. Gainera, lan horren ondorioz, ERTMS on-board teknologia propioa duten lehen unitateak ari dira ateratzen gure lantegietatik, horietako batzuk kanpoko merkatuetara bideratuta.

Tranbietarako energia metatzeko eta katenaria gabe modu autonomoan funtzionatzeko sistemak, dagoeneko Sevillan eta Zaragozan martxan daudenak eta laster Granadan eta Kaohsiungen (Taiwan) egongo direnak, gure URBOS tranbien familiak duen arrakasta komertziala elikatzen du. Sistema honek, 2014an Budapest eta Tallin hiri berrien konfiantza jaso du berriz ere eta Britainia Handian 2014an material mugagarriaren fabrikatzaile onenaren saria lortu ahal izan dugu, konkretuki Ingalaterrako Birmingham hirirako egindako lanari esker.

Nabarmentzekoa da, gainera, Civity familiako 118 tren hornitzeko Holandako trenbideekin lortutako kontratua. Proiektu hori Europako eskualdeko trenbide-merkatuan plataforma horren behin betiko abala izango da, bolumena kontuan hartuta munduko handienetako bat izanik, eta kontinente osoan antzeko aukerak baikortasunez hartzeko aukera eskaintzen digularik. Ez du garrantzi txikiagoa Mexiko D.F.-Toluca lotura eraikitzeke lortutako akordioak ere. Proiektu horren ingeniari eta integrazioa CAF lider dela egingo da eta, ERTMS on-board ekipoak, trafikoa kontrolatzeko postua, ATO sistema eta hainbat elementu elektromekaniko hornituko ditugu, trenak berak hornitzeaz gain.


Istanbulen gidatze automatikoa duten metroak egiteko 2014an kontratu berria lortuta, aurretik Txilen eta Helsinkin izandako aurreitazko esperientziei jarraipena eman diegu azkar hazten ari den segmentu berezi horretan. Horri guztiari ohiko metro-kontratu ugari (Erroma, Medellín, Bukarest) eta ibilgailu arinak (Boston) gehitu zaizkio. Horrek hiri-garraioaren eremuan dugun posizioa indartzen du. Horrez gain, Saudi Arabian push-pull tren-makinak eta kotxeak egiteko kontratuen jarraipenak lortu ditugu.

Beste urtebetez, kontzesio jarduerak, mantentze-lanak eta errodajeak izan dira Taldearen salmenta-zifrari goranzko bultzada eman diotenak, eta horri, laster Italiako operadore nazionalaren (Trenitalia) tren-makina elektrikoek birgaitze-lanak gehituko zaizkio, baita Frantziako Lyongo hiriko metroetako konboiena ere; merkatuko zati hori datozen ekitaldietan garatzea espero dugu.

CAF Taldea osatzen dugun guztion inplikazioa eta ekarpena, eta lerrootatik zin-zinez guztioi eskertzen dizuedana, izan da honaino ekarri gaituena. Baina ilusio berriz jarrai dezazuen animatu behar zaituztet. Egunero erakusten dugun esfortzua eta lana, eta lehenik eta behin, geure buruei erakusten dieguna, giltzarri izango dira gero eta lehiakorrago den, baina ilusioa sortzen duen eta aukeraz beteta dagoen ingurune horretan aurrera egiteko.

Amaitzeko, nire esker ona adierazi nahi diet gure akziodunei ere. Beti erakusten duten babesa, guran jarritako konfiantza eta urteetan zehar emandako laguntzari esker, aurrera begiratzera, helburu berriak jartzera eta gure proiektua indartzera bultzatzen gaituzte.

Eskerrik asko.



José María Baztarrica Garijo  
Presidentea



# CAF

## LINEA HANDIAK

### ABIADURA HANDIKOAK

- Abiadura handiko eta zabalera aldakorreko S-120 eta S-121 trenak (RENFE)
- Madril-Sevilla lineako Abiadura Handiko Trenak (AVF)
- Lanzadera-trenak S-104 (RENFE)
- Abiadura handiko trenak Turkiarako

### INTERCITY

- S/598 tren baskulagarriak (RENFE)
- S/599 diesel trenak (RENFE)
- S/449 tren elektrikoak (RENFE)
- Diesel tren Aljeriarako
- Push-Pull Irlanda Intercity zerbitzua
- Korsika diesel trenak
- Tunisia diesel trenak
- Frantzia diesel trenak
- Saudi Arabiako trenak
- Sardiniako diesel-trenak
- Ipar Irlandako trenak
- Estatu Batuetako trenak

### BIDAIARIANTZAKO KOTXEAK

- Konpartimentuan banatutako bagoiak eta erosotasun handiko aretoa
- Ohe-bagoiak eta ohatzeak
- Jatetxe-eta kafetegi-bagoiak





CAFek, ehun urtetik gorako ibilbidea egin ondoren, mundu osoko tren-sistemetarako ekipamenduak eta osagaiak diseinatu, fabrikatu eta hornitzen ditu eta horien mantentze-lanak egiten ditu

## HIRIAK/HIRI-INGURUAK

### ALDIRIKOAK

- Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE)
- Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos (ET/FV)
- Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha (FEVE)
- Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC)
- Companhia Paulista de Trens Metropolitanos (Brasil)
- Secretaría de Comunicaciones y Transportes (Mexiko)
- Serveis Ferroviaris de Mallorca (SFM)
- Caminhos de Ferro Portugueses
- Finnish Railways (VR Ltd)
- Heathrow Airport Express (Erresuma Batua)
- Hong-Kong Airport Express
- Irish Rail
- Izban (Turkia)
- Northern Ireland Railways
- Northern Spirit (Erresuma Batua)
- New Delhiko aireportua
- Regione Autonoma Friuli Venezia Giulia (Italia)
- Companhia Brasileira de Trens Urbanos (Brasil)
- Montenegro
- Auckland (Zeelanda Berria)
- Nederlandse Spoorwegen (NS)

### UNITATE ARTIKULATUAK

- Amsterdam
- Buenos Aires
- Monterrey
- Pittsburgh
- Sacramento
- Valentzia

### METROAK

- Aljer
- artzelona
- Bilbo
- Bukarest
- Brusela
- Caracas
- Istanbul
- Helsinki
- Hong Kong
- Madril
- Malaga
- Medellin
- Mexiko
- New Delhi
- Palma
- Erroma
- Txileko Santiago
- Sao Paulo
- Sevilla
- Washington

### TRANBIAK

- Antalya
- Belgrado
- Besançon
- Bilbo
- Birmingham
- Boston
- Budapest
- Cádiz-Chiclana
- Cincinnati
- Cuiabá
- Debrecen
- Edinburgo
- Stockholm
- Friburgo
- Granada
- Houston
- Kansas
- Kaohsiung
- Lisboa
- Nantes
- Sevilla
- Sidney
- St. Etienne
- Tallinn
- Valentzia
- Vélez-Málaga
- Vitoria-Gasteiz
- Zaragoza



**TALDEKO 2014KO KUDEAKETA  
TXOSTEN BATERATUA**







# EMAITZAK


**Galeren eta irabazien kontuak emaitza positiboa izan du eragiketa jarraituen ondorioz; 62.129 mila eurokoa, hain zuzen. Emaitzak aplikatzeko proposamenak aurreko ekitaldietako politikari jarraitzen dio; hau da, Enpresaren ondarea sendotzea. Hori dela eta, 17.997 mila euro dibidendu gisa banatzea proposatu dute (akzio bakoitzeko zenbateko gordina, beraz, 5,25 €-koa litzateke)**

Honako hauek dira 2014ko ekitaldiko parametro ekonomikoak:


- Galera eta irabazien kontuak emaitza positiboa eman du eragiketa jarraituen ondorioz; hain zuzen ere, 62.129 mila euro izan dira zergen ondoren, eta 80.456 mila euro zergen aurretik. 2013an, aldiz, 91.037 mila euro eta 114.299 mila euro izan ziren, hurrenez hurren, % 32 eta % 30eko jaitsiera.
- lbilgetuaren amortizazioak eta hornidurak 31.440 mila eurokoa izan dira eta horiei ekitaldiko zergen aurreko eragiketa jarraituetatik eratorriko emaitza gehitzen badiegu, cash-flowa 111.896 mila eurokoa dela ondoriozta dezakegu; hau da, 2013koa baino % 40 beherakoa gutxi gorabehera, ordukoa 185.916 mila eurokoa izan baitzen.
- Eragiketa jarraituen EBITDAri dagokionez, 146.425 mila eurokoa izan da; hau da, 2013ko ekitaldian baino % 34 txikiagoa (ordukoa 222.928 mila eurokoa izan zen).
- Negozio-zifraren zenbatekoa 1.447.141 mila eurokoa izan da; aurreko ekitaldiko baino % 6 txikiagoa, ordukoa 1.535.240 mila eurokoa izan baitzen.
- Eskaera-zorroa, urte bukaeran, 5.251.114 mila eurokoa izan da, aurreko ekitaldiko baino % 9 handiagoa, ordukoa 4.802.858 mila eurokoa izan baitzen. Zorro horrek Taldeak behar bezala jardun ahal izatea bermatzen jarraitzen du.
- Emaitzak aplikatzeko proposamenak aurreko ekitaldietako politikari jarraitzen dio; hau da, Enpresaren ondarea sendotzea. Hori dela eta, iaz bezala, CAF, SA sozietate nagusiaren irabazien 17.997 mila euro dibidendu gisa banatzea proposatu dute (akzio bakoitzeko zenbateko gordina, beraz, 5,25 eurokoa litzateke).
- Irabaziak banatzeko proposamena onartuz gero, erreserbetara eramango diren emaitzak gehituko zaizkie Taldearen Ondare Garbiari, eta, guztira, 730.916 mila euroko zenbatekoa osatuko dute.

- Azkenik, eta legezko araudiak xedatutakoa betez, CAFek jakinarazten du 2014an, ez berak, ez bere enpresa filialek ez dutela enpresaren akziorik ez erosi, ez eduki.


**Sozietate nagusiari esleia dakioken emaitza**  
(mila euro)



**Taldearen Baliabide propioak**  
(mila euro)



**Dividenduen/akzioen bilakaera**  
(eurotan)





8

## JARDUERA KOMERTZIALA

**Ekitaldiaren itxieran, eskarien zorroa 5251 milioi euro baino handiagoa zen, eta horrek esan nahi du beste maximo historiko bat izan dela, azken urteetako joera berreskuratuta**

Ekitaldiaren itxieran, eskarien zorroa 5.251 milioi euro baino handiagoa zen, eta horrek esan nahi du beste maximo historiko bat izan dela, azken urteetako joera berreskuratuta. Aurreko urteetan bezala, nazio mailako eta esportazioko merkatuek zenbatekoari egindako ekarpenen arteko balantza berriz ere kanpoko merkatuko jarduerak menderatzen du.

Nazio mailan, 2014ko gertakari garrantzitsuenen EuskoTrenen formalizatutako kontratazioa izan da, hiru kotxeko hogeita zortzi tren egiteko, 150 milioi euroko zenbatekoarekin, eta nazioarte mailan, berriz, Nederlandse Spoorwegen (NS) Holandako estatu-operadoreak egindakoa, Civity motako ehun eta hemezortzi tren erosteko, 500 milioi euro baino gehiagoko zenbatekoarekin.

Mexikon, CAF buru den partzuergoa izan da Mexiko hiria eta Toluca lotuko dituen hiriarteko trenaren esleipenduna. Mexikoko Komunikazio eta Garraio Idazkaritzak (SCT) kontratatu du eta CAFek bost kotxeko hogeita hamar unitate elektriko egingo ditu. Gainera, CAF taldeko beste enpresa batzuk arduratuko dira ATO sistema hornitzeaz, kontrol-zentroaz, ERTMS ontziratutako ekipoez, instalazio elektromekanikoez, integrazio-ingeniaritzaz eta proiektuaren koordinazioaz.

Budapesten, Hungariako hiriburuan, hiri-garraioaren ardura duen enpresak CAFi solairu baxuko hogeita hamazazpi tranbia erosi dizkio bost eta bederatzi modulutako konfigurazioetan. Gerora, urte berean, beste hamar tranbiantan ugaritu du eskaria, eta guztira 106 milioi euroko kontratuaren zenbatekoa osatu da, gutxi gorabehera, finantzaketarako Europar Batasuneko laguntza izanik.

Istanbulen, CAFek Turkiako hiribururako hogeita bat metro unitate hornituko ditu. Gidariak gabeko teknologiarekin funtzionatuko dute Turkiako hiriburuko metroan, eta kontratuaren zenbatekoa 119 milioi eurokoa da.





Amerikako kontinentean, CAFek Bostoneko metrorako, Massachusetts Bay Transport Authority (MBTA), hogeita lau ibilgailu arin kontratatu ditu 85 milioi euro baino gehiagoko zenbatekoarekin, Estatu Batuetako metroko linea zaharrena den Green Linen zerbitzua emateko.

Dagoeneko kontratatutako trenbide-materialaren barietate honi abiadura handia gehituta, Oaris trenarekin, eta katenaria gabeko eta/edo energia aurrezteko gidatze-sistemak eta Cadizeko Badiako tren-tranbiaren moduko ibilgailu "mistoak" kontuan hartuta, bezero bakoitzaren behar espezifikoak erantzuteko CAFek duen gaitasun handia ikus dezakegu.


Horren guztiaren emaitza gisa, Erresuma Batuan - Londresen egindako Light Rail Awards sariaren zeremonian CAFek jaso zuen urteko material ibiltariaren fabrikatzaile onenaren kategoriako saria.

Bestalde, eta 2014an zehar, hainbat bezerok zabaldu dituzte hornidura-kontratuak eta horrekin egiaztatu dute CAFen lan ona. Hala, Erromako metroak (Italia) azken eskaria hiru unitatetan zabaldu du, bezero honi hornitutako kotxeen zifra osoa laurhun eta hogeita sei arte handituta. Medellingo Metroak (Kolonbia) beste hiru unitatetan handitu du flota eta tailerretarako ekipamendua kontratatu du 15 milioi euro inguruko zenbatekoarekin. Metrorex enpresak, Bukaresteko (Errumania) metro-sistemaren operadoreak, 2011n formalizatutako hamasei unitateren eskaera beste zortzirekin zabaldu du, Inbertsioen Europako Bankuaren (BEI) finantzaketa lortuta.


Trenbideen segmentuan Tallinnerako (Estonia), jatorriz kontratatutako hamasei tranbiak gain, beste lau egiteko zabaldu dute kontratua, eta ibilbide luzeari dagokionez, Saudi Arabiako – SAR – trenak eskaera hiru tren-makinatan eta hamazazpi kotxetan zabaldu dute.

Mantentze-lanetako eta errodajeen jarduerak eskaera-zorroko ehuneko esanguratsua biltzen dute oraindik ere. Nabarmentzekoa da Italia eta Frantziako trenbide-materiala birgaitzeko merkatuetan sartu izana. Italiarako Ferrovie dello Stato operadore publikorako berrogei tren-makina elektriko birgaituko dira, eta aldiz, Frantziarako Lyongo hirirako Metrorako hogeita hamabost tren birgaituko dira.

### Eskaera-zorria (milioi euro)



### Negozio-zifra (milioi euro)






10

## INDUSTRIA JARDUERA

2014an, era askotako 874 kotxe hornitu ditu enpresak: distantzia luze eta ertainak, tren-makinak, metroak, tranbiak eta beste batzuk Europako, Amerikako, Asiako eta Ozeaniako herrialdeetara





2014. urteari dagokion ekitaldian, aurreko urteetan hasitako hainbat proiektu osatu dira, esaterako, Euskotrenekin izenpetutako 30 treneko kontratua, Kataluniako trenbideetarako (FGC) 12 trenekoa, edo Bukaresteko metrorako 16 treneko lehen fasea, EMU gamakoak (Electrical Multiple Unit) eta Metrorako. Civity plataformatik Bari (Italia) eskualdearekin izenpetutako kontratuko lehen 2 trenak amaitu dira, baita Triesteko (Italia) eta Austriako geografia-eremuan ibiltzeko 4 trenak ere. Tranbien gaman, amaitu dira Malagarako 14 unitateko proiektuak, Besançonera 19 osaerak, Debrecenerako 18 tranbiak eta Cuiabarako 40 unitateak (Brasil). Era berean, Sardiniarako diesel-trakzioko 8 trenen fabrikazioa amaitu da, haren bi bertsioetan, 3 eta 4 kotxeetakoak.

Aldi horretan beste proiektu batzuetako entregekin ere jarraitu dugu, distantzia luzerako Baggage motako 28 kotxeak, Estatu Batuetako Amtrak operadorearentzat, baita tren-makinen 4 osaerak eta 5 atoi-kotxeak ere Saudi Arabiako SRO operadorearentzat, Sao Pauloko metroarekin izenpetutako 26 trenetako 18, Aucklanderako (Zeelanda Berria) 37 trenak, Houstonerako 20 tranbiak, Erromako metrorako 16 trenak, Belo Horizonte (Brasil) hirirako lehen 10 EMU unitateak. Horrez gain, amaitu dira Malagako hirirako 14ko eskaeratik azken 4 tranbien fabrikazioa, Stockholmeko hirirako 3 eta 4 modulotako bertsioetan egindako 10 tranbiak, Debrecenerako 7 tranbiak, Birminghamerako 16 tranbiak, Sidneyrako (Australia) 5 tranbiak, Kaoshiungerako (Taiwan) 9 tranbiak eta Tallinn (Estonia) hirirako 20ko kontratutik lehen tranbia.

Gainera, proiektu berrienetako fabrikaziorako lehen faseak abian dira, esaterako, CPTMrako 35 tren egiteko kontratua, Txileko metrorako 37 trenena, Budapestera 47 tranbiena, Euskotreneko 28 trenen proiektu berria, Bukaresteko metrorako 8 treneko zabalte-proiektua, Cincinnati hiriarekin izenpetutako 5 tranbiaren kontratua, eta Helsinkiko metrorako 20 treneko proiektua.

2014an fabrikatutako produktu garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

**IBILGAILUEN UNITATEA (KOTXE KOPURUA)**

Distantzia luzeko Amtrak kotxeak	28
Saudi Arabiarako lokomotora (SRO)	3
Atoien konposizioa Saudi Arabiarako (SRO)	15
Trieste-Austriarako Civity distantzia ertaina	20
Barirako Civity distantzia ertaina	8
Sardiniarako distantzia ertaina (3 kotxe)	6
Euskotreneko aldirietakoak	4
FGCrako aldirietakoak (4 kotxe)	28
FGCrako aldirietakoak (3 kotxe)	9
Aucklanderako aldirietakoak	111
Belo-Horizonterako aldirietakoak	4
Sao Pauloko metroa	108
Bukaresteko metroa	72
Erromako metroa	96
Malagarako tranbia	20
Besançonera tranbia	24
Stockholmerako tranbia (3 modulu)	12
Stockholmerako tranbia (4 modulu)	24
Debrecenerako tranbia	35
Birminghamerako tranbia	80
Cuiabarako tranbia	42
Sidneyrako tranbia	20
Kaoshiungerako tranbia	35
Friburgorako tranbia	7
Tallinnerako tranbia	3
Houstoneko tranbia	60

**GUZTIRA 874**

**BOGIEAK**

Soldatutako bastidorearekin	1.464
-----------------------------	-------

**ERRODAJE ETA OSAGAIEN UNITATEA**

Ardatz muntatuak (motorra + atoia)	5.607
Ardatz-gorputz solteak	10.171
Osoko gurpilak	57.659
Gurpil elastikoak	1.033
Krokagailuak edo loturak	997
Erreduzitzaileak	2.315
Bandajeak	672





12

## GIZA BALIABIDEAK

**Plantillaren igoera mantentze-lanetako jardueretan eta Estatu Batuetako eta Brasilgo lantegietako gaitasuna areagotu izanagatik gertatu da. Oro har, laneko arriskuen prebentzio arloan aurrez ikusitako jarduerak egin dira**

Plantillako igoera mantentze-lanetako jardueren inguruan gertatu da, fabrikazioan garrantzi berezia izan duite AEB eta Brasilgo lantegietako gaitasun-igoerak, ekitaldiaren erdi aldera arte, eta urtearen azken zatian eutsi egin da. Une horretatik aurrera lantegi horietan jaitsiera-aurreikuspena nabarmendu behar da, batez ere 2015eko ekitaldian.

PLANTILLAK	GUZTIRA	URTEKO BATEZ BESTEKOA
31/12/13	7.632	7.477
31/12/14	8.206	8.027

Prestakuntzaren kapituluan pertsonen garapen-jarduerak bultzatu dira, individualizazio-ikuspegi handiagoarekin, banakako tutoretza handiagoaren bidez.

2013-2014 Prestakuntza Plana, 100.000 ordu baino gehiagoko prestakuntza-ekintzekin, batez ere oinarritu da prestakuntza teknikoan edo produktuarenean, laneko arriskuen prebentzioan, kalitatean eta taldeak kudeatzeko gaitasunetan.

Aplikazio informatikoa ezarri da, gaur egun CAF, S.A., CAF P&A eta CAF I+Dn, pertsonen kudeaketa-prozesuak eutsi ahal izateko, taldeko beste sozietate batzuetara zabaldu ahal izateko.





Komunikazioen arloan, Enpleguaren Ataria jarri da martxan, CAF taldearen barruan informazio-tresna, zerbitzu eta aplikazio ugarietarako sarbide-kanal bakarra baita orain. Osinberde aldizkariaren finkapenean ere aurrera egin da, kudeaketaren inguruko alderdi garrantzitsuak CAFeko pertsona guztiengana iritsaraziz.

Pertsonen mugikortasuna eta barneko gaikuntza sustatu dira, baliabideen behar ugarietara erantzuna eman ahal izateko mekanismo gisa.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko kapituluari, Beasain, Irun eta Zaragozako zentroetarako OHSAS 18001 arauaren arabera ziurtapena mantendu da.


Prebentzio arloan aurrez ikusitako jarduerak bete dira oro har, eta kasu batzuetan istripu-tasen adierazleak hobetu egin dira.

Nazioarteko eremuan, jardura proiektu berriak martxan jartzeko beharren kudeaketa oinarritu da, bai material mugigarrii dagokienez, bai berme eta mantentze-lanetako zerbitzuei dagokienez. Horrez gain, sendotuen dauden filialetan pertsonen kudeaketa-prozesuak zabaltu dira.

Horrez gain, nazioarteko proiektuetan laneko kostuak hobeto kontrolatzeko jarduerak garatu dira bereziki, eta nazioarteko mugikortasuna kudeatu da, batez ere Elmirako lantegirako.

13

**Enpleguak**  
(pertsona kopuruak)





## 14 INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERA

2014an, CAFek ingurunearekiko begirunetsuagoak eta eragingarriagoak diren garraiobideak eskaintzeko konpromisoa berritu du eta ingeniaritza-prozesuetan ekodiseinuko metodologiak aplikatzen jarraitu du sorreratik produktuen ingurumen-inpaktuak kontrolatu eta optimizatu ahal izateko haien bizitza-ziklo osoan (ACV). Adierazle gisa, aipatu behar da negutegi-efektuko gasen igorpena esleitutako igorpen-eskubideen azpitik egon direla







CAF taldeak, industriaren garapenak ingurumenen duen eraginaz jabetuta, enpresaren politika orokorrean txertatu du ingurumen-politika. Honenbestez, enpresaren helburu bihurtu ditu ingurumena zaintzea eta egiten dituen trenen sistema, ekipamendu eta materialak goi-mailakoak izatea, segurtasunaren eta eraginkortasunaren aldetik ez ezik, baita ingurumenarekiko begiruneari dagokionez ere.

CAF SAren fabrikazio-lantegian, 2001etik dago ezarrita eta ziurtatuta ISO14001 arauaren arabeko Ingurumen Kudeaketako Sistema. Antolaketa-egitura, ingurumena babesteko jardueren plangintza, ingurumen-politika garatzeko, berrikusteko eta egunean mantentzeko erantzukizunak, ingurumen-helburuak eta baliabideak biltzen ditu horrek.

2014ko maiatzean eta azaroan Ingurumeneko Kudeaketa Sistemaren ISO 14001:2004 ziurtagiriaren mantentze-auditoriak egin dira Beasaingo, Irungo eta Zaragozako lantegietarako, eta emaitza positiboa izan da.

Egindako ekintzak aipagarriak diren ingurumeneko alderdiak kontrolatzeko eta, dagokionean, minimizatzeko beharrezkoak eta ekonomikoki bideragarriak diren neurriak hartzea zuzenduta daude: atmosferara egindako igorpenak, hondakinak sortzea eta energiaren kontsumoa, esate baterako. Eta horren guztiaren helburua baliabide naturalak babestea da, trenetako garraio bideak fabrikatzearekin lotuta dauden ingurumeneko abantailekin bat etorrira; izan ere, trenbideetako garraioek aldeko izaera dute ingurumenen duen inpaktu txikia dela eta. Nabarmendu beharrekoa da gaur egun, garraio bide eraginkorragoak, ingurunearekin errespetuzkoak eta

ingurumenarekiko gero eta gehiago eskatzen duen merkatuan lehiakorren direnak eskaintzeko, CAF "Produktuaren Iraunkortasun Funtzioa" ezartzeko prozesuan sartuta dagoela; kontzepzioetik bertatik bizi-ziklo osoan produktuaren ingurumen-eraginak optimizatzeko eta kontrolatzeko ingeniari-tza-prozesuetan ekodiseinu-metodologikoak sartu dira.

CAFek prozesuetan diseinua, metodologiak eta tresnak sartzen ditu, honako hauen bidez produktuaren irtenbide eta konfigurazio onenak ebaluatu eta hautatu ahal izateko:

- Materialen hautapen onena egiteko ISO 22628 arauaren arabeko birziklatze-analisia.
- Bizi-zikloko fase guztietan produktuaren ingurumen-ebaluaziorako ISO 14040 arauaren arabeko Bizi Zikloaren Analisia.

Ondorioz, CAFek 2014an 2012ko Regione Autonomia Friuli Venezia Giulia hirako civity eskualdeko trenen produktuaren ingurumen aitorpenaren (EPD) egiaztapena eta argitalpena berritu du. Horiek Stockholmeko hirirako Urbos tranbian eta Zaragozako hiriko tranbian aurreko urteetan egindakoekin batera mantentzen dira. Horiek guztiak Unife-Environdec-en PCR estandarraren arabeko muturreko egiaztapenarekin berritu dira (webgunean argitaratuta daude: <http://www.environdec.com>).

Adierazle gisa, aipatu behar da 2014an negutegi-efektuen gasen igorpena, Kyotoko Protokoloa betetz, esleitutako igorpen-eskubideen azpitik egon direla.





16

## INBERTSIOAK

2014ko ekitaldian, inbertsioak 10.085 mila eurokoak izan dira. Inbertsio horiek produkzio-sistemak eta oro har instalazioak eguneratzera bideratu dira, baita ingeniariaritzaren eta informatikaren arloetara ere






CAFek 2014an egindako inbertsio materialen zenbatekoa 10.085 mila eurokoa da. Ekitaldi horretan egindako inbertsio aipagarrienen artean, honako hauek nabarmen ditzakegu:

17

- Errodajeen Negozio Unitatean, azken urteetan enpresak egin duen gurpilen mekanizazio-lerroaren optimizazio eta automatizaziorako inbertsioen azken fasea amaitu da. Zehazki, mekanizazioko bigarren zelula jarri da martxan, eta amaitu da gurpilen neurketako sistema automatizatuan eta pintura-eremuko robotizazioan egindako inbertsioa, baita gurpilen produkzio-fluxuan egindako hobekuntza ere. Horri guztiari Dibisioko beste eremu batzuetan produktibitatea areagotzearekin lotutako hainbat hobekuntza gehitu zaizkio.
- Ibilgailuen Negozio Unitatearen Barruan, aurreko inbertsioak batez ere instalazio orokorrak puntuan jartzera eta eguneratzera bideratu dira, produkzio-jardueran txertatzen joan diren proiektu ugari aurre egiteko, baita aurreko araudira instalazioak eta makinak eguneratzearekin lotutako gaietan eta laneko segurtasun arloan ere.
- Gainerako eremuei dagokienez, Ingeniaritza eta Informatika nabarmentzen dira, ekipo informatiko eta baliabide teknikoak eguneratu behar izateaz gain, sarbideen kudeaketa-sisteman hobekuntzak egin dira, eta biltegitratze-gaitasuna ere zabaldu da. Hori guztia enpresaren ingurunean segurtasun informatikoaren garapen nahitaezko eta jarraitu bati lotuta.

Azkenik, kanpoko inbertsioei dagokienez, Estatu Batuetan, Elmirako lantegiari edukiera handiagoa emateko egiten ari direnak, eta zuzenean gaur egun CAF herrialde horretan egiten ari den proiektuek sortutako beharrek lotutakoak.

**Inbertsioak**  
(mila euro)






18

## GARAPEN TEKNOLOGIKOA

CAF eta CAF I+Dri dagokionez, 2014an garatutako teknologia-planeko proiektuak, guztira, 81 izan ziren. Era berean, 2014an CAF taldeko teknologia-plan berria osatu zen 2015-2017 aldirako





CAF eta CAF I+Dri dagokienez, 2014ko ekitaldian 2015-2017 aldirako CAF taldearen teknologia-plan berria osatu zuen, eta hala, Plan Estrategikoarekin lerrotuta, guztira CAFen eta filialen 57 proiektu berri jarriko dira martxan eta beste 49ri jarraitutasuna emango die. Guztira, 2014an laneko teknologia-planaren proiektuak 81 izan ziren.

Proiektu horiek finantzatzeko, I+Gren jarduera babesteko hainbat laguntza jaso dugu. Honako hauek dira horiek:

- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Eusko Jaurlaritzia.
- Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa.
- Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.
- Europako Batzordea.

2014an garatutako teknologia-planean CAF, CAF I+D eta hainbat filial partaide dituzten proiektuak indartu ditugu eta hainbat zentro teknologiko eta unibertsitatekin batera lanean gogor jarraitu dugu.

2014-2016 Teknologia Planean jasotako proiektuek honako eremu hauek lantzen dituzte:

- Abiadura Handia.
- Tren-produktu espezifikoak.
- Energiaren kudeaketa eta ekodiseinua trenen eta sistema orokorraren kontsumoa murrizteko, katenariarik gabeko tranbietarako energia lortzeko eta antzeko proiektuetan.
- Seinaleak, enbarkatuak zein finkoak.


- Integrazioa: garraio-sistema globaletako proiektuak biltzen ditu.
- Produktuak eta teknologia espezifikoak oinarritzko tren-teknologiei, trakzioari, errodajeei, erreduzitzaileei, kontrolari eta komunikazioari, mantentze-lanei eta abarrei buruzkoak.

Haietan guztietan bateratu dute teknologiak bereganatzera zuzendutako proiektuen egikaritzea, haietan oinarritutako produktuaren garapenarekin. Landutako proiektuen artean, hauek aipatu behar dira:

- Hainbat motatako ibilgailuak garatzeko proiektuak.
- Segurtasunerako elektronika garatzeko VEGA proiektua.
- Trena kontrolatzeko elektronika-proiektua, segurtasun-funtzioak barne.
- Aurrerapenaren erresistentzian espezializatutako garapen-proiektuak, bateragarritasun elektromagnetikoa, tren-dinamika, zarata eta bibrazioak, energiaren kudeaketa, energia pilotzeko sistemak, foru eta autonomia mailako administrazioek babestuta.
- Abiadura Handiko Trena: OARIS prototipoa.
- ERTMS-ETCS sistema seinaleztapen enbarkatuko ekipamendua garatzeko.

Proiektuen talde horren barruan nabarmendu behar da abiadura handiko trenen OARIS prototipoarekin egindako ibilgailu-bidea elkarrekintzari dagozkion bideko entseguak amaitu izana (dinamika, aerodinamika, pantografo-katenaria eta abar), baita prototipo hori homologazioko eta zerbitzuan jartzeko azken entseguak egiteko egunean jarri izana ere.





## GARAPEN TEKNOLOGIKOA

CAF Taldeak, era berean, RENFEekin eta ADIFekin lankidetzaproiektuetan parte hartu du; estatu mailan eta nazioarteko hainbat administrazio eta enpresarekin ere aritu da programa nazionaletan; baita Europako zazpigarren Esparru Programaren baitan ere. Proiektu horien artean, hauek aipa ditzakegu:

Europako Proiektuak:

- SAFEJOINT metala-metala eta metala-compositea egitura hibridoak garatzeko.
- Tren-ibilgailuetan balioztatze-inguruneetara bideratutako TRENDa.
- Material konposatueta kaxako egituren irtenbideen garapenerako REFRESCO.
- Hiriko tren-garraioan energia-kontsumoa gutxitzeko OSIRIS. Sektoreko enpresa garrantzitsuenak ari dira parte hartzen.
- MERLIN, sarean maila globaleko energia-kudeaketako estrategiak finkatzeko eta tren-sareari lotutako kontsumoa eta kostua optimizatzeko tresnak garatzeko.
- NGTC, ERTMS eta satellite bidezko posizionamendu-moduluaren arteko interfaze-azterketara bideratuta.
- EURAXLES, zerbitzuan dauden ardatzen nekeak eragindako akatsak minimizatzeko.

Europako proiektuen testuinguruan, nabarmendu behar da CAF delat Shift<sup>2</sup>Rail JUren (Joint Undertaking) 8 kide





fundatzaileetako bat, Horizon 2020 programaren barruan trenbideetako I+D jarduera sustatzeko. JU hori, 920 M€-ko aurrekontu orokorrarekin, 2014ko uztailaren 31n jarri zen martxan. Proiektu horretako teknologia-garapeneko lanak 2020 arte luzatuko dira.

Filialei dagokienez, garapen teknologikoko ohiko jarduerarekin aurrera jarraitu dute, eta honako mugarrri hauek aipa daitezke:

- Energia metatzeko sistema zerbitzu komertzialean izandako arrakasta eta katenariarik gabeko funtzionamendu autonomoa Sevillako tranbian eta horren aplikazioa Zaragozako, Granadako tranbietan, eta etorkizunean, Kaohsiung-eko (Taiwan) eta Cuiabáko (Brasil) tranbietan.
- Trakzio-ekipamenduen garapena, 25 kV arteko katenaria-tentsioaren aukerarekin. Horri esker, Indian Railways-erako eta Aucklandeko metrorako proiektuetan merkaturatu dugu eta hainbat herrialdetako tren-makinak birgaitzeko proiektuak egin ditugu.
- ADIFen lehiaketa ugaritan bideko ERTMS proiektuak garatzea eta esleitzea.

Ekitaldiko ingeniariaritzaren arloko proiektu nagusiak hauek izan dira:

- Amtrak-erako atoiaren eramandako bagoiak (AEB).
- Helsinki UTO metroa (Finlandia).

- SAR-entzat (Saudi Arabia) atoiaren eramandako kotxeak eta tren-makinak.
- Cincinnatiako tranbia (AEB).
- Kaohsiung tranbia (Taiwan).
- Tallineko (Estonia) tranbia.
- Freiburgeko (Alemania) tranbia.
- Cagliariako tranbia (Italia).

2014an zehar honako hauek jarri dira martxan:

- Txileko Santiagoko UTO metroa (Txile).
- Euskotreneko unitateak s/950.
- Bostoneko Metrorako LRV (AEB).
- NSrako Civity tren (Holanda).
- Kansaseko tranbia (AEB).
- Budapesteko tranbia (Hungaria).

CAF taldean lanean aritu gara, halaber, ibilgailu mota berrien oinarritzko garapenean, produktuen aukera zabaltzeko asmoz.





## ARRISKUAK KUDEATZEKO POLITIKA

Hauek dira Taldeak dituen arrisku nagusiak, sailkatuta:

### 1. Finantza mailako arriskuak

Finantza-merkatuen ziurgabetasuna kudeatzen arreta berezia jarri du CAF Taldeak, eta saiatzten da Taldearen finantza mailako errentagarritasunean ziurgabetasun horrek eragin ditzakeen aurkako kalteak murrizten.

Taldearen Finantza Sailak finantza mailako arriskuak identifikatu, aztertu eta estaltzen ditu; gainera, politikak finkatzen ditu arrisku orokorra kudeatzeko, baita alor jakin batzuetarako ere (truke-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, eratorrien eta eratorri gabeen erabilera, likidezia-soberakinaren inbertsioa eta proiektuetako aurrekontu-desbideraketa).

#### a) Merkatu-arriskua

Nazioartean dihardute CAF Taldeko sozietateek eta, horrenbestez, truke-tasaren arriskupean daude, dibisekin eragiketak egiteagatik (une honetan, Ameriketako dolarra, Brasilgo erreala, libera esterlina, Taiwaneko dolarra, Suediako koroa, Australiako dolarra, Zeelanda Berriko dolarra, Saudi Arabiako riala eta Mexikoko pesoa, besteak beste).

Epeka zehaztutako aseguru-kontratuak erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek geroko transakzio komertzialek eta aitortutako pasiboek eta aktiboek sortzen duten truke-tasaren arriskua kontrolatzeko. Truke-tasaren arriskua sortzen da Taldearen funtzionamendu-moneta (euroa) ez den beste batean egiten direnean geroko transakzio komertzialak eta aitortutako pasiboak eta aktiboak.

CAF Taldearen ohiko jarduera, betiere kostua arrazoizkoa bada, merkatu-arriskua estaltzea da, Taldearen funtzionamendu-moneta ez den besteren batean egindako kontratuetan. Estaldura horien helburua sinatutako kontratuetan dibisen gorabeheren eragina saihestea da. Horri esker, Taldearen emaitzak bere jarduera industrialaren eta zerbitzuen isla zehatza izatea lortu nahi da.

Lehengai nagusiei dagokionez, proiektu berri bakoitza indarrean sartzean egiten ditu eskariak CAFek eta orduan ixten du prezioa. Horri esker, lehenagaien prezioek izan dezaketen goranzko bilakaerak Taldearen kontratuko marjinetan modu negatiboan eragina izateko arriskua estal dezake.

#### b) Kreditu-arriskua

Kobratu beharreko kontu eta egiten ari garen lanik gehienak hainbat herrialdetako bezeroei dagozkie. Kasu gehienetan, proiektuak aurrera egin ahala hainbateko ordaintetako agintzen dituzte kontratuak.

Ohiko jarduera da Sozietateak esportazio-kontratuak bertan behera uzteko edo ez ordaintzeko arrisku jakin batzuk bermatzea. Horretarako, esportaziorako aseguru-polizak kontratatzen dira, ELGAko Hitzarmenak gai horietarako dituen arauen arabera. Estaldura egiteko edo ez egiteko erabakia, bezero motaren eta lan egiten duen herrialdearen arabera hartzen da.

#### c) Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuaren kudeaketa zuhurrak behar hainbat eskudirua eta balore negoziagarri edukitzea eskatzen du, baita Taldeak hartutako finantza-konpromisoei modu zabalean eta eraginkortasunez aurre egiteko finantza-baliabideak izatea ere.

Likidezia-arriskua mekanismo hauen bidez kudeatzen da CAF Taldean:

- Autofinantzaketako ahalik eta maila handieneko negozio-aukerak bilatzea eta hautatzea merkatuetako baldintzen barruan kontratu bakoitzerako. Ibilgailuen fabrikazio-proiektuetan (haiek gauzatzeko batez besteko aldia, gutxi gorabehera, hiru urtekoa izaten da), fakturazioko eta lanak gauzatzeko helburuak baliteke ez egotea denborari dagokionez lerrotatuta eta horrek beti finantza-baliabideen kontsumoa ekartzen du.
- Zirkulatzailaren kudeaketa aktiboa ezartzea eta mantentzea kontratatutako proiektu bakoitzeko fakturazioko helburuen betetze mailari modu iraunkorrean jarraituta.
- Epe laburrera, likidezia-posizio sendoari eustea.
- Erabili gabeko finantziario-ahalmen soberakinari eutsiz.





Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epearen inguruko informazioari dagokionez, 2014an 76,54 egunekoa izan da.

Epe hori 11/2013 Legeak ezarritako gehieneko epera egokitu eta murrizteko, Sozietateak esfortzua egingo du kobrantzak ordaintzetak sortzen dituzten ekintzak egokitzeko, beharrezko likidezia galdu gabe ordainketa-denbora murriztu ahal izateko.

#### **d) Eskudiruaren fluxuen eta arrazoizko balioaren interes-tasaren arriskua**

Taldearen interes-tasaren arriskua kanpoko baliabideak erabiltzetik sortzen da. Taldearen ohiko politika da zirkulatuzailearen finantzaketa-eragiketatarako hirugarren batzuekin zorra sortzea epe laburreko kanpoko baliabideen bitartez (merkatuko indize aldakorretan erreferentziatuta; gehienetan, Euriborrean). Horri esker, nabarmen murrizten da interes-tasa horren arriskua. Epe luzerako finantzaketa-eragiketatarako, interes-tasa finkoko egitura bat izatea izaten da helburua, merkatuek horretarako aukera ematen duten heinean.

#### **e) Proiektu-aurrekontuen desbideraketek dakartzaten arriskua**

Dagozkion eskaintzak prestatzeko oinarritzat erabilitako proiektuen aurrekontuetan gertatu izan diren desbideraketak informazio-sistema zehatza erabilia aztertu eta kontrolatu ohi dira. Horretarako, kostuaren kontusail bakoitza hartzen da oinarritzat eta kontusail horien aurrekontua proiektu bakoitzeko kostuen egoeraren errealtatearekin alderatzen da. Horri esker, proiektuek irauten duten bitartean, datu horien etengabeko jarraipena egiten da helburu horietarako sortutako barne-prozesu konplexu baten bidez. Bertan, proiektu bakoitzean sartuta dauden sail guztiek parte hartzen dute.

### **2. Produkzioak eragindako ingurumen-kalteen arriskua**

Ingurumena zaintzeko erabateko konpromisoa du CAFek. Hori dela eta, Europar Batasuneko ingurumeneko ekintza-programaren printzipioei jarraitzen die; printzipio horiek prebentziozko neurriak eta jatorriko zuzenketak dituzte oinarritzat. Gure sozietateak ekintza-programa abiarazi du ingurumenarekin lotutako hainbat alderditan (atmosfera, isuriak, hondakinak, lehengai-, energia- eta ur-kontsumoa, eta zarata), eta ISO14001 ziurtagiria eskuratu du horri guztiari esker.

### **3. Batez ere produkzioak eraginda zerbitzuak berandu edo atakatekin emateagatik beste batzuei kalteak eragitetik eratorritako legezko eta kontratu mailako arriskua**

23

Eskaintza-pleguez eta tren-ibilgailuen fabrikazio-kontratuek honako hauei buruzko eskakizun ugari biltzen dute: alderdi teknikoari eta kalitate maileri buruzkoak (maila teknologiko handiko produktu berriak sartu izanaren ondorioz), entrega-epeak betetzearekin lotutakoak, homologazio-beharrak, fabrikazioaren kokapenari buruzkoak eta beste arrisku operazional batzuk. Horiek guztiek, gehienetan, zigor mailak eta ebazpen- edo etete-klausulak biltzen dituzte. Horrekin lotuta, desadostasunak sor daitezke eskakizun horien inguruan CAF Taldearen eta bezeroen artean. Horrek atzerapenak direla eta erreklamazioak, lanak oker gauzatzea edo lan osagarriak egin behar izatea eragin dezake.

Proiektuen kudeaketako zailtasunak landu ahal izateko, CAF Taldeak arriskuen kudeaketa-sistema du erabilgarri, Taldearen kalitate-sisteman barneratuta. Eskaintza prestatzeko garaian jarri ohi da abian eta CAF Taldeak beren negozioaren ohiko bidean aurre egin behar izaten dien arrisku ugarien identifikazioa eta kudeaketa egitea ahalbidetzen du.

CAFeko lantegi guztiek eskura dauden teknologiarik berrienak dituzte eta, ISO 9001 arauari jarraiki, produkzioa optimizatzen teknika aurreratuenak erabiltzen dituzte.

Bestalde, aseguruak kontratatzen politikaz zorroztza erabiltzen du CAFek; horri esker, arrisku horietako batzuek eragin ditzaketen ondorio ekonomikoetatik eta sozietaterako ondorioetatik behar bezala babestuta dago.

### **4. Laneko arriskua, edo lantegietako ondasunak edo aktiboak kaltetzekoak**

Laneko Arriskua Prebenitzeko Sistema du CAFek, eta kanpoko enpresa batek auditatzen du. Prebentziorako sortutako Prebentzio Sistemaren Eskuliburuan daude zehaztuta, besteak beste, arriskuen ebaluazioa, istripuen ikerketa, segurtasun-ikuskapenak, osasun-zaintza eta trebakuntza biltzen dituzten jarduerak. Urteko Prebentzio Plan bat ere badago, eta bertan daude behar bezala antolatuta urte bakoitzerako prebentzio arloko jarduerak. Era berean, CAFek langileei zuzendutako Prestakuntza Plana ere badu arlo honetan.




24

## ETORKIZUNA

Taldea, datozen urteetan, ondorengo alor hauetan arituko da batez ere:

- Taldearen ahalmena garatzea trenbideen sektoreari aplikatutako zerbitzuen negozioan (emakidak, alokairua eta trenen mantentze-lanak, adibidez).
- Taldearen potentziala garatzea giltza eskurako sistemen eta trenbideetako seinalizatzenaren esparruetan, operatzeko prest dauden sistema osoak eskainiz, behar izanez gero aliantzekin.
- Material mugigarriko sistema eta ibilgailu berriak garatzea, proiektuen kudeaketa integraleko sistema aurreratuak ezartzearekin batera.
- Taldearen presentzia etengabe sustatzea trenbideko materialen nazioarteko merkatuetan.
- Kostuak murrizteko eta kalitatea hobetzeko programen aplikazio sistematikoa eta iraunkorra Taldearen negozio-esparru guztietan.
- Agertoki aldakorrean prozesu eta sistemak erakundean etengabe egokitzea, batez ere, kultura eta eskakizun berezituak dituzten kanpoko merkatuetan.
- Prozesuen araberako kudeaketa-eredu bat ezartzeko ekintza jarraitua.





## ONDORENGO GERTAERAK

2015eko urtarrilaren 31n, 5.496.451 mila euroko eskaerazorria zuen CAFek, kontratu irmoarekin.

25

## GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA

2014ko ekitaldiari dagokion Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena kudeaketa-txostenaren barruan dago eta CAFen webgune korporatiboan ([www.caf.net](http://www.caf.net)) argitaratuta dago Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari gertaera esanguratsu gisa horren berri eman ostean.



# IKUSKATZAILEAREN ESKUTITZA



*Jatorriz gazteleraz igorritako txostenaren itzulpena Espainian oro har onartzen diren ikuskaritza-arauen arabera eta Urteko Kontu Bateratuen inguruan egindako gure lana oinarri hartuta, jatorriz gazteleraz eta Europar Batasuneko finantza-informazioari buruzko nazioarteko araudiaren arabera igorriak. Desadostasunik egonez gero, gazteleraz igorritako bertsioa lehenetsiko da.*

## URTEKO KONTU BATERATUEN IKUSKARITZA INDEPENDENTEAREN TXOSTENA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, SA enpresako akziodunei:

### **Urteko kontu bateratuei buruzko txostena**

Erantsita dauden Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren (hemendik aurrera Sozietate Nagusi) eta mendeko sozietateen (hemendik aurrera Taldea, ikus 2.f. oharra) urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu. Bertan biltzen dira 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua, galera eta irabazien kontua, aitortutako sarrera eta gastuen egoera, ondare garbian izandako aldaketan egoera, eskudiruararen fluxuen egoera eta memoria bateratuak, guztiak data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak.

#### *Administratzaileak urteko kontu bateratuekin lotuta duten erantzukizuna*

Sozietate Nagusiko Administratzaileak dira erantsitako urteko kontu bateratuak formulatzearen arduradunak, eta Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren eta mendeko sozietateen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitza bateratuen irudi fidela adierazi behar dute, Europar Batasunak hartutako Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauen arabera eta Espainian Taldeari aplikagarri zaizkion finantza-informazioaren araudi-testuinguruko gainerako xedapenen arabera. Horrez gain, urteko kontu bateratuak iruzur edo akatsaren eraginez okerreko materialik gabe prestatzea ahalbidetzeko beharrezkotzat hartutako barne mailako kontrolak ere bete beharko dituzte.

#### *Ikuskariaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da gure auditoretzan oinarrituta erantsitako urteko kontu bateratuei buruzko iritzia adieraztea. Gure auditoria Espainian indarrean den kontuen auditoretzaren araudi erregulatuaren arabera egin dugu. Araudi horrek etikaren eskakizunak betetzea eskatzen du, baita ikuskaria planifikatzea eta egitea ere, urteko kontu bateratuak material okerrik gabe egon daitezzen arazoizko segurtasuna lortu ahal izateko.

Auditoria batek urteko kontu bateratuetan adierazitako informazio eta zenbatekoen inguruko auditoretzaren ebidentzia lortzeko prozedurak aplikatzea eskatzen du. Aukeratutako prozedurak auditorearen iritzia mendean daude, baita urteko kontu bateratuetan iruzur edo akatsaren ondorioz okerreko materiala izatearen arriskuaren balorazioa ere. Arriskuaren balorazio horiek egitean, auditoreak kontuan hartzen du sozietate Nagusiaren administratzaileek urteko kontu bateratuen formulaziorako barne-kontrola, egoeren arabera egokiak diren auditoretza-prozesuak diseinatzeko, eta ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia adierazteko. Auditoretza batek aplikatutako kontularitzako politiken egokitasunaren ebaluazioa ere biltzen du, baita zuzendaritzak egindako kontularitzako kalkuluen egokitasuna eta urteko kontu bateratuen (osotasunean hartuta) aurkezpenaren ebaluazioa ere.

Lortu dugun auditoretzaren ebidentziak gure auditoretzarako iritzia egiteko nahikoa oinarri eta oinarri egokia ematen digula uste dugu.

#### *Iritzia*

Gure iritziz, honi atxikitako urteko kontu bateratuek argi eta fideltasunez erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, 2014ko abenduaren 31n, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, SAren eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eskudiruararen fluxu eta eragiketa bateratuen emaitza bateratuak, Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauek eta aplikagarria den finantza-informazioko araudiko gainerako xedapenek ezarritakoa betez.

### Beste lege-eskakizun eta -araudi batzuei buruzko txostena

2014ko ekitaldiaren inguruko atxikitako kudeaketa-txosten bateratuak Sozietate nagusiko Administrazioaileek Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren eta baren mendeko sozietateen egoeraren, negozioen bilakaeraren eta beste gai batzuen inguruan egokitzen jotako azalpenak biltzen ditu eta ez dago urteko kontu bateratuetan txertatuta. Aipatutako kudeaketa-txosten bateratuak biltzen duen kontabilitateko informazioa 2014ko ekitaldiko urteko kontu bateratuekin bat datorrela egiaztatu dugu. Gure ikuskaritza-lana kudeaketa-txosten bateratua egiaztatzen mugatuta dago (paragrafo honetan zehaztutako irismenaren arabera) eta ez du biltzen Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren eta mendeko sozietateen kontularitzako erregistroetatik hartutakoa ez den beste informazioen bat berrikustea.

DELOITTE, SL  
ROACen inskribatua, S0692 zenbakiarekin.



Javier Giral Gracia  
2015eko otsailak 25

# TALDE BATERATUAREN URTEKO KONTUAK

2014KO EKITALDIA



## Egoera Balantze Bateratuak

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n (1, 2 eta 3 oharra) (Mila euro)

Construcciones y Auxiliars de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

30

Aktiboa	2014/12/31	2013/12/31 (*)
<b>Aktibo ez korrontea:</b>		
<b>Ibilgetu ukiezina (7. oharra)</b>		
Merkataritza Funtza	15	15
Beste ibilgetu ukiezin bat	37.673	35.172
	<b>37.688</b>	<b>35.187</b>
<b>Ibilgetu materiala, garbia (8. oharra)</b>	<b>271.839</b>	<b>286.593</b>
<b>Partaidetza-metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak (9. oharra)</b>	<b>12.257</b>	<b>14.902</b>
<b>Finantza-aktibo ez-korrontek (9. oharra)</b>	<b>669.549</b>	<b>657.233</b>
<b>Zerga geroratuagatiko aktiboak (18. oharra)</b>	<b>163.842</b>	<b>162.283</b>
<b>Aktibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>1.155.175</b>	<b>1.156.198</b>
<b>Aktibo korrontea:</b>		
<b>Izakinak (11. oharra)</b>	<b>180.504</b>	<b>159.857</b>
<b>Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk</b>		
Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren arabeko bezeroak (10., 11. eta 12. oharra)	1.107.006	1.040.576
Beste zordun batzuk (10. eta 19. oharra)	188.410	206.739
Zerga korrontegatiko aktiboak (19. oharra)	6.493	17.604
	<b>1.301.909</b>	<b>1.264.919</b>
<b>Beste finantza-aktibo korronte batzuk (13. oharra)</b>	<b>123.945</b>	<b>97.703</b>
<b>Beste aktibo korronte batzuk</b>	<b>4.591</b>	<b>2.022</b>
<b>Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide</b>	<b>197.111</b>	<b>127.150</b>
<b>Aktibo korrontea, guztira</b>	<b>1.808.060</b>	<b>1.651.651</b>
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>2.963.235</b>	<b>2.807.849</b>



<b>Pasiboa eta ondare garbia</b>	<b>2014/12/31</b>	<b>2013/12/31 (*)</b>
<b>Ondare garbia (14. oharra):</b>		
<b>Berezko funtsak</b>		
Eskrituratutako kapitala	10.319	10.319
Jaulkipen-prima	11.863	11.863
Birbalorizazio-erreserba	39.119	58.452
Sozietate nagusiko eta integrazio bidez bateratutako beste sozietate batzuetako beste erreserba batzuk orokorra eta partaidetza-metodoaren bidezkoa	691.777	618.264
Sozietate nagusiari esleitutako ekitaldiko emaitza	59.679	90.181
	<b>812.757</b>	<b>789.079</b>
<b>Balio-aldaketen ondoriozko doiketak</b>		
Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak	-	3.704
Estaldurako eragiketak	(6.212)	(2.882)
Bihurketa-diferentziak	(70.336)	(70.789)
	<b>(76.548)</b>	<b>(69.967)</b>
<b>Sozietate nagusiari egotz dakioken ondare garbia</b>	<b>736.209</b>	<b>719.112</b>
<b>Interes minoritarioak</b>	<b>12.704</b>	<b>10.249</b>
<b>Ondare garbia, guztira</b>	<b>748.913</b>	<b>729.361</b>
<b>Pasibo ez korrontea:</b>		
<b>Hornidura ez-korrontek (20. oharra)</b>	<b>5.075</b>	<b>4.785</b>
<b>Finantza-pasibo ez-korrontek (15. eta 16. oharrak)</b>		
Kreditu-erakundeekiko zorrak	683.062	477.934
Beste zenbait finantza-pasibo	76.405	73.590
	<b>759.467</b>	<b>551.524</b>
<b>Zerga geroratuengatikoko pasiboak (18. oharra)</b>	<b>152.426</b>	<b>147.020</b>
<b>Beste pasibo ez-korronte batzuk (3.p. oharra)</b>	<b>66.880</b>	<b>52.366</b>
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>983.848</b>	<b>755.695</b>
<b>Pasibo korrontea:</b>		
<b>Hornidura korrontek (20. oharra)</b>	<b>265.329</b>	<b>335.027</b>
<b>Finantza-pasibo korrontek (15. eta 16. oharrak)</b>		
Kreditu-erakundeekiko zorrak	158.039	232.705
Beste zenbait finantza-pasibo	46.733	39.074
	<b>204.772</b>	<b>271.779</b>
<b>Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk</b>		
Hornitzaileak (25. oharra)	463.067	460.652
Beste hartzekodun batzuk (10., 11., 15., 19. eta 20. oharrak)	293.197	252.808
Zerga korronteagatikoko pasiboak (19. oharra)	3.513	1.866
	<b>759.777</b>	<b>715.326</b>
<b>Beste zenbait pasibo korronte</b>	<b>596</b>	<b>661</b>
<b>Pasibo korrontea, guztira</b>	<b>1.230.474</b>	<b>1.322.793</b>
<b>Pasiboa eta ondare garbia, guztira</b>	<b>2.963.235</b>	<b>2.807.849</b>

(\*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e. oharra).

Atxikitako 1etik 27ra arteko oharrak 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuaren baitan daude.

## Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharra) (Mila euro)

Construcciones y Auxiliars de Ferrocarriles, S.A. eta mendeko sozietateak CAFTaldea osatzen dutenak

32

(Zor) Hartzekoa	2014	2013 (*)
<b>Eragiketa jarraituak:</b>		
Negozio-zifraren zenbateko garbia (6., 9. eta 10. oharra)	1.447.141	1.535.240
+/- Amaitutako produktuen eta fabrikazioan daudenen izakinen arteko aldaketa	7.690	(149.530)
Enpresak bere aktiborako egindako lana	9.840	7.106
Hornidurak (21. oharra)	(743.140)	(560.010)
Ustiapeneko beste sarrera batzuk (21. oharra)	5.289	4.117
Pertsonaleko gastuak (22. oharra)	(406.236)	(394.460)
Ustiapeneko beste gastu batzuk (21. oharra)	(174.159)	(219.535)
Ibilgetuaren amortizazioak (7. eta 8. oharra)	(42.398)	(42.552)
Ibilgetua besterentzearen ondoriozko kaltea eta eragina (7., 8. eta 9. oharra)	10.958	(29.065)
<b>Ustiapenaren emaitza</b>	<b>114.985</b>	<b>151.311</b>
Finantza arloko sarrerak (3.d, 9., 10. eta 13. oharra)	10.187	13.974
Finantza arloko gastuak (9. eta 16. oharra)	(47.252)	(47.687)
Trukeko aldeak	(2.394)	(3.645)
Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko kaltea eta emaitza (9. oharra)	4.357	1.013
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa	373	(275)
<b>Finantza arloko emaitza</b>	<b>(34.729)</b>	<b>(36.620)</b>
Partaidetza-metodoaren bidez baloratutako erakundearen emaitza (9. oharra)	200	(392)
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>80.456</b>	<b>114.299</b>
Irabazien gaineko zerga (18. oharra)	(18.327)	(23.262)
<b>Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza</b>	<b>62.129</b>	<b>91.037</b>
<b>Ekitaldiko emaitza bateratua</b>	<b>62.129</b>	<b>91.037</b>
Honi egotzitakoa:		
Sozietate nagusia	59.679	90.181
Interes minoritarioak	2.450	856
<b>Akzio bakoitzeko irabazia (eurotan)</b>		
Oinarrizkoa	17,41	26,31
Diluitua	17,41	26,31

(\*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e. oharra).

Honi erantsitako 1etik 27ra arteko oharra 2014ko abenduaren 31ko galera eta irabazien kontu bateratuaren baitakoak dira.

## Aitortutako Sarrera eta Gastuen Egoera Bateratuak

2014ko eta 2013ko ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharra) (Mila euro)

Construcciones y Auxiliars de Ferrocarriles, S.A. eta mendeko sozietateak CAFTaldea osatzen dutenak

	2014	2013 (*)
<b>A) Ekitaldiko emaitza bateratua</b>	<b>62.129</b>	<b>91.037</b>
<b>B) Zuzenean ondare garbiari egotzitako sarrerak eta gastuak</b>	<b>(2.877)</b>	<b>(37.016)</b>
Finantza-tresnen balorazioaren arabera	-	3.838
Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra)	(3.501)	1.594
Bihurketa-diferentziak (14. oharra)	454	(42.287)
Zerga-eragina (18. oharra)	170	(161)
<b>C) Galera eta irabazien kontura egindako transferentziak</b>	<b>(3.703)</b>	-
Finantza-tresnen balorazioaren arabera (9.b. oharra)	(3.838)	-
Bihurketa-diferentziak	-	-
Zerga-eragina (18. oharra)	135	-
<b>Aitortutako sarrerak eta gastuak, guztira (A+B+C)</b>	<b>55.549</b>	<b>54.021</b>
Honi egotzitakoa:		
Sozietate nagusia	53.098	53.171
Interes minoritarioak	2.451	850

(\*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e. oharra).

Honi erantsitako 1etik 27ra arteko oharra 2014ko abenduaren 31ko aitortutako sarrera eta gastuen egoera bateratuaren baitakoak dira.

## Ondare Garbi Bateratuan gertatutako Aldaketen Egoerak

2014 eta 2013 ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharra) (Mila euro)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAFTaldea osatzen duten mendeko sozietateak

	Sozietate nagusiari egotz dakioken ondare garbia								
	Berezko funtsak					Ondare doikuntzak balorazioaren arabera	Bihurketa diferentziak	Interes minoritarioak	Ondarea, guztira
Kapital soziala	Jaulkipen prima	Egin gabeko aktibo eta pasiboen berrebaluazioagatiko erreserba	Beste erreserba batzuk	Ekitaldiko emaitza garbia					
<b>2012ko abenduaren 31ko saldoak (*)</b>	<b>10.319</b>	<b>11.863</b>	<b>58.452</b>	<b>554.784</b>	<b>99.454</b>	<b>(4.449)</b>	<b>(28.508)</b>	<b>5.685</b>	<b>707.600</b>
<b>Aitortutako sarrerak/gastuak, guztira</b>	-	-	-	-	<b>90.181</b>	<b>5.271</b>	<b>(42.281)</b>	<b>850</b>	<b>54.021</b>
<b>Bazkideekin edo jabeekin egindako eragiketak</b>	-	-	-	-	<b>(35.995)</b>	-	-	<b>3.714</b>	<b>(32.281)</b>
Dibidenduen banaketa	-	-	-	-	(35.995)	-	-	(2.465)	(38.460)
Kanpoko bazkideekin egindako eragiketak	-	-	-	-	-	-	-	6.179	6.179
<b>Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk</b>	-	-	-	<b>63.480</b>	<b>(63.459)</b>	-	-	-	<b>21</b>
Ondare garbiaren kontusailen arteko intsuldaketak	-	-	-	63.480	(63.459)	-	-	-	21
<b>2013ko abenduaren 31ko saldoak (*)</b>	<b>10.319</b>	<b>11.863</b>	<b>58.452</b>	<b>618.264</b>	<b>90.181</b>	<b>822</b>	<b>(70.789)</b>	<b>10.249</b>	<b>729.361</b>
<b>Aitortutako sarrerak/gastuak, guztira</b>	-	-	-	-	<b>59.679</b>	<b>(7.034)</b>	<b>453</b>	<b>2.451</b>	<b>55.549</b>
<b>Bazkideekin edo jabeekin egindako eragiketak</b>	-	-	-	-	<b>(35.995)</b>	-	-	<b>4</b>	<b>(35.991)</b>
Dibidenduen banaketa	-	-	-	-	(35.995)	-	-	(895)	(36.890)
Kanpoko bazkideekin egindako eragiketak	-	-	-	-	-	-	-	899	899
<b>Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk</b>	-	-	<b>(19.333)</b>	<b>73.513</b>	<b>(54.186)</b>	-	-	-	<b>(6)</b>
Ondare garbiaren kontusailen arteko intsuldaketak (14.c. oharra)	-	-	(19.333)	73.513	(54.186)	-	-	-	(6)
<b>2014ko abenduaren 31ko saldoak</b>	<b>10.319</b>	<b>11.863</b>	<b>39.119</b>	<b>691.777</b>	<b>59.679</b>	<b>(6.212)</b>	<b>(70.336)</b>	<b>12.704</b>	<b>748.913</b>

(\*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e. oharra).

Atxikitako 1etik 27ra arteko oharra 2014ko abenduaren 31ko ondare garbi bateratuko aldaketen egoeraren baitakoak dira.

## Eskudiruaren Fluxuaren Egoera Bateratua

2014 eta 2013 ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila euro)

Construcciones y Auxiliars de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

35

	2014	2013 (*)
<b>Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren fluxuak:</b>		
Zergen aurreko emaitza	80.456	114.299
Emaitzaren doiketak		
Amortizazioak (7. eta 8. oharrak)	42.398	42.552
Kaltearen ondoriozko balorazioko zuzenketak (7. eta 9. oharrak)	(10.754)	27.800
Horniduren aldaketa (3.1 eta 20 oharrak)	(68.868)	(10.981)
Galera eta irabazien beste kontusail batzuk	1.757	12.641
Aktibo ez-korronteak besterentzearen ondoriozko emaitza (8. oharra)	(4.336)	73
Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak (9. oharra)	(200)	392
Finantza Sarrerak	(10.187)	(13.974)
Finantza-gastuak	47.252	47.687
Kapital korronteko aldaketak		
Zordun komertzialak eta beste aktibo korronte batzuk (3.d. eta 12. oharrak)	(66.236)	(258.466)
Izakinak (11. oharra)	(20.256)	85.914
Hartzekodun komertzialak	37.066	(89.841)
Beste zenbait pasibo korronte	4.476	158
Beste aktibo eta pasibo ez-korronte batzuk	35.662	24.140
Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren beste fluxu batzuk		
Irabazien gaineko zergen arabera kobrantzak/(Ordainketak) (19. oharra)	(4.064)	(23.783)
Ustiapeneko jardueren beste kobrantza/(Ordainketa) batzuk	(1.735)	(2.050)
<b>Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren fluxu garbiak (I)</b>	<b>62.431</b>	<b>(43.439)</b>
<b>Inbertsio-jardueren arabera eskudiruaren fluxuak:</b>		
Inbertsioen arabera ordainketak		
Taldekota eta elkartutako enpresak (9. oharra)	-	(633)
Ibilgetu materiala, ukiezina eta inbertsio higiezinak (7. eta 8. oharrak)	(24.306)	(49.482)
Beste finantza-aktibo batzuk (9 eta 13 oharrak)	(46.992)	(58.258)
Inbertsioen arabera kobrantzak		
Ibilgetu materiala, ukiezina eta inbertsio higiezinak (7. eta 8. oharrak)	475	237
Beste finantza-aktibo batzuk (9. eta 13. oharrak)	52.979	105.373
Interesen kobrantza (13. oharra)	5.963	10.415
<b>Inbertsio-jardueren eskudiruaren fluxu garbiak (II)</b>	<b>(11.881)</b>	<b>7.652</b>
<b>Finantzaketa-jardueren arabera eskudiruaren fluxuak:</b>		
Kanpoko bazkideek partaidetzak jaulkitzea	899	1.829
Finantza-pasiboko tresnen arabera kobrantzak/(Ordainketak)		
Jaulkipena (15. eta 16. oharrak)	421.162	245.304
Itzulketak eta amortizazioa (15. eta 16. oharrak)	(329.743)	(70.899)
Dibidenduen arabera ordainketak eta ondarearen beste tresna batzuek ordainketak	(38.990)	(36.914)
Finantzaketako jardueretako eskudiruaren beste fluxu batzuk		
Interesen ordainketa (16. oharra)	(38.471)	(42.921)
<b>Finantzaketa-jardueren eskudiruaren fluxu garbiak (III)</b>	<b>14.857</b>	<b>96.399</b>
<b>Eskudiruaren eta eskudiruaren baliokideen igoera garbia (I+II+III)</b>	<b>65.407</b>	<b>60.612</b>
Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak aldiaren hasieran	127.150	76.682
Diruzaintzako truke-tasako aldaketen eragina	4.554	(10.144)
<b>Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak aldiaren amaieran</b>	<b>197.111</b>	<b>127.150</b>

(\*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e. oharra).

Atxikitako 1etik 27ra arteko oharrak 2014ko abenduaren 31ko eskudiruaren fluxuaren egoera bateratuan sartuta daude.

## 2014ko abenduaren 31n amaitutako Urteko Ekitaldiari dagokion memoria bateratua

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta Mendeko Sozietateak (CAF Taldea)

36

### 1. SOZIETATE NAGUSIAREN IZAERA ETA JARDUERA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, SA (aurrerantzean CAF edo Sozietate nagusia) Donostian (Gipuzkoa) sortu zen, mugarik gabeko izaerarekin.

Helburu soziala Estatutu Sozialen 2. artikuluan deskribatuta dago.

Sozietate nagusiaren oraingo jarduera nagusia trenbideetarako materiala fabrikatzea da.

Sozietate nagusiak, bere jarduera garatu ahal izateko, beste sozietate batzuetan partaidetzen gehiengo du (2.f. oharra).

### 2. URTEKO KONTU BATERATUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

#### a) Aurkezteko oinarriak

CAF Taldearen 2014ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak administratzaileek formulatu dituzte:

- Lehenbizikoz, Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauen arabera (FINA, hemendik aurrera) egin dira kontuak. Europar Batasunak finkatuak dira arau horiek, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Arauarekin (EB) bat etorritik, Nazioarteko Kontabilitate Arauak (NKA) eta Financial Reporting Interpretations Committee (IFRIC) eta Standing Interpretations Committee (SIC) erakundeen irizpideak barne direla. 3. oharrean daude laburbilduta atxikitako urteko kontu bateratuak prestatzeko aplikatu diren kontabilitateko printzipiorik eta balorazioko irizpiderik adierazgarrienak.
- Bestalde, aintzat hartu dira urteko kontu bateratuetan eragin nabarmena duten eta nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arau eta balorazio-irizpide guztiak, baita araudiak horretarako baimentzen dituen alternatibak ere (3. oharrean daude zehaztuta).
- Hori dela eta, CAF Taldeak 2014ko abenduaren 31n duen ondare bateratuaren eta finantza-egoeraren araberrako irudia erakusten dute. Horrez gain, data horretan amaitutako ekitaldian Taldean sortu diren lanen emaitzen, ondare garbi bateratuko aldaketan eta eskudiruarren fluxu bateratuen emaitzak ere jasotzen ditu.
- Kontuan izan dira, halaber, sozietate nagusiaren eta Taldeko gainerako sozietateen kontabilitate-erregistroak. Dena den, Taldearen urteko kontu bateratuak prestatzeko erabili diren kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak (FINA) Taldeko sozietate bakoitzak erabiltzen dituenarekin (tokian tokiko araudia) bat ez datozela ikusirik, zenbait doiketa eta birsailkatze erantsi zaizkio bateratze-prozesuari, elkarrekin bateragarri egiteko aipatutako printzipioak eta irizpideak eta Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauetara egokitzeak.

2013ko ekitaldiari dagozkion CAF Taldearen urteko kontu bateratuak 2014ko ekainaren 7an egindako CAFeko Akziodunen Batzar Orokorrak onartu zituen. Akziodunen Batzar Orokorrek onartu behar dituzte 2014ko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuak eta haren partaide diren sozietateen urteko kontuak. CAFeko Administrazio Kontseiluaren iritziz, inongo aldaketarik gabe onartuko dira urteko kontu horiek.

#### b) Argitaratu diren arau eta interpretazio berriak geure egitea

2014ko urteko ekitaldian kontabilitateko arau berriak indarrean jarri dira, beraz, kontuan izan ditugu atxikitako urteko kontu bateratuak prestatzeko orduan.

2014ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zirenetik, Taldearentzat kontularitzako politika-aldaketa ekarri duten honako arau eta interpretazio hauek aplikatzen ari da Taldea:

10. FINA finantza-egoera bateratuak, 11. FINA baterako akordioak, 12. FINA beste erakunde batzuetako partaidetzei buruzko banakapena, 27. NKA (Berrikusia) banakako finantza-egoerak eta 28. NKA (Berrikusia) Inbertsioak elkartuetan eta baterako negozioak.

10. FINAk orain dugun kontrolaren definizioa aldatzen du. Kontrolaren definizio berriak bete beharreko hiru elementu ditu: boterea parte-hartzailearengan, inbertsioaren emaitza aldakorak ikustea edo ikusteko eskubidea izatea eta botere hori itzulkinen zenbatekoan eragiteko moduan erabiltzeko gaitasuna.

11. FINA, Baterako akordioak izenekoak ordezkatzeko du orain indarrean den 31. NKA. 11. FINAk ekarriko duen aldaketa nagusia da kendu egingo diela batera kontrolatzen diren erakundeei (baterako negozioak) bateratze proportzionala egiteko aukera eta baliokideak aterata funtzionatuko dute hemendik aurrera.

27. eta 28. NKA arauen aldaketak lehen aipatutako FINA berrien igorpenaren paraleloak dira. Taldearen kasuan, aurrez aipatutakoez gain ez du beste eraginik izan.

Azkenik, 12. FINA banakapen-arau bat da eta beste erakunde batzuetan (mendekoak, elkartuak, baterako negozioak eta beste mota bateko partaidetzak) parte hartzeari buruzko kontuetako ezagutarazte-eskakizun guztiak biltzen ditu, banakapenerako eskakizun berriak barne.

### 32. NKAren aldaketa, finantza-tresnak: finantza-pasiboen eta aktiboen konpentsazioa

32. NKAren aldaketak egoeraren balantzea aurkeztean finantza-aktibo bat eta pasibo bat konpentsatzeko arauak dituen eskakizunei buruz hainbat argibide ekarriko dizkio ezarpen-gidari. 32. NKAk adierazten duenez, finantza-aktiboak eta pasiboak konpentsatzeko, erakundeak une horretan legez aitortutako zenbatekoak konpentsatzea eskatzeko eskubidea izan behar du.

Aldatutako ezarpen-gidak, besteak beste, adierazten du baldintza hori betetzeko, konpentsazioa jasotzeko eskubideak ez duela etorkizuneko jardueren mendekoa izan behar eta legez eskatzeko modukoa izan behar duela, bai negozioen ohiko jardunean, bai erakundeak eta aurkako alderdi guztiek betetzen ez duten kasuan, kaudimen-gabezia dutenean edo porrot egindakoan. Aldaketa hori indarrean sartzeak ez ditu aldatu Taldearen kontularitza-politikak finantza-aktibo eta -pasiboen konpentsazioari dagokionez.

### Indarrean ez dauden eta jaulki diren arau eta interpretazioak

Urteko kontu bateratu hauek egin diren datan, IASBk argitaratuak zituen jada arau, aldaketa eta interpretazio hauek guztiak, baina artean indarrean sartu gabe zeuden, urteko kontu bateratuen data baino geroagokoa dutelako eragin-data, edo Europako Batasunak artean onartu gabe zituelako.

Erabakia	IASBren eragin-data	Europar Batasuneko eragin-data
21. IFRIC - Zergak	2014ko urtarrilak 1	2014ko ekainak 17 (*)
19. NKAren aldaketa - Zehaztutako prestazio-planetan erabilitako kontribuzioak	2014ko uztailak 1	2014ko uztailak 1
16. eta 38. NKAren aldaketa – Balio-galera eta amortizazioa egiteko metodo onargarriak	2016ko urtarrilak 1	Aztertzeke
11. FINAren aldaketa – Eragiketetan partaidetzak erostea	2016ko urtarrilak 1	Aztertzeke
10. FINA eta 28. NKAren aldaketa – Aktiboen salmenta edo ekarpena inbertsiogile baten eta haren bazkidearen/negozio bateratuaren artean	2016ko urtarrilak 1	Aztertzeke
27. NKAren aldaketa – Finantza Egoera Bereizietan baliokidetas unean jartzeko metodoa	2016ko urtarrilak 1	Aztertzeke
16. NKA eta 41. NKAren aldaketa – Ekoizpen-lantegiak	2016ko urtarrilak 1	Aztertzeke
15. FINA – Bezeroekin egindako kontratuetatik etorritako sarrerak	2017ko urtarrilak 1	Aztertzeke
9. FINA - Finantza-tresnak	2018ko urtarrilak 1	Aztertzeke

(\*) Europar Batasunak 21. IFRIC endosatu du (2014ko ekainaren 14ko EB buletina), IASBk 2014ko ekainaren 17koaren bidez ezarritako jatorrizkoa indarrean sartutako data aldatuta (2014ko urtarrilak 1).

## 15. FINA Sarrerren onespena

15. FINA Bezeroekin egindako kontratuetatik etorritako sarrerak da bezeroen sarrerak aitortzeko aukera ematen duen araua. Egun indarrean diren honako arau eta interpretazio hauek ordezkaturiko ditu: 18. NKA Ohiko jardueren sarrerak, 11. NKA Eraikuntza-kontratuak, 13. IFRIC Bezeroak leialtzeko programak, 15. IFRIC Higiezinak eraikitzeak akordioak, 18. IFRIC Bezeroetatik datozen aktiboen transferentziak eta 31. SIC 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietan publizitate-zerbitzuen permutak-sarrerak.

Urteko kontu bateratu hauek egindako datan, Taldea arau hori aplikatzeak dituen eraginak aztertzen ari da, beraz, azterketa hori osatu arte ezin da ondorioen estimazio egokirik egin.

### 9. FINA. finantza-tresnak

9. FINAk etorkizunean 39. NKA ordezkaturiko du. Egungo arauarekiko alde nabarmenak daude; garrantzitsuena ikuspegi berria eta finantza-aktiboen balorazio eta sailkapen kategoriak dira, egindako galeren ordez esperotako galeretan oinarritutako narriadura-eredua, baita kontabilitatea arriskuaren kudeaketa ekonomikoarekin lerrotatzen sailtzearen desberdina den estalduren kontabilitatea ere.

Urteko kontu bateratu hauek egindako datan, Taldea arau hori aplikatzeak etorkizunean izango dituen eragin guztiak aztertzen ari da, beraz, azterketa hori osatu arte ezin da ondorioen estimazio egokirik egin.

### c) Moneta funtzionala

Eurotan aurkeztu dira urteko kontu bateratu hauek, Taldeak lan egiten duen ingurune ekonomiko nagusiko moneta euroa baita. 2.f. oharra deskribatzen dituen politiken arabera erregistratzen dira atzerriko eragiketak.

### d) Estimazioak

Batzuetan, estimazioak erabili dira CAF Taldearen 2014ko ekitalditako urteko kontu bateratuetan.

Estimazio horiek aztertutako gertaeren inguruan 2014eko abenduaren 31n eskuragarri zegoen informaziorik onenaren arabera egin ziren arren, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen jazoerek horiek aldaraztea (gorantz zein beherantz) hurrengo ekitaldietan; hori dela eta, 8. NKAk xedatutakoaren arabera egin beharko liriteke aldaketa horiek etorkizunera begira, estimazio-aldaketaren eraginak kontuan hartuta dagokion galera eta irabazien kontu bateratuan.

Urteko kontu bateratu hauetan eragin nabarmenik izan duen aldaketarik ez da egon kontabilitate-estimazioetan, 2013rekin alderatuta.

### e) Informazioa alderatzea

1 NKAk xedatutakoa betez, 2014ko ekitaldiaren inguruko memoria honetan azaltzen den informazioa 2013ko ekitaldiko informazioarekin batera ageri da alderatu ahal izateko.

Alderaketa egiteko erantsi ditugun 2013ko urteko kontu bateratuak ere Europar Batasunak finkatutako FINAen arabera egindakoak dira, 2014ko ekitaldikoekin aplikatutakoan antzera.

### f) Talde bateragarria eta bateratze-printzipioak

#### Bateratze-eremua

Sozietate nagusiarenak eta haren kontrolpeko sozietateenak dira honi erantsita datozen urteko kontu bateratuak. Kontrola finantza arloko politikak zein politika operatiboak zuzentzeko ahalmena da, jarduera horietatik irabaziak lortu ahal izateko.

2014ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontu bateratu hauek Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, SArek (Sozietate nagusia; 1. oharra) eta ondoren data haren arabera zerrendatu diren mendeko sozietateen eta lotutako sozietateen banakako kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira:



	Kontrol edo eraginaren %	Helbide soziala	Jarduera	Ikuskaria
<b>Integrazio osoz bateratuak</b>				
<b>Azpitalde industrialia</b>				
CAF, SA	Menderatzailea	Gipuzkoa	Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza- eta industria-jarduera	Deloitte
CAF USA, Inc.	% 100	Delaware	Fabrikazioa	G. Thornton
CAF México, SA de CV	% 100	Mexiko DF	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Brasil Industria e Comercio, SA	% 100	Sao Paulo	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Argentina, SA	% 100	Buenos Aires	Konponketa eta mantentze-lanak	G. Thornton
CAF Rail UK, Ltda.	% 100	Belfast	Konponketa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Italia, SRL	% 100	Erroma	Konponketa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Chile, SA	% 100	Txileko Santiago	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Turquia, LS	% 100	Istanbul	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Argelia, EURL	% 100	Aljer	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	CACF Audit
Trenes CAF Venezuela, CA	% 100	Caracas	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Rail Australia Pty. Ltd.	% 100	Sydney	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Pitcher Partners
CAF India Private Limited	% 100	Delhi	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF France, SAS	% 100	Paris	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
Trenes de Navarra, SAU	% 100	Nafarroa	Fabrikazioa	Deloitte
Construcciones Ferroviarias de Madrid, SLU	% 100	Madril	Fabrikazioa	G. Thornton
Construcciones Ferroviarias CAF-Santana, SA	% 83,73	Jaen	Fabrikazioa	Bsk
Tradinsa Industrial, SA	% 100	Lleida	Konponketa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF New Zealand Ltd	% 100	Auckland	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Staples Rodway
CAF Sisteme Feroviare SRL	% 100	Bukarest	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Colombia, SAS	% 100	Medellin	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Arabia, Co.	% 100	Riyadh	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Latvia SIA	% 100	Riga	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	-
CAF Deutschland GmbH	% 100	Munich	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	-
CAF Taiwan Ltd.	% 100	Kaohsiung	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte
CAF Hungria, K.F.T.	% 100	Budapest	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	Deloitte

	Kontrol edo eraginaren %	Helbide soziala	Jarduera	Ikuskaria
<b>Azpitalde teknologikoa</b>				
CAF I+D, SL (kide bakarreko sozietatea)	% 100	Gipuzkoa	I+G	Deloitte
CAF Power & Automation, SLU	% 100	Gipuzkoa	Potentziako ekipamenduak eta ekipamendu elektronikoak	Deloitte
Nuevas Estrategias de Mantenimiento, SL	% 85	Gipuzkoa	Irtenbide teknologikoak	Bsk
Urban Art Alliance for Research on Transport AIE	% 60	Gipuzkoa	I+G	Deloitte
Vectia Mobility, SL	% 60	Gipuzkoa	Hiri-garraiorako irtenbideak	-
CAF Transport Engineering, SLU	% 100	Bizkaia	Ingeniaritza	Bsk
Centro de Ensayos y Análisis Cetest, SL	% 100	Gipuzkoa	Probak	Bsk
Lander Simulation and Training Solutions, SA	% 57	Gipuzkoa	Simulagailuak	Bsk
Gemynys, SL	% 100	Gipuzkoa	Lanetarako eskuliburuak	Bsk
CAF Signalling, SLU	% 100	Gipuzkoa	Seinaleztapena	Deloitte
CAF Sinyalizasyon Sistemleri Ticaret Ltd. Sirketi	% 90	Istanbul	Seinaleztapena	Deloitte
<b>Zerbitzuak azpitaldea</b>				
Actren, S.A.	% 51	Madril	Mantentze-lanak	Deloitte
Sermanfer, SA	% 100	Madril	Mantentze-lanak	Audyge
Sefemex, SA de CV	% 100	Mexiko DF	Zerbitzuen eskaintza	Almaguer
Corporación Trainemex, SA de CV	% 100	Mexiko DF	Administrazioa	Almaguer
Inversiones en Concesiones Ferroviarias, SA	% 100	Gipuzkoa	Enpresak bultzatzea	Deloitte
Urbanización Parque Romareda, SA	% 100	Zaragoza	Akzioak edukitzea	-
UPR Argentina, SA	% 100	Buenos Aires	Akzioak edukitzea	-
Ctrens Companhia de Manutenção, SA	% 100	Sao Paulo	Errentamendu-zerbitzuak	Deloitte
Provetren, SA de CV	% 100	Mexiko DF	Errentamendu-zerbitzuak	Deloitte
Regiotren, SA de CV	% 100	Mexiko DF	Errentamendu-zerbitzuak	-
Sermantren, SA de CV	% 100	Mexiko DF	Zerbitzuen eskaintza	Almaguer
Ennera Energy and Mobility, SL	% 100	Gipuzkoa	Energia-sortzea	Bsk
Beasain Energía Solar, S.L.	% 100	Gipuzkoa	Energia-sortzea	-
El Yelmo Energía Solar, S.L.	% 100	Gipuzkoa	Energia-sortzea	-
Rail Line Components, SLU	% 100	Gipuzkoa	Merkaturatzea	Bsk
Miralbaida Energia XV, SLU	% 100	Gipuzkoa	Energia-sortzea	Bsk
<b>Eraikuntza azpitaldea</b>				
Constructora de Sistemas Ferroviarios, SL	% 100	Gipuzkoa	Ekipamendua	Deloitte
Construcción, Mantenimiento, Ferrovías y Subsistemas, S.A. de C.V.	% 100	Mexiko DF	Ekipamendua	Deloitte
<b>Partaidetza-metodoaren bidez bateratuak (9. oharra)</b>				
<b>Azpitalde industrialia</b>				
Compañía de Vagones del Sur, S.A.	% 29,3	Jaen	Fabrikazioa	-
Urban Transport Solutions BV (*)	% 49	Amsterdam	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	-
Ferrocarril Interurbano S.A. de C.V.	% 49,63	Mexico D.F.	Fabrikazioa eta ekipamendua	-

	Kontrol edo eraginaren %	Helbide soziala	Jarduera	Ikuskaria
<b>Azpitalde teknologikoa</b>				
Asirys Vision Technologies, SA	% 22,33	Gipuzkoa	Produkzio automatikoa	-
Zhejiang Sunking Trainelec Traintic Electric Co, Ltd.	% 30	Zhejiang	Potentziako ekipamenduak eta ekipamendu elektronikoak	-
Tumaker, S.L.	% 24,9	Gipuzkoa	Inprimatze-ekipoak	-
<b>Zerbitzuak azpitaldea</b>				
Ferrocarriles Suburbanos, SA de CV	% 43,35	Mexiko DF	Garraio-zerbitzuak eskaintzea	Deloitte
Plan Metro, SA	% 40	Madril	Errentamendu-zerbitzuak	-
Consorcio Traza, SA (**)	% 25	Zaragoza	Akzioak edukitzea	-
Arabia One for Clean Energy Investments PSC	% 40	Ma'an	Energia-sortzea	-

(\*) Sozietateak % 100eko partaidetza du egoitza soziala Errusian duen Urban Transport Solutions, LLC sozietatean.

(\*\*) Sozietateak % 80ko partaidetza du sozietate honetan: Sociedad S.E.M. Los Tranvías de Zaragoza, SA.

#### Aldaketak bateratze-eremuan

2014 ekitaldian honako sozietate hauek eratu dira: Beasain Energía Solar SL; El Yelmo Energía Solar SL; CAF Hungria KFT, UPR Argentina SA eta Ferrocarril Interurbano SA de CV, eta honako sozietate hauek likidatu dira: CAF Francia SAS eta Houston LRV 100 LLC, biak jarduerarik gabe. Era berean, Tumaker SL sozietatean % 24,9ko partaidetza eskuratu da 200.000 euroko zenbatekoa duen kapital-zabaltze baten bidez.

2014ko uztailean, taldearen barruan sozietateak berrantolatze eragiketa izan zen, Ennera Energy and Mobility SLk xurgapen bidez Ennera Inversiones en Microgeneración SLU fusionatuta.

2014 ekitaldian izen sozial hauek aldatu dira: CFD Bagneres SAren ordez CAF France SAS, eta Constructora Mexicana del Ferrocarril Suburbano SA de CVren ordez, Construcción, Mantenimiento, Ferrovías y Subsistemas, SA de CV.

2013n, sozietate hauek sortu dituzte: CAF Taiwan, Ltd., Vectia Mobility, SL, Regiotren, SA de CV, Urban Transport Solutions BV eta Arabia One for Clean Energy Investment PSC.

2013ko ekitaldian, sozietatea berrantolatze hainbat eragiketa egin dira taldearen barruan. Alde batetik, Garraiotek SLren xurgapen bidezko fusioa egin zuen Rail Line Components, SLUk (aurretik, Sempere Componentes, SLU zen haren izena). Horrez gain, Inversiones en Concesiones Ferroviarias, SAK CAF Signalling, SLUn zuen partaidetzaren zatiketa gertatu zen Seinalia, SLren mesedetan. Ondoren, aurkako moduan fusionatu dituzte eta sozietate eratorria CAF Signalling, SLU izan da.

Era berean, 2013an, Taldeak integrazio orokor bidez bateratu zuen Actren Mantenimiento Ferroviario, SAn zuen inbertsioa (aurretik, integrazio proportzional bidez bateratuta zuen -14.g. oharra-).

#### Bateratze-metodoa

Sozietate nagusiak kontrolatzeko gaitasuna duen enpresei deitzen zaie "mendeko sozietate". Partaidetutako sozietateen jardueretatik etekinak eskuratu ahal izateko haien finantza- eta eragiketa-politikak gidatzeko ahalmenak adierazten du gaitasun hori. Integrazio orokorreko metodoa aplikatuta bateratzen dira mendeko erakundeen urteko kontuak Sozietate nagusiarenarekin. Hori dela eta, bateratze-prozesutik kanpo utzi dira bateratutako sozietateen arteko transakzioetako saldo eta efektu guztiak.

“Sozietate elkartuak” dira, halaber, Sozietate nagusiak haien gainean bere eragina nabarmen erabiltzeko gaitasuna duen guztiak, haiek kontrolatzeko (bere kasa edo beste batzuekin batera) gai izan ez arren. “Baterako negozioa” akordio bat da, horren bidez, sozietatearen gainean baterako kontrola duten alderdiek aktibo garbiekiko eskubideak bateratuta dituzte. Urteko kontu bateratuetan, “partaidetza-metodoaren” bidez baloratzen dira sozietate elkartuak; hau da, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren ondare garbiaren zatikiaz, haietatik jasotako dibidendu-kenketak eta beste ondare batzuenak egin ondoren (sozietate elkarturen batekin transakziorik egin bada, Taldeak haren kapitalean duen partaidetza-ehunekotik kendu behar dira galerak edo irabaziak), ken banakako partaidetzetan izandako balio-galerak.

Baterako eragiketa baterako akordio bat da, eta haren bidez, akordioaren baterako kontrola duten alderdiek aktiboaren eskubideak eta pasiboekiko obligazioak dituzte, akordioarekin lotuta. Kontratuz erabakitako kontrolaren banaketa da baterako kontrola; jarduera garrantzitsuen gaineko erabakiek kontrola partekatzen duten alderdien aho bateko adostasuna behar dutenean soilik gertatzen da. Taldeko sozietate batek baterako eragiketen testuinguruan egiten dituen jarduerak, Taldeak, baterako operadore den heinean, honako hauek aitortuko ditu, baterako eragiketan duen parte-hartzea dela eta:

- dituen aktiboak eta pasiboak, mantendutako baterako aktibo eta pasiboetan duen partaidetza barne;
- baterako eragiketak egindako sarrera eta gastuetan duen partaidetza.

#### **Atzerri-monetako finantza-egoeren bihurteta**

Atzerri-monetako finantza-egoerak 'itxiera-kanbioko tasan' bihurtu dira eurotara. Hau da, itxiera-egunean indarrean zegoen kanbio-tasa erabili da ondasun, eskubide eta obligazio guztien balioak eurotara bihurtzeko, eta galera eta irabazien kontuko kontu-sailak bihurtzeko, berriz, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasa.

Kanbio-tasa historikoa erabiliz bihurtutako atzerriko sozietatearen fondo propioen (galera eta irabazien kontuaren saldoa izan ezik, lehenago aipatutakoagatik) eta ondasunak, eskubideak eta obligazioak itxiera-eguneko kanbio-tasan bihurtzeagatik sortutako ondare-egoera garbiaren arteko diferentzia balantze bateratuko Ondare Garbiari dagokion kontusailean erregistratu da 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, diferentzia horretatik kanpoko bazkideei dagokien zatia kendu ondoren. Kanpoko bazkideei dagokien zati hori 'Ondare garbia – Gutxiengodun interesak' kontuan erregistratu da.

#### **g) Akatsak zuzentzea**

Atxikitako urteko kontu bateratuak prestatzeko garaian ez da 2013ko urteko kontu bateratuetan bildutako zenbatekoak berriro adieraztea eragin duen akats aipagarriarik detektatu.

### **3. ERABILI DIREN KONTABILITATE-PRINTZIPIO ETA -POLITIKAK, ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK**

2014ko eta 2013ko abenduaren 31ko urteko kontu bateratuak egiteko CAF Taldeak erabilitako balorazio-arau nagusiak honako hauek izan dira:

#### **a) Ibilgetu ukiezina**

Aplikazio informatikoak eta garapen-proiektuak (teknikoki eta komertzialki arrakasta izango dutela zalantzarik izan ezean) erosketa-kostuan, edo, hala badagokie, izakinak baloratzeko arauaren arabera aplikatutako fabrikazio-kostu metatuan (dagokion 3.e. oharra) baloratzen dira. Aplikazio informatikoak erosketa-UNETIK hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira linealki (7. oharra). Garapeneko proiektuak, aldiz, erosketa- edo amaiera-UNETIK hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira linealki edo, garapenarekin lotuta, epe horretan lortutako kontratuen kostu handiago gisa berreskuratzen dira eta, kasu horretan, izakinetara bideratzen dira (7. oharra).

## b) Ibilgetu materiala

'Ibilgetu materiala' epigrafeko elementuak eroste-kostuan baloratzen dira. Hala badagokio, zenbait lege-xedapenek aldatuta dago kostua (besteak beste, abenduaren 5eko 11/1996 Foru Araua, aktibo horien kostuaren zatitza jo izan dena, FINAren arabera), baita 1. FINAko alternatibak ere; horren arabera kostu-balioztat jotzen da zenbait aktibo jakinentzat trantsizio-datako arrazoizko balioa.

Ondasunen produktibitatea, ahalmena edo eraginkortasuna areagotu edo haien bizitza baliagarria luzatzen duten zabaltearen, modernizatzearen edo hobetzearen kostuak ondasun horien kostu handiago gisa kapitalizatzen dira.

Sozietate bateratuek beren ibilgetuan egindako lanak ekoizpen-kostu metatu gisa erregistratzen dira, izakinak zenbatesteko arauak aplikatuta (3.e. oharra).

Ibilgetu materialeko elementuak metodo lineala erabiliz amortizatzen dira, kalkulaturako bizitza baliagarriaren urte hauetako ehunekoak aplikatuta:

	<b>Bizitza baliagarriko urteak</b>
Eraikinak	25 – 50
Instalazio teknikoak eta makinak	6 – 10
Beste zenbait instalazio, tresna eta altzariak	3 – 10
Gainerako ibilgetua	10 – 20

Erabiltzeko moduan egoteko urtebetetik gora behar duten ibilgetuei dagokienez, oro har, ondasuna martxan jarri aurretik sortutako eta hornitzaileak igorritako finantza-gastuak ere sartzen dira kapitalizatutako kostuetan, baita haren fabrikazio edo erosketari zuzenean egotz dakioken kanpoko finantziazioari (berariazkoa edo generikoa) dagozkionak ere.

## c) Aktiboaren balio-galera

Itxiera-datan, bere aktibo ez-korronteen balioa aztertzen du CAF taldeak, hondatzeagatik galera-aztarnarik baduten jakiteko. Aztarnarik baldin badago, aktiboaren zenbateko berreskuragarriaren kalkulua egiten da, saneamenduaren kostua zehazteko, baldin eta haren beharrik izaten bada. Berreskura daitekeen zenbatekoa merkatuko balioa salmentako kostuaren eta erabilera balioaren arabera minoratutakoaren arteko handiena izaten da. Hori dela eta, etorkizunerako estimatutako kutzako fluxuen egungo balioa izaten da:

Zenbateko berreskuragarria aktiboaren liburuko balio garbia baino txikiagoa bada, hondatzeagatik galera (diferentzia) honi erantsitako galeren eta irabazien kontu bateratuaren "Ibilgetua besterentzearen kaltea eta eragina" epigrafean erregistratzen da, eta honi erantsitako egoera-balantze bateratuaren "Ibilgetu materiala" edo "ibilgetu ukiezina" epigrafean ordaintzen da.

Aurreko ekitaldietako aktibo batean izandako hondatzeagatik galerak itzuli egiten dira, haien zenbateko berreskuragarriari buruzko kalkuluan aldaketarik izan bada. Bestalde, hazi egiten da aktiboaren balioa, saneamendua egin izan ez balitz aktiboak izango zukeen liburuko balioaren mugarekin, merkataritza-funtsaren saneamenduaren kasuan izan ezik, kasu horretan ez baita itzulgarria.

## d) Finantza-tresnak

### Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

Haien aitortza egiten denean, arrazoizko balioan baloratzen dira, balantze bateratuan; ondoren, kostu amortizatuan baloratzen dira, interes efektiboko tasaren arabera.

Kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistratuta dauden liburuko balioaren arteko diferentziagatik dagozkion zuzenketak erregistratzen dira, aurreko paragrafoak dioenaren arabera. 2013ko abenduaren 31n, interes espliziturik gabeko epe luzera kobratzeko hainbat kontu zeuden; batez ere administrazio publikoekin (9. oharra) lotutakoak. Hori horrela, 2013ko ekitaldiaren amaieran, Taldeak 799 mila euroko zenbatekoa zuen hornikuntza zuen interes espezifikorik gabe epe luzera begira kobratu beharreko kontuen finantza-eguneraketaren ondorio zela eta. 2014ko ekitaldian, Taldeak epe luzerako epea zutela kalkulaturako kobratu beharreko kontuen zati bat kobratu du, eta kobratzeke geratutako zenbatekoak epe laburrean izatea kalkulatu du. Horregatik, Taldeak hornidura itzuli du erantsitako galeren eta irabazien kontuaren "Finantza-sarrerak" epigrafera (9. oharra) (2013 ekitaldian, Taldeak 2.227 mila euro itzuli zituen).

Ordainketak atzeratu dituztelako, ordainketa-etenduran, kaudimengabezia edo antzeko egoeran daudelako bezeroen zorrak estaltzeko egiten du Taldeak hornidura hori, betiere horien kobragarritasunaren azterketa banan-banan eginez.

Horrez gain, Taldeak bezeroen saldoen baja ematen du kreditu-lagapenen zenbatekoetan, betiere, Sozietateak kreditu horien jabetzari atxikitako arrisku eta eskubide guztiak transferitu baditu (factoring, baliabiderik gabe). 2014ko abenduaren 31n, ez dago baliabiderik gabe factoringeko kontratuen babesean emandako krediturik (31.292 mila euro 2013ko abenduaren 31n).

#### Finantza arloko inbertsioak

Taldeak, 39. NKAk finkatutako sailkatze-irizpideen arabera, mantendu egin ditu finantza arloko inbertsioak kategoriatan:

- (1) Maileguak eta epe luzera kobratu beharreko beste kontu batzuk. Hasiera batean, arrazoizko balioaren arabera baloratu ohi dira eta, ondoren, amortizatutako kostuaren arabera, interes-tasa eragingarria erabilita. Kostu amortizatua: hasierako kostua ken printzipalaren kobratzeak, eta hondatzeagatik edo ez ordaintzeagatik ezarritako murrizketa oro. Interes efektiboko tasa: hasierako balioa fluxu guztiekin parekatzen duen eguneratze-tasa.
- (2) Mugaegunera arte gorde beharreko inbertsioak. Taldeak mugaegunera arte eduki nahi eta ahal dituen inbertsioak dira, mugaegun finkokoak. Inbertsio horiek ere hasieran arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira eta, gero, kostu amortizatuaren arabera.
- (3) Merkatuko balioan baloratutako finantza-aktibo negoziagarriak, galeren eta irabazien kontu bateratuaren bidez. Ezaugarri hauetakoren bat duten aktiboak dira:
  - Balore negoziagarritzat sailkatu da, prezio-gorabeheren bitartez etekinak izateko eresia baita.
  - Finantza-deribatuak, baldin eta estaldura-erlazio batean esleitu ez badira.
  - Hasierako onespenetik sartu dugu aktibo multzo horretan.
- (4) Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak "Arrazoizko balioaren" arabera baloratzen dira. Katetoria horretan sartzen dira negoziatzeko gordetzen ez diren erositako finantza-aktiboak, mugaegunera arteko edo galera eta irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko inbertsioetat sailkatzen ez direnak, ia oso-osorik kapital-inbertsio finantzarioei dagozkienak. Inbertsio horiek ere beren merkatu-balioarekin daude egoera bateratuaren balantzean. Sozietate ez-kotizatuei dagokienez, beste bide batzuetatik eskuratzen dira inbertsio horiek (antzeko transakzioekiko konparazioa, edo, behar adina informazio izanez gero, espero diren kutxa-fluxuen eguneratzea). Merkatu-balore honen aldaketak egoera-balantze bateratuko "Balio-aldaketagatik doiketak" epigrafearen kontura edo hari ordaintzeko erregistratu behar dira, inbertsioak besterentzen diren arte. Hori egiten denean, inbertsio horiei buruzko epigrafe honetan metatutako zenbatekoa zuzenean egotzi behar zaio galeren eta irabazien kontu bateratuari.

Merkatu-balioa modu fidagarrian neurtzerik ez dagoen kotizatu gabeko sozietateetan bide alternatiboetatik (aurreko paragrafoan aipatutakoak, adibidez) eginiko finantza-inbertsioak erosketa-kostuan baloratzen dira.

CAF Taldeak zehaztu ohi du erosketa-unean aktibo bakoitzarentzat egokiena den sailkapena.

Finantza-pasiboen eta -aktiboen balorazioa mailen arabera banakatuta dago haien arrazoizko balioaren arabera 13. FINAK zehaztutako hurrengo hierarkiaren arabera:

- 1. maila: kotizazio-prezioak merkatu aktiboetan aktiboko eta pasiboko tresna berdinetarako.
- 2. maila: 1. mailan sartutako kotizazio-prezioarekiko ezberdinak diren datuak eta aktiboko edo pasiboko tresnarako kontuan har daitezkeenak zuzenean (hau da, prezioak) edo zeharka (hau da, prezioetatik eratorritakoak).
- 3. maila: merkatuko datu behagarrietan oinarrituta ez dagoen tresna aktiborako edo pasiborako datuak.

CAF Taldearen aktiboen eta pasiboen 2013 eta 2014ko abenduaren 31ko banakapena honako hau da hierarkia mailen arabera duten arrazoizko balioaren arabera baloratuta:

#### 2014ko ekitaldia

	1. maila	2. maila	Guztira
<b>Aktiboak</b>			
Erorriak edo deribatuak (17. oharra)	-	44.943	44.943
Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak (13. oharra)	52.018	-	52.018
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>52.018</b>	<b>44.943</b>	<b>96.961</b>
<b>Pasiboak</b>			
Erorriak edo deribatuak (17. oharra)	-	46.256	46.256
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>-</b>	<b>46.256</b>	<b>46.256</b>

#### 2013ko ekitaldia

	1. maila	2. maila	Guztira
<b>Aktiboak</b>			
Ondare-tresnak (9.b. oharra)	-	17.058	17.058
Erorriak edo deribatuak (17. oharra)	-	43.594	43.594
Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak (13. oharra)	52.359	-	52.359
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>52.359</b>	<b>60.652</b>	<b>113.011</b>
<b>Pasiboak</b>			
Erorriak edo deribatuak (17. oharra)	-	26.910	26.910
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>-</b>	<b>26.910</b>	<b>26.910</b>

#### Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide

Atxikitako egoera-balantze bateratuko epigrafe horretan, kutxan dagoen eskudirua eta ageriko gordailuak erregistratu behar dira.

#### Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

Hasieran, merkatu-balioaren arabera baloratzen dira ordaindu beharreko kontuak, eta, ondoren, amortizatutako kostuaren arabera, interes efektiboko tasarekin.

## Kreditu-erakundeekiko zorrak eta beste zenbait finantza-pasibo

Kreditu-erakundeekiko zorrak eta beste finantza-pasibo batzuk jasotako eskudiruaren arabera erregistratzen dira hasieran, transakzio-kostuak kenduta, hau da, ordaindutako kostu-metodoa gero aplikatzearen baliokidea. Horretarako, interes-tasa efektiboa erabiltzen da. Sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira finantza-gastuak emaitza-kontu bateratuan, interes-tasa efektiboa erabiliz, eta tresnaren liburuiko zenbatekoari gehitzen zaizkio, ez badira likidatzen sortutako ekitaldian (16. oharra).

### Finantza-tresna eratorriak

Kontratutako obretako eta partaidetutako sozietateetako zenbait inbertsiontako estaldura-eragiketetan erabiltzen ditu Taldeak tresna horiek, truke-tasak aldatzeko arriskutik babesteko, eta bestalde, emandako maileguetako interes-tasak aldatzeko arriskutik babesteko (5. eta 17. oharrek).

Erorritako finantza-tresnen arrazoizko balioa kalkulatzeko, kreditu-arriskua sartu dugu: pasiboaren eratorriari dagokiena eta aurkako alderdiarena aktiboko eratorrietan.

Finantza-deribatuak estaldurakotzat jotzeko behar diren irizpideak aztertu ditu Taldeak, baldintza hauek bete ahal izateko: (1) Hiru arrisku mota hauek estaltzea (“arrazoizko balioen estaldura”, “eskudiru-fluxuen estaldura” edo “atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura”); (2) Estalitako elementu edo posizioari dagokion arriskua egoki kentzea aurrez ikusitako estaldura-epe osoan, eta (3) behar bezala dokumentatzea finantza-deribatuaren kontratazioa berariaz egin zela saldo edo transakzio jakin batzuk estaltzeko, baita nola egin eta neurtu nahi zen estaldura egoki hori ere, betiere, horretarako sistema Taldearen arrisku-kudeaketarekin bat badator.

Finantza-arriskuak kudeatzeko helburuak eta politikak finkatu ditu CAF Taldeak, baita idatziz zehaztu ere deribatuen kontratazio-politika eta estaldura-estrategia.

Hasieran, eroste-balioaren arabera baloratzen dira finantza-tresna horiek. Ondoren, honela erregistratzen dira estaldura gisara sortu eta gauzatu diren finantza-tresna deribatuetako arrazoizko balioaren aldaketak:

- Arrazoizko balioen estalduran, estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan sortutako diferentziak —estaltzen den arrisku motari dagokionez— honi erantsitako galeren eta irabazien kontu bateratuaren ‘Finantza-emaitza’ epigrafean sartzen dira. Taldeak arrazoizko balioen estaldura gisa obretarako kontratatutako estaldurak erregistratu ditu estaldura horietarako beharrezko baldintzak betetzen direnean (konpromiso irmoa izatea).
- Eskudiru-fluxuen estalduretan, ondarearen “Balio-aldaketengatiko doikuntzak – Estaldura-eragiketak” epigrafean erregistratzen dira, behin-behingo, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. Irizpide hori erabiltzen du taldeak estalitako arriskua konpromiso irmoa eta sinatua izan beharrean, etorkizunerako oso probablea den transakzioa denean eta interes-tasaren estalduretan. Gertatzea oso litekeena den transakzioa konpromiso irmoak bihurtu ahala, lehendik ondarean onartutako zenbatekoak emaitza bezala birsailkatzen dira.
- Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondarearen ‘Bihurtze-diferentziak’ epigrafean erregistratzen dira, behin-behingo, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. CAF USA, Inc. sozietatearen eta Provetren SA de CVren funts propioetarako erabili da estaldura hori.

### e) Izakinen balorazioa

Lehengaien eta beste zenbait hornikuntzen eta merkataritza-produktuen izakinak batez besteko erosketaren prezioan edo, txikiagoa balitz, balio garbi bihurtzeko zenbatekoak dira.



Fabrikazio-bidean dauden produktuak, produktu bukatuak eta erdibukatuak dagoeneko likidatuta dauden kostuak kenduta (3.f. oharrean deskribatutako prozeduraren arabera) eta irizpide hauei jarraituz zenbatetsiko dira:

- Obra bakoitzari egotzitako materialak eta gastuak batez besteko erosketa-prezioan edo ekoizpen-kostuan.
- Eraldatze-gastuak, eskulanaren kostuak eta zeharkako eta zuzeneko ekoizpen-gastuak barne hartzen dituzten ordu-tasa estandarren arabera (ez dira ordu-tasa errealeen oso desberdinak).
- Kontratu bakoitzari esleitu beharreko finantza-premien arabera kalkulatzeko interesa diren kostuak.

#### **f) Sarreraren eta emaitzen onespina**

Eraikuntza-kontratuei dagokienez, kontratu bakoitzari dagozkion sarrerak eta emaitzak horien aurrerapen maila kalkulatuaren arabera erregistratzeko irizpidea erabiltzen du Taldeak, oro har. Aurrez ikusitako ordu guztiekiko kontratuari egotzitako orduen ehunekoaren arabera kalkulatzeko aurrerapen maila hori, eta bateragarria da sistema hori aurrerapen maila aurrekontuko kostuen arabera zehaztu beharrean eragindakoen arabera finkatzen duten beste metodo batzuekin. Kontratutako proiektuetan sor daitezkeen galerak zenbateko osoaz erregistratzen dira, galera horiek ezagutzen direnean edo zenbatets daitezkeenean.

Kontratu bakoitzeko aurrez ikusitako emaitza jakitean, Taldeak indize zuzentzaile hauek aplikatzen ditu emaitzak eta sarrerak zehazteko:

- Aurrerapen-maila % 0-10 bitartekoa denean, ez da irabazirik ez sarrerarik erregistratzen.
- Aurrerapen-maila % 10ekoa baino handiagoa denean, aurrerapen-maila horren baliokidea den irabazien eta sarreraren ehunekoaz erregistratzen da.

Izandako diru-sarreraren eta kontratu bakoitzean aurrez ikusitako emaitzaren arabera (aurreko paragrafoetan adierazi bezala kalkulaturik), eta aurrerapen maila kontuan hartuta, izakinei baja ematen zaie, likidatutako kostuen zenbatekoaren arabera. Zenbateko hori dagokion galeren eta irabazien kontu bateratuan zordundu eta egoera-balantze bateratuko aktiboaren "Izakinak" epigrafean ordainduko da (11. oharra).

Bestalde, produktuak saltzeko (errodajeak, batik bat), ondasunak besterentzen diren unean erregistratzen dira sarrerak, eta titularitatea eskualdatzen da.

#### **g) Bezeroen aurrerakinak eta lortutako produkzioa**

Obra bakoitzeko onartutako sarreraren diferentzia (3.f. oharra) eta horregatik fakturatutako zenbatekoa honela erregistratzen da:

- Positiboa bada, "Fakturatzeko dagoen egindako ekoizpena" gisa (fakturazio geroratua), "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk - Salmenten arabeko bezeroak eta zerbitzuak ematea" atalean (11. oharra).
- Negatiboa bada, "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk – Beste hartzekodun batzuk" (fakturazio aurreratua) atalean (11. oharra)

#### **h) Eragiketak eta beste zenbait konpromiso atzerri-monetan**

Atzerriko sozietate bateratuetako dibisa-aktiboak eta -pasiboak euro bihurtu dira, 2.f. oharrean azaldu dugunez. Gainerako dibisa-aktibo eta -pasibo monetarioak ekitaldi bakoitzaren amaieran indarrean zegoen truke-tasaren arabera baloratu dira, eta emaitzei egotzi zaizkie zenbatetsitako truke-tasaren eta itxierako truke-tasaren arteko truke-tasaren diferentzia positibo eta negatiboak. Finantza-deribatuak kontratatuz truke-tasaren arriskua murrizteko atzerriko monetan CAF Taldeak egindako eragiketak 3.d oharrean azaldutako printzipioen arabera erregistratzen dira.

### **i) Zorren sailkapena: epe laburrekoak ('korrontea') eta luzekoak ('ez-korrontea')**

Aktibo eta pasibo korronteetan egikaritze-epea hamabi hilabete baino gehiagoko epean gauza daitezkeen kontu-sailak sailkatzen dira (fakturazio aurreratua eta fakturazio geroratua - 3.g. oharra eta Hornidura korrontea). Kontu-sailak oso-osorik kontuan hartuta, Administrazioaren estimazioen arabera, aktibo korrontea epe laburrean egingo dira batez ere eta, edonola ere, hamabi hilabetera baino gehiagora egin beharreko pasibo korrontek 12 hilabetera baino gehiagora egingo liratekeen aktibo korrontea gaindituko dituzte (11. eta 20. oharra).

### **j) Diru-laguntza ofizialak**

Jasotako diru-laguntzak zenbatesteko, irizpide hauek erabiltzen dituzte Taldeko sozietateak:

- Itzultzekoak ez diren kapitaleko diru-laguntzak diruz lagundutako aktiboaren balio txikien gisa erregistratzen dira, behin betiko ematen direnean, dagokien zenbatekoarekin, eta emaitzen kontura eramaten dira, diruz lagundutako aktiboaren amortizazio-erritmoaren arabera.
- Ustiapeneko diru-laguntzei dagokienez, behin betiko ematen dituztenean eramaten dira emaitzen kontura, diruz lagundutako kostuak murriztuz.

### **k) Enplegu osteko prestazioak**

Sozietate bateratuek erretiro edo heriotzengatik beren langileetako batzuekin dituzten obligazioak aseguru-konpainia independenteetan gordailututako edo gordailutze bidean diren kanpo-funtsetako prestazio eta ekarpen jakin batengatik prima ordainduta hornitzen dira (23. oharra). 2014an eta 2013an zenbait langileri zuzkitutako zenbatekoa 4.360 mila eurokoa eta 4.017 mila eurokoa izan zen, hurrenez hurren, eta atxikitako galera- eta irabazi-kontu bateratuko "Pertsonal-gastuak" epigrafearen kontura egin zen. 2014ko abenduaren 31n, Taldeak 2.000 mila euro ditu epe laburrera hornituta eta ordaintzeko kontzeptu horietan (3.000 mila euro 2013ko abenduaren 31n) Sozietate nagusiko langile guztien urteko oinarritzko soldataren % 2,3ko ekarpena egin zuen sozietate nagusiak gizarte-aurreikuspen erakunde batera, indarrean den hitzarmen kolektiboaren arabera (22. oharra).

Halaber, sozietate nagusiko administrazioaleek, aholkulari legalen azterketa aintzat harturik, langile aktiboetako batzuekiko eskubide historiko bat finkatzeko aukera aztertu zuten 2006ko ekitaldian. Sortzapen-printzipioari jarraiki, 2014ko abenduaren 31n, Taldeak 210 mila euroko zenbatekoa duen aktiboa du erregistratuta (34 mila euroko aktiboa 2013ko abenduaren 31n) 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko aktibo korrontean eta aditu independente batek kalkulata. Zenbateko hori zehaztutako prestazio-konpromisoen oraingo balioaren eta "aktibo atxikitat" jotzeko beharrezko baldintzak betetzen dituzten aktiboaren arrazoizko balioaren arteko aldea da. Dagokion ekitaldiko emaitzen kontura erregistratu behar dira hartutako konpromisoari gerora egiten zaizkion aldaketak. 2014ko eta 2013ko ekitaldietan, 528 mila euro eta 358 mila euroko ordainketak egin zituen Taldeak, eta 352 mila euro hornitu eta 290 mila euro itzuli ditu hurrenez hurren, atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Pertsonalaren gastuak" epigrafearen kontura (15., 18. eta 22. oharra).

Hirugarren independente batek eginiko aktuaritza-azterketako hipotesietan, merkatu-mota bati deskontatu zaizkio etorkizuneko konpromisoak, betiere iraganeko soldata-igoeren antzekoen arabera.

Azkenik, hainbat mendeko sozietate langileekin beste konpromiso batzuk dituzte haien herrialdeko legeek hala behartuta. Arrazoi hori dela medio "Hornidura ez-korrontea" eta "Hornidura korrontea" epigrafeetan erregistratutako horniketara, 2014ko abenduaren 31n, 1.815 eta 97 mila eurokoa zen, hurrenez hurren (1.498 eta 168 mila euro 2013ko abenduaren 31n - 20. oharra).

### **l) Erretiro aurreratuak eta lana uzteagatik kalte-ordainak**

2014ko abenduaren 31n, egoera-balantze bateratuko (honi erantsia) "Finantza-pasibo ez-korrontea - Beste finantza-pasibo batzuk" eta "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk - Beste hartzekodun batzuk" epigrafeek 5.259 mila eta 4.185 mila euroko, hurrenez hurren, zenbatekoak zituzten (2013an, 9.904 mila eta 7.291 mila

euro). Bat datoz zenbateko horiek 2014ko abenduan 2013ko ekitaldian onartutako aurre-erretiroen planari atxikita zeuden edo errelebu-kontratuak sinatuta zituzten langileei egin beharreko etorkizuneko ordainketekin, administratzaileek egindako kalkuluaren arabera. Hornikuntza hori galera eta irabazien kontu bateratuko "Pertsonalaren gastuak" epigrafearen kontura erregistratu da (18. eta 22. Oharrak). Horien zenbatekoa 1.567 mila eurokoa izan da (12.243 mila euro 2013an hornitutakoak).

### m) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen Gaineko Zerga eta atzerriko sozietate bateratuetako antzeko gainerako zergak galeren eta irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, ondare garbian zuzenean erregistratzen den transakzio baten ondorio ez badira behintzat; hala badira, ondare garbian erregistratzen da dagokion zerga ere.

Ekitaldiko irabazien gaineko zerga-gastua honela kalkulatzen da: ekitaldiko oinarri zergagarriari aplikatzen zaion zerga-tasako zerga korrontearen batura eginez (zerga aldetik onargarri diren kenketak egin eta gero) zerga aurreratu eta geroratuengatiko eta zerga-kredituengatiko aktibo eta pasiboen aldaketarekin, bai oinarri zergagarri negatiboengatikoak, bai kenketengatikoak.

Zerga geroratuengatiko aktibo eta pasiboetan sartzen dira denbora-alde hauek: finantza-egoera bateratuetako aktibo eta pasiboen liburuko zenbatekoen eta haien zerga-balioaren arteko aldeengatik ordaindu edo berreskuratu beharreko zenbatekoak, baita konpentsatu beharreko oinarri zergarri negatiboak eta zerga-aplikaziorik gabeko zerga-kenkariengatiko kredituak ere. Honela erregistratzen dira zenbateko horiek: dagokion denbora-alde edo kredituari aplikatuz haiek berreskuratu edo likidatzea espero den zerga-tasa.

Geroratuengatiko pasiboak onartzen zaizkie denbora-alde aplikagarri guztiei, salbu eta, oro har, merkataritza-funtsaren hasierako onespentetik sortua bada denbora-aldea. Bestalde, zerga geroratuengatiko aktiboak (oinarri ezargarri negatiboekin, konpentsatzeko dauden kenkariekin eta denbora-aldeekin identifikatuak) kasu bakarrean onartzen dira: uste baldin bada erakunde bateratuek gerora izango dutela behar adina zerga-irabazirik (eskari-zorroak estaltzen duenik, alegia) haien kontura diru bihurtzeko. CAF Talde Bateratuan, eskaera-zorroak estaltzen duena jotzen da irabazi nahikotzat.

FINAen arabera, zerga geroratuengatiko aktibo eta pasibo guztiak aktibo eta pasibo ez-korrontetzat sailkatu dira.

### n) Errentamenduak

Finantza-errentamendu gisa sailkatzen ditu CAF Taldeak errentamendu-kontratu hauek: alokatzaileak maizterrari ondasun-jabetzaren arrisku eta onura guztiak besterentzen dizkionak. Gainerako errentamenduak eragiketa-errentamendu gisa sailkatzen dira.

Taldeak alokatzaile gisa jokatzeko duen finantza-errentamenduko eragiketetan, hasierako unean errentamenduagatik jasotzeko gutxieneko ordainketen uneko balioaren kreditu bat gehi aktiboaren hondar-balioa aitortzen da, kontratuaren interes-tasa inplizitua deskontatuta. Aktiboan erregistratutako kredituaren eta kobratu beharreko zenbatekoaren arteko aldea, sortu gabeko interesari dagokiena, ekitaldiko galeren eta irabazien kontu bateratuari egozten zaio interesak sortu ahala, interes-tasa efektiboaren metodoari jarraituz (9.e. oharra).

Taldeak 2013 eta 2014ko abenduaren 31n hainbat eragiketa-errentamenduren kontratuak ditu eta, beraz, 2014ko eta 2013ko ekitaldietan 7.342 eta 7.223 mila euroko gastua egin du hurrenez hurren, atxikitako galeren eta irabazien kontu bateratuko "Beste ustiapen-gastu batzuk" epigrafearen kargura. Sozietateak ondasun horiek alokatzen jarraitzeko asmoa du (batez ere informazioa prozesatzeko ekipamenduak eta higiezinak) eta horien kostuak KPIrekin dute erreferentzia.

2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden errentamendu operatiboekin lotutako etorkizuneko ekitaldietarako ordainketa-konpromisoak 18.594 mila eurokoak dira hurrengo urteotan eta horietatik 6.309 mila euro 2015ean egingo dira (2014an ordaindu beharreko 15.057 mila euroko eta 5.146 mila euroko zenbatekoak 2013ko abenduaren 31n).

Kontratua indarrean den bitartean, galeren eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafeari egozten zaizkio errentan hartutako aktiboetan sortutako gastuak, sortzapen-irizpidearen arabera.

### ñ) Hornikuntzak eta kontingentziak

Sozietate nagusiko administratzaileek bereizketa hau egiten dute urteko kontu bateratuen formulazioan:

- a) Hornikuntzak: iraganeko gertakarietatik datozen gaur egungo obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak. Horiek baliogabetuz gero, baliteke baliabide-galera izatea, baina ezin da zehaztu ez zenbatekoa, ez baliogabetzeko unea (20. oharra).
- b) Pasibo kontingenteak: iraganeko gertakariak eragindako balizko obligazioak; horiek gertatzeko Taldeko borondateatik kanpoko gertakari batek edo batzuek gertatu behar dute (25. oharra).

Obligazioa betetzeko beharra ez betetzekoa baino handiagoa dela uste den hornikuntza guztiak jasotzen dituzte urteko kontu bateratuek. Pasibo kontingenteak ez dira jasotzen urteko kontu bateratuetan, memoria bateratuko oharretan ematen baita horien berri, aspaldikotzat jotzen ez badira behintzat.

Aktibo gisa erregistratu behar da obligazioa likidatzean hirugarren batengandik jasotzen den konpentsazioa, betiere ez badago zalantzarik itzulketa jasoko dela, legezko loturaren bat dela medio Taldeak erantzuteko obligaziorik izan ez eta arriskuaren zati bat kanporatu ez badu. Horrelakoetan, dagokion hornikuntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da konpentsazioa.

Indarrean dagoen lan-legeriaren arabera, baldintza jakin batzuetan lan-harremanak eteten dituen langileei kalte-ordainak eman behar dizkie Taldeak. Beraz, arrazoizko kuantifikazioko kaleratzeagatik kalte-ordainak gastutat erregistratzen dira kaleratze-erabakia hartu den ekitaldian. Honi erantsitako urteko kontu bateratuetan ez da erregistratu inongo hornidurarik kontzeptu horregatik, ez baita aurrez ikusten horrelako egoerarik.

### o) Ingurumen alderdiak

Eroste- edo ekoizte-kostuan erregistratzen ditu Taldeak ingurumen-inbertsioak, amortizazio metatua kenduta eta, izaeraren arabera, dagokien ibilgetuaren atalean sailkatuta (8. eta 21.c. oharra).

Aplikatu beharreko ingurumen-legeria betetzeko egindako gastuak galera eta irabazien kontu bateratuko 'Beste zenbait ustiapen-gastu' epigrafean sailkatzen dira, izaeraren arabera (21.c. oharra).

### p) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira; alegia, horiei dagozkien ondasun eta zerbitzuen korrante erreala gertatzen denean, horiengatik moneta- edo finantza-korrantea noiz gertatzen den kontuan izan gabe.

Zuhurtzia-printzipioari jarraituz, Taldeak ekitaldi-itxierako datan egindako mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu. Aurrez ikus daitezkeen arriskuak eta galerak, baita balizkoak ere, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

Interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da interesak galera eta irabazien kontura sartzeko, akziodunak haiek jasotzeko eskubidea baduela onartuz gero. Nolanahi dela ere, erosketan ondoren sortutako finantza-aktiboaren interesak eta dibidenduak galera eta irabazien kontu bateratuko diru-sarreratzat aitortzen dira.

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuaren "Beste pasibo ez-korrante batzuk" epigrafea mantentze-lanetako kontratuetan egin beharreko konponketa-lan handietako kostu estimatuei aurre egin ahal izateko bideratu ohi diren eta aldeztu aurretik jasotako diru-sarreei dagokie osorik. 2014 ekitaldian hornikuntza garbia 14.514 mila eurokoa izan zen, atxikitako galeren eta irabazien kontu bateratuko "Hornikuntzak" epigrafearen kargura.

#### q) Eskudiru-fluxuen egoera

Zeharkako metodoaren arabera prestatu da eskudiru-fluxu bateratuen egoera. Hona hemen sail horretako zenbait terminoren esanahia:

- Eskudiru-fluxuak: eskudiruaren eta haren baliokideen sarrerak eta irteerak.
- Ustiapen-jarduerak: Talde bateratuko sozietateen jarduera arruntak, baita inbertsio- edo finantziario-jardueratzat sailkatu ezin diren beste jarduera batzuk ere.
- Inbertsio-jarduerak: epe luzeako aktiboak eta eskudirua edo haren baliokide ez diren beste inbertsio batzuk erosi, besterendu edo beste bide batzuetatik eskuratzeko jarduerak.
- Finantziario-jarduerak: ondare garbiaren eta ustiatze-jarduerako ez diren pasiboen tamaina eta osieran aldaketak eragiten dituzten jarduerak.

#### r) Akzio bakoitzeko irabaziak

Honela kalkulatzen da akzioko oinarrizko irabazia: Sozietate nagusiari dagokion epeko irabazi garbiaren eta epe horretan zirkulazioan izan diren akzio arrunten batez besteko kopuru haztatuaren zatidura.

2013ko eta 2014ko abenduaren 31n amaitutako CAF Taldearen urteko ekitaldi bateratuetako kontuei dagokienez, bat dator akzioko oinarrizko irabazia irabazi diluituarekin, ez baita akzio potentzialik zirkulazioan ibili ekitaldi horietan (14.a. oharra).

#### s) Jarraitutasunik gabeko eragiketak

Jarraitutasunik gabeko eragiketa: uztea eta/edo besterentzea erabaki den negozio-linea; horietako aktiboak, pasiboak eta emaitzak bereiz daitezke alderdi fisikoari, eragiketei eta finantza-informazioari dagokienez. Bereizita aurkezten dira jarraitutasunik gabeko eragiketen sarrera-irteerak, emaitza-kontu bateratuan.

#### t) Eragiketa lotuekin egindako transakzioak

Merkatu-baloreekin lotutakoekin egiten ditu eragiketa guztiak Taldeak. Horrez gain, transferentzia-prezioek euskarri egokia dute; beraz, sozietate nagusiko administratzaileek diote gerora pasibo handirik sortzeko arrisku handirik ez dagoela.

#### u) Emakida administratiboak

Emakida-kontratuak emakida ematen duen erakunde publikoaren eta CAF Taldeko sozietateen arteko akordioak dira eta horien bidez, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzte; hala nola tren-lineen prebentziorako mantentze-lanak, zuzentzeko-lanak eta berrikuspenak. Horretarako, azpiegitura ustiatzen da. Bestalde, zerbitzua eskaintzetik etorritako diru-sarrerak erabiltzaileen eskutik edo, batzuetan, emakida emailea den erakundearen eskutik jasotzen dira. Erakunde horrek arautzen ditu zerbitzua ematearen prezioak.

Emakida-eskubideak, normalean, denbora-tarte jakin batean zerbitzua ustiatzeko monopolioa izatea esan nahi du. Aldi hori igarotakoan, zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den eta emakidari dagokion azpiegitura emakida-emalleari itzultzen zaio, normalean, ordainik gabe. Emakida-kontratuak azpiegituraren kudeaketa edo jarduera bere baitan hartzea ezinbesteko baldintza da. Era berean, kontratuaren indarraldian emakidaren zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren elementu guztiak eskuratzeko edo eraikitzeko betebeharra ere izaten da.

Emakida-kontratu horiek "Zerbitzuen emakida egiteko akordioak" 12. FINAIBan xedatutakoaren bidez erregistratzen dira. Oro har, bi fase argi bereizi behar dira. Lehenengoan, emakida-emaileak eraikuntza- edo hobekuntza-zerbitzuak eskaintzen ditu eta "Eraikuntza-kontratuak" 11. NKA araua aintzat hartuta duen aurrerapen mailaren arabera aitortzen dira, aktibo ukiezin edo finantza-aktibo batean kontrapartidarekin eta, bigarren fasean, berriz, aipatutako azpiegituraren hainbat mantentze- edo ustiapen-zerbitzu eskaintzen dira, "Sarrera arruntak" 18. NKAren bidez aitortuak.

Aktibo ukiezin bat aitortzen da emakidadunak demanda-arriskua bere gain hartzen duenean eta finantza-aktibo bat aitortzen da demanda-arriskua emakida-emaileak hartzen duenean bere gain. Emakidadunak kontratu-eskubide baldintzarik gabeta du, eraikuntza- edo hobekuntza-zerbitzuen kobrantzak jasotakoan. Taldeak bateratutako emakidak (9. oharra) finantza-aktibo gisa hartzen dira.

#### 4. SOZIETATE NAGUSIAREN EMAITZAREN BANAKETA

Sozietate nagusiaren 2014ko ekitaldiko emaitzen banaketa honela egin da, administratzaileek hala proposatuta:

Banaketa	Mila euro
Borondatezko erreserbak	9.045
Dibidenduetara	17.997
<b>Guztira</b>	<b>27.042</b>

#### 5. FINANTZA-ARRISKUAK KUDEATZEKO POLITIKA

CAF Taldeak garatzen dituen jarduerak finantza arloko arrisku batzuk dituzte merkatu-arriskuak (truke-tasa aldatzearen arriskua, arrazoizko balioaren interes-arriskua eta prezio-arriskua barne direla), kreditu-arriskua, likidezia-arriskua, eskudiru-fluxuen interes-tasaren arriskua eta proiektuetan desbideratzeak gertatzeko arriskua.

Finantza-merkatuen ziurgabetasuna kudeatzeari arreta berezia jarri dio CAF Taldeak, eta saiatzen da Taldearen finantza mailako errentagarritasunean ziurgabetasun horrek eragin ditzakeen aurkako kalteak murrizten.

Taldeko Finantza Sailak identifikatu, aztertu eta estaltzen ditu finantza mailako arriskuak, eta idatzizko politikak finkatzen ditu arrisku orokorra kudeatzeko, baita alor jakin batzuetarako ere (truke-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, eratorrien erabilera edo ez, eta likidezia-soberakinaren inbertsioa).

##### a) Merkatu-arriskua

Nazioartean dihardute CAF Taldeko sozietateek eta, horrenbestez, truke-tasaren arriskupean daude, dibisekin eragiketak egiteagatik (une honetan, Ameriketako dolarra, Brasilgo erreala, libera esterlina, Taiwaneko dolarra, Suediako koroa, Australiako dolarra, Zeelanda Berriko dolarra, Saudi Arabiako riala eta Mexikoko pesoa, besteak beste).

Epeka zehaztutako aseguru-kontratuak erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek geroko transakzio komertzialak eta aitortutako pasiboek eta aktiboek sortzen duten truke-tasaren arriskua kontrolatzeko. Truke-tasaren arriskua sortzen da Taldearen funtzionamendu-moneta (euroa) ez den beste batean egiten direnean geroko transakzio komertzialak eta aitortutako pasiboak eta aktiboak.

Taldearen ohiko jarduera, betiere kostua arrazoizkoa bada, merkatu-arriskua estaltzea da, Taldearen funtzionamendu-moneta ez den (euroa da) besteren batean egindako kontratuetan. Estaldura horien helburua sinatutako kontratuetan dibisen gorabeheren eragina saihestea da. Horri esker, Taldearen emaitzak bere jarduera industrialaren eta zerbitzuaren isla zehatza izatea lortu nahi da. 2014ko abenduaren 31ko itxieran kanbio-tasa dela eta Brasilgo errealak % 10eko debaluazioa izan du euroaren aurrean eta horrek 2014ko ekitaldiko emaitzen kontuan izan duen eragina 7.148 mila euro galtzekoa izango litzateke (2.153 mila euro 2013ko abenduaren 31n). Gainerako dibisek emaitza-kontuan duten eragina ez da esanguratsua.

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, Taldea moneta funtzionala euroa ez den filialetako inbertsio garbiaren gaineko kanbio-tasaren arriskuaren mende dago Estatu Batuetako dolarren kasuan izan ezik, harekiko esposizioa estalita baitago.

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n euroa ez den beste moneta funtzionalen bat duten mendeko sozietateetako aktiboan eta pasiboan kontrabalia, milaka eurotan, banakapen honen arabera da:

Dibisa	Kontrabalia (mila euro)					
	2014/12/31			2013/12/31		
	Aktiboak	Pasiboak	Esposizio garbia	Aktiboak	Pasiboak	Esposizio garbia
Txileko pesoa	15.532	14.023	1.509	11.392	10.704	688
Mexikoko pesoa	31.279	17.306	13.973	33.340	24.120	9.220
Argentinako pesoa	4.781	2.841	1.940	3.816	2.085	1.731
Brasilgo erreala	746.292	553.286	193.006	639.129	459.726	179.403
Estatu Batuetako dolarra (3.d. oharra) (*)	506.947	389.829	(711)	466.940	395.626	154
Britainiar libera	7.567	6.391	1.176	6.417	5.702	715
Aljeriako dinarra	4.050	2.841	1.209	4.458	3.619	839
Turkiako lira	13.248	11.423	1.825	13.359	11.941	1.418
Bolivarra	272	265	7	1.150	635	515
Indiako errupia	9.827	174	9.653	8.942	658	8.284
Australiako dolarra	1.841	1.472	369	670	453	217
Kolonbiako pesoa	1.427	974	453	2.436	1.824	612
Saudi Arabiako riyala	8.792	8.041	751	7.739	7.549	190
Zeelanda Berriko dolarra	3.312	3.118	194	1.678	1.588	90
Errumaniako leua	456	392	64	1.120	1.115	5
Taiwaneko dolar berria	22.917	21.886	1.031	18.075	18.005	70
Hungariako florina	345	338	7	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>1.378.885</b>	<b>1.034.600</b>	<b>226.456</b>	<b>1.220.661</b>	<b>945.350</b>	<b>204.151</b>

(\*) 2014ko abenduaren 31n, atzerriko inbertsio garbiaren estaldurak (17. oharra) 117.829 mila euroko zenbatekoak dira ekitaldiaren amaierako kanbio-tasa aplikatuta (71.160 mila eurokoak 2013ko abenduaren 31n).

Dibisa guztiek % 10eko gutziko igoera edo murrizketa dela eta, Taldearen ondare garbiko eragina 22.646 mila eurokoa izan da 2014ko abenduaren 31n (20.400 mila eurokoa 2013ko abenduaren 31n).

Hona hemen atzerriko moneta duten mendeko sozietateen saldo nagusien banakapena, kontu-sailen ezaugarrien arabera:

Saldoen izaera	Kontrabalioa (mila euro)			
	2014/12/31		2013/12/31	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Ibilgetu ukiezina	221	-	226	-
Ibilgetu materiala	66.890	-	66.560	-
Finantza arloko ibilgetua eta aktiboen zerga geroratuak	674.787	-	649.070	-
Izakinak	124.230	-	79.277	-
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	405.736	-	324.884	-
Beste finantza-aktibo korrante batzuk	25.122	-	45.861	-
Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide	81.899	-	54.783	-
Pasibo ez-korrontea	-	541.787	-	566.764
Pasibo korrontea	-	492.813	-	378.586
<b>Guztira</b>	<b>1.378.885</b>	<b>1.034.600</b>	<b>1.220.661</b>	<b>945.350</b>

Lehengai nagusiei dagokienez, proiektu berri bakoitza indarrean sartzean egiten ditu eskariak eta hitzartzen du prezioa Taldeak. Horri esker, lehenagien prezioek izan dezaketen goranzko bilakaerak kontratuko marjinetan modu negatiboan eragina izateko arriskua estal dezake.

#### b) Kreditu-arriskua

Kobratu beharreko kontu eta egiten ari garen lanik gehienak hainbat herrialdetako bezeroei dagozkie. Kasu gehienetan, proiektuak aurrera egin ahal hainbateko ordainketak agintzen dituzte kontratuek.

Ohiko jarduera da Taldeak esportazio-kontratuak bertan behera uzteko edo ez ordaintzeko zenbait arrisku bermatzea. Horretarako, esportaziorako aseguru-polizak kontratatzen dira, ELGAko Hitzarmenak gai horietarako dituen arauen arabera. Estaldura egiteko edo ez egiteko erabakia, bezero motaren eta lan egiten duen herrialdearen arabera hartzen da.

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, Taldeak kreditu-aseguruen bidez kobratu beharreko bezeroen kontuen zati bat bermatua du; atzerriko hainbat herrialdetako lanei dagozkie kobrantza horiek (12. oharra).

#### c) Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuaren kudeaketa zuzurrak eskatzen du behar hainbat eskudiru eta balore negoziagarri edukitzea, baita hartutako finantza-konpromiso guztiei modu zabalean eta eraginkortasunez aurre egiteko finantza-baliabideak izatea ere (13. eta 16. oharrek).

Likidezia-arriskua mekanismo hauen bidez kudeatzen da CAF Taldean:

- Autofinantzaketako ahalik eta maila handieneko negozio-aukerak bilatzea eta hautatzea merkatuetako baldintzen barruan kontratu bakoitzerako. Ibilgailuen fabrikazio-proiektuetan (haiek gauzatzeko batez besteko aldia, gutxi gorabehera, hiru urtekoa izaten da), fakturazioko eta lanak gauzatzeko helburuak baliteke ez egotea denborari dagokionez lerrotatuta eta horrek beti finantza-baliabideen kontsumoa ekartzen du.
- Zirkulatuzailearen kudeaketa aktiboa ezartzea eta mantentzea kontratatutako proiektu bakoitzeko fakturazioko helburuen betetze mailari modu iraunkorrean jarraituta.
- Epe laburrera, likidezia-posizio sendoari eustea.
- Erabili gabeko finantziario-ahalmen soberakinari eutsiz



#### d) Eskudiruaren fluxuen eta arrazoizko balioaren interes-tasaren arriskua

Taldearen interes-tasaren arriskua kanpoko baliabideak erabiltzetik sortzen da. Taldearen ohiko politika da zirkulatuzailearen finantzaketa-eragiketarako hirugarren batzuekin zorra sortzea epe laburreko kanpoko baliabideen bitartez (merkatuko indize aldakorretan erreferentziatuta; gehienetan, Euriborrean). Horri esker, nabarmen murrizten da interes-tasa horren arriskua. Epe luzerako finantzaketa-eragiketarako, interes-tasa finkoko egitura bat izatea izaten da helburua, merkatuek horretarako aukera ematen duten heinean.

Horrekin lotuta, 2014ko abenduaren 31ko finantza-zorpetzearen zati handia honako bi hauekin lotuta dago: Brasilen eta Mexikon lortutako emakidekin (9. eta 16. oharra); eta Taldeko sozietate nagusiak bere jarduera finantzatzeko duen zorrarekin eta Taldeko beste sozietate batzuek dutenarekin.

Brasilgo trenak alokatzeko sozietatearekin lotutako zorra Project Finance modalitatean egituratutako zorra da, Taldearen gainerako sozietateekiko baliabiderik gabea eta TJLPrekin erreferentziatua (Brasilgo Banku Zentralaren epe luzerako tasa). Mexikoko trenen alokairuko sozietateari lotutako zorrari dagokionez, berriz, Taldeak interes-tasaren swap bat kontratatu du maileguaren interes-tasaren erreferentzia aldakorra erreferentzia finko bihurtzeko, maileguaren zenbatekoaren % 80rekin eta zenbateko horren % 80ri eraginez.

2014ko abenduaren 31n sozietate nagusiak zuen zorrari dagokionez, merkatuko interes-tasei erreferentziatuta 145 milioi euroko zenbatekoa jarri da eta 200 milioi euro tasa finkora (horietatik 20 milioi euro finko interes-tasen eratorrien bidez) (16. eta 17. oharra). Aurreko ekitaldia ixtean, kreditu-erakundeekin bizirik zegoen zor guztia interes-tasen aldakuntzaren mende zegoen.

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n zegoen saldoa kontuan hartuta, kanpoko baliabideen erreferentziatutako interes-tasen batez bestekoa oinarritzko 100 puntu handiagoa edo txikiagoa izan balitz gainerako aldagaiei bere horretan eutsita eta deskribatutako estaldura-politikak kontuan hartuta, finantza-zorretik etorritako finantza-gastua 5.024 eta 5.598 mila euro handituko/txikituko zen hurrenez hurren eta gutxi gorabehera.

#### e) Proiektu-aurrekontuen desbideraketek dakartzaten arriskuak

Dagozkion eskaintzak prestatzeko oinarritzat erabilitako proiektuen aurrekontuetan gertatu izan diren desbideraketak informazio-sistema zehatza erabilia aztertu eta kontrolatu ohi dira. Horretarako, kostuaren kontu-sail bakoitza hartzen da oinarritzat eta kontu-sail horien aurrekontua proiektu bakoitzeko kostuen egoeraren errealitatearekin alderatzen da. Horri esker, proiektuek irauten duten bitartean, datu horien etengabeko jarraipena egiten da helburu horietarako sortutako barne-prozesu konplexu baten bidez. Bertan, proiektu bakoitzean sartuta dauden sail guztiek parte hartzen dute.

#### f) Batez ere produkzioak eraginda zerbitzuak berandu edo akatsekin emateagatik beste batzuei kalteak eragitetik eratorritako legezko eta kontratu mailako arriskuak

Eskaintza-pleguek eta tren-ibilgailuen fabrikazio-kontratuek honako hauei buruzko eskakizun ugari biltzen dute: alderdi teknikoari eta kalitate mailari buruzkoak (maila teknologiko handiko produktu berriak sartu izanaren ondorioz), entrega-epeak betetzearekin lotutakoak, homologazio-beharrak, fabrikazioaren kokapenari buruzkoak eta beste arrisku operazional batzuk. Horiek guztiek, gehienetan, zigor mailak eta ebazpen- edo etete-klausulak biltzen dituzte. Horrekin lotuta, desadostasunak sor daitezke eskakizun horien inguruan CAF Taldearen eta bezeroen artean. Horrek atzerapenak direla eta erreklamazioak, lanak oker gauzatzea edo lan osagarriak egin behar izatea eragin dezake.

Proiektuen kudeaketako zailtasunak landu ahal izateko, CAF Taldeak arriskuen kudeaketa-sistema du erabilgarri, Taldearen kalitate-sisteman barneratuta. Eskaintza prestatzeko garaian jarri ohi da abian eta CAF Taldeak beren negozioaren ohiko bidean aurre egin behar izaten dien arrisku ugarien identifikazioa eta kudeaketa egitea ahalbidetzen du.

CAFeko lantegi guztiek eskura dauden teknologiarik berrienak dituzte eta, ISO 9001 arauari jarraiki, produkzioa optimizatzeko teknika aurreratuenak erabiltzen dituzte.

Bestalde, aseguruak kontratatze politikaz zorroztza erabiltzen du CAFek; horri esker, arrisku horietako batzuek eragin ditzaketen ondorio ekonomikoetatik eta Talderako ondorioetatik behar bezala babestuta dago.

## 6. SEGMENTAZIOA

### a) Segmentazio-irizpideak

Hona hemen urteko kontu bateratuetan CAF Taldeak informazio segmentatua aurkezteko irizpideak:

- Segmentazioa negozio-unitateen arabera egin zen, "Trenen arloa" eta "Errodajea eta osagaiak" bereizita.
- Gainera, Taldearen irizpide geografikoen arabera informazioa ere bildu dugu.

### b) Segmentukako informazioaren oinarriak eta metodologia

Segmentuari zuzenean dagozkionak dira haren ohiko sarrera eta gastuak; hortaz, ez da sartu inbertsio-salmenten, berreskuratze-eragiketen edo zor-amaierako eragiketen interes, dibidendu, irabazi eta galerarik. Segmentuen aktiboek eta pasiboek lotura zuzena dute haren ustiapenarekin edo jarduera horretara zuzendutako sozietateetako partaidetzarekin.

Segmentazio nagusirako oinarriak Nazioarteko Araudiaren (8. FINA "Segmentu operatiboak") arabera aztertu ondoren, segmentu nagusitzat sailkatu ditu CAF Taldeak izan dituen bi negozio-unitateak, haien antolakuntza-egitura, kudeaketa eta administrazio- eta zuzendaritza-organoetarako barne-informazioko sistema direla eta, eragiketak negozio-unitate batean edo bestean (produktuen eta lotura duten zerbitzuen multzoa) egitearen arabera baitituzte arriskuak eta emaitzak. Azken batean, segmentazioaren bidez identifikatzen dira CAF Taldeko zenbait osagai identifikagarri, beste ingurune batzuetan diharduten eragiketa-osagaiak ez bezalako arrisku eta errendimenduak dituztenak hain justu ere.

Hurrengo segmentu nagusien sorreran eragina izan du Taldeak, urteetako eskarmentuak adierazten digunez. CAFen iritziz, segmentu horiek betetzen dituzte barneko homogeneotasuneko arauak baldintza ekonomiko edo politikoen kidesunari dagokionez, baita aplikagarri diren erregulazioek, truke-tasak edo jardueren hurbiltasunak eragiten dituzten arriskuei dagokienez ere.

- Trenak
- Errodajea eta osagaiak

Jarraian, informazio hori negozio-segmentuen arabera azaltzen da:

Negozio-unitatearen araberako segmentazioa	2014 (mila euro)				
	Trenak	Errodajea eta osagaiak	Orokorra	Segmentuen artekoak	Guztira
<b>NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA:</b>					
Kanpoko salmentak	1.364.873	82.268	-	-	1.447.141
Segmentuen arteko salmentak	-	38.423	-	(38.423)	-
<b>Salmentak, guztira</b>	<b>1.364.873</b>	<b>120.691</b>	<b>-</b>	<b>(38.423)</b>	<b>1.447.141</b>
<b>EMAITZAK:</b>					
Ustiapenaren emaitza	99.579	4.846	10.560	-	114.985
Finantza arloko emaitza (*)	(27.909)	78	(6.898)	-	(34.729)
Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan	200	-	-	-	200
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>71.870</b>	<b>4.924</b>	<b>3.662</b>	<b>-</b>	<b>80.456</b>
Irabazien gaineko zerga (*)	-	-	(18.327)	-	(18.327)
<b>Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza garbia</b>	<b>71.870</b>	<b>4.924</b>	<b>(14.665)</b>	<b>-</b>	<b>62.129</b>
Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza	(2.450)	-	-	-	(2.450)
<b>Sozietate nagusiari egotzitako emaitza</b>	<b>69.420</b>	<b>4.924</b>	<b>(14.665)</b>	<b>-</b>	<b>59.679</b>
Ekitaldiko amortizazioak (7. eta 8. oharrak)	30.964	10.966	468	-	42.398
<b>AKTIBOAK</b>	<b>2.237.084</b>	<b>92.584</b>	<b>633.567</b>	<b>-</b>	<b>2.963.235</b>
<b>PASIBOAK</b>	<b>1.451.747</b>	<b>27.676</b>	<b>734.899</b>	<b>-</b>	<b>2.214.322</b>
Ibilgetu ukiezinako eta materialeko gehikuntzak (7. eta 8. oharrak)	21.225	3.175	-	-	24.400
<b>KUTXAKO FLUXUETAN ERAGINIK EZ DUTEN BESTE KONTU SAIL BATZUK</b>					
Aktiboak hondatzea - Sarrera (Gastua) (7., 8. eta 9. oharrak)	(46)	-	11.004	-	10.958

## 2013 (mila euro)

Negozio-unitatearen araberako segmentazioa	Trenak	Errodajea eta osagaiak	Orokorra	Segmentuen artekoak	Guztira
<b>NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA:</b>					
Kanpoko salmentak	1.457.357	77.883	-		1.535.240
Segmentuen arteko salmentak	-	35.062	-	(35.062)	-
<b>Salmentak, guztira</b>	<b>1.457.357</b>	<b>112.945</b>	<b>-</b>	<b>(35.062)</b>	<b>1.535.240</b>
<b>EMAITZAK:</b>					
Ustiapenaren emaitza	165.807	(2.456)	(12.040)	-	151.311
Finantza arloko emaitza (*)	(27.129)	-	(9.491)	-	(36.620)
Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan	(392)	-	-	-	(392)
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>138.286</b>	<b>(2.456)</b>	<b>(21.531)</b>	<b>-</b>	<b>114.299</b>
Irabazien gaineko zerga (*)	-	-	(23.262)	-	(23.262)
<b>Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza garbia</b>	<b>138.286</b>	<b>(2.456)</b>	<b>(44.793)</b>	<b>-</b>	<b>91.037</b>
Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza	(856)	-	-	-	(856)
<b>Sozietate nagusiari egotzitako emaitza</b>	<b>137.430</b>	<b>(2.456)</b>	<b>(44.793)</b>	<b>-</b>	<b>90.181</b>
Ekitaldiko amortizazioak (7. eta 8. oharrak)	30.986	11.098	468	-	42.552
<b>AKTIBOAK</b>	<b>2.164.922</b>	<b>103.846</b>	<b>539.081</b>	<b>-</b>	<b>2.807.849</b>
<b>PASIBOAK</b>	<b>1.503.003</b>	<b>19.892</b>	<b>555.593</b>	<b>-</b>	<b>2.078.488</b>
Ibilgetu ukiezineko eta materialeko gehikuntzak (7. eta 8. oharrak)	43.116	7.793	-	-	50.909
<b>KUTXAKO FLUXUETAN ERAGINIK EZ DUTEN BESTE KONTU SAIL BATZUK</b>					
Aktiboak hondatzea - Sarrera (Gastua) (7., 8. eta 9. oharrak)	(17.392)	(58)	(11.615)	-	(29.065)

(\*) Zor espezifikoaen finantza-kostua eta aktiboen hondatzea segmentuan bertan daude sartuta. Finantza arloko gainerako emaitza eta sozietateen gainerako zergaren gastua "Orokorra" izeneko zutabearen daude. Izan ere, legezko hainbat entitatek bat egiten dute kasu horretan eta ez dago segmentuen araberako esleipena egiteko arrazoizko irizpiderik.

Erabilera orokorreko aktiboak eta pasiboak zein haiek sortutako emaitzak (horien artean, aipatu beharrekoak dira eskudituaren kontu-sailak eta beste finantza-aktibo korrante batzuk) ez dira gainerako segmentuetara esleitu. Era berean, ez dira esleitu berdinkatze-sailak ere, negozio-unitateetako finantza-egoerak (kudeaketa-irizpideekin eginak) CAF Taldeko finantza-egoera bateratuekin elkartzearen emaitzek sortzen dituztenak alegia.

2014ko ekitaldiko trenen segmentuko kanpoko salmenten zifran 997.512 mila euroko zenbatekoa duten ondasunen salmentak daude bilduta (2013ko ekitaldian, 1.110.145 mila euro izan ziren).

Hauxe da informazioa irizpide geografikoen arabera banatuta:

a) Salmentak, eremu geografikoen arabera, 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n (milaka eurotan):

<b>Eremu geografikoa</b>	<b>2014</b>	<b>%</b>	<b>2013</b>	<b>%</b>
Espainia	228.430	15,78	269.596	17,56
Munduko gainerako tokiak	1.218.711	84,22	1.265.644	82,44
<b>Guztira</b>	<b>1.447.141</b>	<b>100,00</b>	<b>1.535.240</b>	<b>100,00</b>

b) Ibilgetu materialean egindako inbertsio garbiak, eremu geografikoen arabera, 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n (milaka eurotan):

<b>Eremu geografikoa</b>	<b>2014</b>	<b>2013</b>
Espainia	203.125	218.230
Munduko gainerako tokiak	68.714	68.363
<b>Guztira</b>	<b>271.839</b>	<b>286.593</b>

## 7. BESTE AKTIBO UKIEZIN BATZUK

Hona hemen 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian "Beste aktibo ukiezin batzuk" epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

Mila euro				
	Garapen- gastuak	Informatikako aplikazioak eta beste batzuk	Merkataritza funtza	Guztira
<b>Kostu-saldoa, 2012/12/31n</b>				
<b>Garbia</b>	<b>74.047</b>	<b>14.540</b>	<b>15</b>	<b>88.602</b>
<b>Kostua</b>				
Bihurketa-diferentziak	1	(75)	-	(74)
Sarrerak edo zuzkidurak	20.013	1.258	-	21.271
Intsuldaketak	(242)	293	-	51
Izakinetara egindako intsuldaketak	(657)	-	-	(657)
Irteerak, bajak edo murriztapenak	-	(21)	-	(21)
<b>Kostu-saldoa, 2013/12/31n</b>	<b>93.162</b>	<b>15.995</b>	<b>15</b>	<b>109.172</b>
Bihurketa-diferentziak	-	1	-	1
Sarrerak edo zuzkidurak	12.932	1.383	-	14.315
Intsuldaketak	-	-	-	-
Izakinetara egindako intsuldaketak	(1.201)	-	-	(1.201)
Irteerak, bajak edo murriztapenak	(694)	-	-	(694)
<b>Kostu-saldoa, 2014/12/31n</b>	<b>104.199</b>	<b>17.379</b>	<b>15</b>	<b>121.593</b>
<b>Amortizazio metatua</b>				
Bihurketa-diferentziak	-	33	-	33
Sarrerak edo zuzkidurak	(9.886)	(1.094)	-	(10.980)
Intsuldaketak	243	(117)	-	126
Irteerak, bajak edo murriztapenak	-	7	-	7
<b>Amortizazio metatuaren saldoa, 2013/12/31n</b>	<b>(44.222)</b>	<b>(12.862)</b>	<b>-</b>	<b>(57.084)</b>
Bihurketa-diferentziak	-	1	-	1
Sarrerak edo zuzkidurak	(9.487)	(1.126)	-	(10.613)
Intsuldaketak	-	-	-	-
Irteerak, bajak edo murriztapenak	412	-	-	412
<b>Amortizazio metatuaren saldoa, 2014/12/31n</b>	<b>(53.297)</b>	<b>(13.987)</b>	<b>-</b>	<b>(67.284)</b>
<b>Balioa hondatzea</b>				
<b>Hondatzea 2012/12/31n</b>	<b>(281)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(281)</b>
2013ko ekitaldiko zuzkidurak	(16.620)	-	-	(16.620)
<b>Hondatzea 2013/12/31n</b>	<b>(16.901)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(16.901)</b>
2014ko ekitaldiko jaitsierak	280	-	-	280
<b>Hondatzea 2014/12/31n</b>	<b>(16.621)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(16.621)</b>
<b>Garbia, 2013/12/31n</b>	<b>32.039</b>	<b>3.133</b>	<b>15</b>	<b>35.187</b>
<b>Garbia, 2014/12/31n</b>	<b>34.281</b>	<b>3.392</b>	<b>15</b>	<b>37.688</b>

Garapen gisa erregistratutako 2014ko eta 2013ko ekitaldietako eransketak produktu berrien proiektuetan egindako kostuei dagozkienak dira eta, horien artean, nabarmendu beharrekoa da abiadura handiko tren berria, Amerikako merkatura egokitutako tranbia eta bazkide batekin batera garatutako autobus elektrikoa.

2013ko ekitaldian, "Ibilgetua besterentzearen kaltea eta eragina" epigrafearen kargura 16.620 mila euroko zenbatekoa kaltetu zen garapen fasean dauden proiektu ugarien kontzeptuaren baitan. Izan ere, administratzaileen ustez, haien etorkizuneko ekonomia eta merkataritza arloko errentagarritasunaren inguruko arrazoizko zalantzak zeuden. 2014ko ekitaldian, Taldeak ez du aktibo ukigarriaren balioa kaltetzearen kontzeptuan zenbatekorik erregistratu.

2014ko ekitaldian, 3.a. oharrean azaldutakoaren arabera, gutxi gorabehera, 1.201 mila euro intsuldatu ditu Taldeak, garatutako teknologia biltzen zuten eta eskuratutako hainbat kontraturen proiektuak zirela eta aktibatutako garapeneko gastuetatik bideratuta (657 mila euro 2013an).

## 8. IBILGETU MATERIALA

Hona hemen 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan "Ibilgetu materiala" epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

Mila euro						
	Lursailak eta eraikinak	Instalazio teknikoak eta makinak	Beste zenbait instalazio, tresna eta altzariak	Gainerako ibilgetua	Aurrerakinak eta martxan direnak	Guztira
<b>Saldoa 2012/12/31n</b>	<b>250.457</b>	<b>276.427</b>	<b>21.042</b>	<b>36.514</b>	<b>4.485</b>	<b>588.925</b>
<b>Kostua</b>						
Sarrerak	10.198	11.837	1.019	2.099	4.485	29.638
Intsuldaketak	5.806	3.001	(538)	29	(8.425)	(127)
Irteerak, bajak edo murriztapenak	(275)	(7.417)	(199)	(3.578)	-	(11.469)
Bihurketa-diferentziak	(6.469)	(4.575)	(320)	(157)	(215)	(11.736)
<b>2013/12/31ko saldoa</b>	<b>259.717</b>	<b>279.273</b>	<b>21.004</b>	<b>34.907</b>	<b>330</b>	<b>595.231</b>
Sarrerak	3.005	3.568	723	672	2.117	10.085
Izakinetera egindako intsuldaketak	-	-	-	3.550	-	3.550
Intsuldaketak	1.591	567	22	110	(2.282)	8
Irteerak, bajak edo murriztapenak	(1.134)	(1.263)	(168)	(948)	-	(3.513)
Bihurketa-diferentziak	2.645	1.885	26	62	1	4.619
<b>2014/12/31ko saldoa</b>	<b>265.824</b>	<b>284.030</b>	<b>21.607</b>	<b>38.353</b>	<b>166</b>	<b>609.980</b>
<b>Amortizazio metatua</b>						
Sarrerak edo zuzkidurak	(5.950)	(22.536)	(1.556)	(2.583)	-	(32.625)
Intsuldaketak	119	(200)	409	13	-	341
Irteerak, bajak edo murriztapenak	56	7.395	108	3.587	-	11.146
Bihurketa-diferentziak	868	1.523	103	121	-	2.615
<b>Amortizazio metatuaren saldoa, 2013/12/31n (84.462)</b>	<b>(185.955)</b>	<b>(12.466)</b>	<b>(18.752)</b>	<b>(17.752)</b>	<b>-</b>	<b>(301.635)</b>
Sarrerak edo zuzkidurak	(6.317)	(21.428)	(1.384)	(2.606)	-	(31.735)
Intsuldaketak	(6)	1	2	(6)	-	(9)
Irteerak, bajak edo murriztapenak	929	1.155	106	948	-	3.138
Bihurketa-diferentziak	(296)	(549)	(15)	(37)	-	(897)
<b>Amortizazio metatuaren saldoa, 2014/12/31n (90.152)</b>	<b>(206.776)</b>	<b>(13.757)</b>	<b>(20.453)</b>	<b>(20.453)</b>	<b>-</b>	<b>(331.138)</b>
<b>Balioa hondatzea (narriadura)</b>						
<b>Balioaren narriadura-saldoa, 2012/12/31n (5.711)</b>	<b>(5.711)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(5.711)</b>
2013ko ekitaldiko zuzkidura	585	(1.329)	-	(13)	-	(757)
Birsailkapena	(535)	-	-	-	-	(535)
<b>Balioaren narriadura-saldoa, 2013/12/31n (5.661)</b>	<b>(5.661)</b>	<b>(1.329)</b>	<b>-</b>	<b>(13)</b>	<b>-</b>	<b>(7.003)</b>
<b>Balioaren narriadura-saldoa, 2014/12/31n (5.661)</b>	<b>(5.661)</b>	<b>(1.329)</b>	<b>-</b>	<b>(13)</b>	<b>-</b>	<b>(7.003)</b>
<b>Garbia, 2013/12/31n</b>	<b>169.594</b>	<b>91.989</b>	<b>8.538</b>	<b>16.142</b>	<b>330</b>	<b>286.593</b>
<b>Garbia, 2014/12/31n</b>	<b>170.011</b>	<b>75.925</b>	<b>7.850</b>	<b>17.887</b>	<b>166</b>	<b>271.839</b>



2014ko ekitaldian, Taldeak inbertsioak egin zituen lantegietan, produkzio-ahalmena hobetzeko. Inbertsio horiek batez ere Taldearen egitura produktiboa modernizatzen bideratu dira, eta CAF USA lantegira, egitura, akabera eta proben eremuak zabaldu baitituzte han. Era berean, lursailen urbanizazio-lanetara, eraikinak egokitzera eta aparkalekuak egitera bideratutako inbertsioak egin dira.

Aurreko ekitaldietan, Taldeak ibilgetu materialera inbultatu zuen bezero batentzat fabrikatutako lokomotorrengatik kalkulaturako balio erreperagarria. Azkenean bezero horrekin kontratua eten zuen (20. oharra). Sozietate nagusiaren administratzaileek uste dute ez dagoela kalterik haien erreperazioaren analisiaren ostean. 2014ko abenduaren 31n, lokomotora horien kontularitzako balio garbia 10.299 mila eurokoa zen (10.871 mila euro 2013ko abenduaren 31n).

2014eko eta 2013ko abenduaren 31n, Taldeak 726 mila eta 3.150 mila euro inguruko inbertsio-erosketen konpromiso irmoak zituen Taldeak, batez ere Espainian.

Sozietate bateratuek ibilgetuko elementuak behar bezala estaltzeko aseguru-polizak kontratatzeke irizpideari jarraitzen diote. 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, aseguru-polizek egun horretan ibilgetuak zuen kontabilitate-balio garbia estaltzen zuten.

Erabat amortizatuta dauden eta oraindik erabiltzen diren aktiboen kostu gordina 185.734 eta 168.844 mila euro ingurukoa zen 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n.

2014ko ekitaldian, gutxi gorabehera, 46 mila euroko galera eman du ibilgetu materialaren besterentzeak eta honi erantsitako galera- eta irabazi-kontu bateratuaren "Ibilgetua besterentzearen kaltea eta eragina" epigrafean erregistratu dira (2013ko ekitaldiko galerak 73 mila eurokoak izan ziren).

Taldeak hainbat elementu ibilgeturen inguruan egindako erabilerako balio-azterketaren ondorioz (lursailen, eraikuntzen eta makina batzuen inguruan salmenta-prezioen azterketa oinarri hartuta aditu independenteek eginda), 2013ko ekitaldian, galera eta irabazien kontu bateratuko "Ibilgetua besterentzearen kaltea eta eragina" epigrafeari 757 mila euroko zenbateko garbia hornitu zitzaion. 2014an ez zitzaion zenbatekorik hornitu.

Aktiboaren kontabilitate-balioetik kendu du Taldeak hura erosteko jasotako diru-laguntzen zenbatekoa. Jasotako diru-laguntzetatik amortizatzeke dagoen zenbateko garbia 3.002 mila eurokoa da 2014ko abenduaren 31n (4.165 mila euro 2013ko abenduaren 31n). 2014ko ekitaldian emaitzetara eramandako zenbatekoa 1.169 mila eurokoa da (1.379 mila euro 2013an) eta erantsitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Ibilgetuaren amortizazioa" epigrafean erregistratuta dago.

Administratzaileen ustez, 2014ko abenduaren 31n ez zegoen ohar honetan deskribatutakoez gain, hondatzearen zantzurik Taldeak atzerrian dituen aktiboetan.

## 9. PARTAIDETZA-SISTEMAREN BIDEZ KONTABILIZATUTAKO INBERTSIOAK ETA FINANTZA-AKTIBO EZ-KORRONTEAK

Hona hemen 2014ko abenduaren 31n eta 2013ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan "Partaidetza-sistema aplikatuta kontabilizatutako inbertsioak" eta "Finantza-aktibo ez-korronteak" epigrafeko kontuetan izandako mugimendua:

Mila euro									
	Inbertsioak		Ondare-tresnak		Beste	Finantza-tresna	Kobratu		Guztira
	Elkartutakoetan				finantza-aktibo	eratorriak	beharreko		
	(9.a. oharra)				batzuk	(17. oharra)	maileguak eta		
	Kostua	Kostua	Homidura		Kostua	Merkatu-	Kostua	Homidura	
			(9.b. oharra)			balioa			
<b>2012/12/31ko saldoa</b>	<b>13.167</b>	<b>23.118</b>	<b>(1.203)</b>		<b>23.795</b>	<b>4.497</b>	<b>733.479</b>	<b>(22.858)</b>	<b>773.995</b>
Perimetroan izandako									
aldaketak (2.f. oharra)	633	-	-		-	-	-	-	633
Bihurketa-diferentziak	(3)	-	-		(3.365)	(176)	(81.734)	4.744	(80.534)
Sarrerak edo zuzkidurak	(392)	687	(22)		1.492	5.074	187.328	(9.389)	184.778
Irteerak, bajak edo murriztapenak	-	-	-		(1.619)	-	(751)	-	(2.370)
Intsuldaketak eta kitapenak	-	200	-		(2.170)	(202)	(207.479)	(51)	(209.702)
Saltzeko eskuragarri dauden									
finantza-aktiboak	-	3.838	-		-	-	-	-	3.838
Estaldura-eragiketak (17. oharra)	1.497	-	-		-	-	-	-	1.497
<b>2013/12/31ko saldoa</b>	<b>14.902</b>	<b>27.843</b>	<b>(1.225)</b>		<b>18.133</b>	<b>9.193</b>	<b>630.843</b>	<b>(27.554)</b>	<b>672.135</b>
Bihurketa-diferentziak	(28)	-	-		130	202	33.948	(615)	33.637
Sarrerak edo zuzkidurak	200	380	(180)		960	8.198	125.126	11.803	146.487
Irteerak, bajak edo murriztapenak	-	(17.058)	-		(535)	-	(2.307)	-	(19.901)
Intsuldaketak (3.d. eta 3.u. oharrak)	147	(61)	-		(1.024)	-	(146.651)	-	(147.588)
Estaldura-eragiketak (17. oharra)	(2.964)	-	-		-	-	-	-	(2.964)
<b>2014/12/31ko saldoa</b>	<b>12.257</b>	<b>11.104</b>	<b>(1.405)</b>		<b>17.664</b>	<b>17.593</b>	<b>640.959</b>	<b>(16.366)</b>	<b>681.806</b>

Hona hemen Taldeak 2014ko abenduaren 31n eta 2013ko abenduaren 31n zituen finantza-aktibo ez-korronteen banakapena, bakoitzaren izaeraren eta kategoriaren arabera sailkatuta hobeto baloratzeko:

Mila euro					
14/12/31					
Finantza-aktiboak: Izaera/kategoria	Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak	Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak	Mugaegunera arte gordetako inbertsioak	Estalduraren eratorriak	Guztira
Ondare-tresnak	9.699	-	-	-	9.699
Estalduratik eratorriak (17. oharra)	-	-	-	17.593	17.593
Beste finantza-aktibo batzuk	-	624.593	17.664	-	642.257
<b>Epe luzea/ez-korronteak</b>	<b>9.699</b>	<b>624.593</b>	<b>17.664</b>	<b>17.593</b>	<b>669.549</b>

Mila euro					
13/12/31					
Finantza-aktiboak: Izaera/kategoria	Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak	Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak	Mugaegunera arte gordetako inbertsioak	Estalduraren eratorriak	Guztira
Ondare-tresnak	26.618	-	-	-	26.618
Estalduratik eratorriak (17. oharra)	-	-	-	9.193	9.193
Beste finantza-aktibo batzuk	-	603.289	18.133	-	621.422
<b>Epe luzea/ez-korronteak</b>	<b>26.618</b>	<b>603.289</b>	<b>18.133</b>	<b>9.193</b>	<b>657.233</b>

Hona hemen "Finantza-aktibo ez-korronteak" epigrafeko partiden xehetasunak, epemugaren arabera sailkatuta (mila euro):

#### 2014ko ekitaldia

	2016	2017	2018	2019ko ekitaldia eta hurrengoak	Guztira
Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak	127.685	132.901	126.337	237.670	624.593
Mugaegunera arte gordetako inbertsioak	781	933	-	15.950	17.664
Estalduraren eratorriak	6.208	9.233	685	1.467	17.593
<b>Guztira</b>	<b>134.674</b>	<b>143.067</b>	<b>127.022</b>	<b>255.087</b>	<b>659.850</b>

#### 2013ko ekitaldia

	2015	2016	2017	2018ko ekitaldia eta hurrengoak	Guztira
Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak	137.496	117.128	119.480	229.185	603.289
Mugaegunera arte gordetako inbertsioak	1.263	111	65	16.694	18.133
Estalduraren eratorriak	3.325	401	1.132	4.335	9.193
<b>Guztira</b>	<b>142.084</b>	<b>117.640</b>	<b>120.677</b>	<b>250.214</b>	<b>630.615</b>

### a) Enpresa elkartuetako partaidetzak

Hona hemen enpresa elkartuetan dugun partaidetzari buruzko informazio aipagarria, partaidetza-metodoaren bidez aztertua (mila euro):

Izena	Sozietatearen helbidea	Jarduera	Kapitalaren zatia	Inbertsioak enpresa elkartuetan	Oinarrizko finantza-datuak (1) Kapitala	Erreserbak, prima eta emaitza metatuak (17. oharra)	2014ko emaitzak	Negoio-zifra	Aktiboa
Asiry's Vision Technologies, S.A.(4)	Gipuzkoa (Espainia)	Produktzio automatikoa	% 22,33	41	154	5	-	-	166
Plan Metro, S.A.(4) (5)	Madril (Espainia)	Errentamendu-rako zerbitzuak	% 40	-	60	(14.575)	(2.474)	46.492	432.468
Consortio Traza, S.A.(4)	Zaragoza (Espainia)	Akzioak edukitzea	% 25(2)	12.068	575	46.534	1.162	26.224	295.579
Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V.(3)	Mexiko D.F.	Garraio-zerbitzuak	% 43,35	-	106.865	(48.586)	(23.378)	38.185	365.304
Zhejiang Sunking Trainelec Traintic Electric Co, Ltd.(4)	Zhejiang (Txina)	Potentziako ekipamenduak eta ekipamendu elektronikoenak	% 30	57	695	(267)	(238)	-	420
Urban Transport Solutions B.V.(4) (6)	Amsterdam	Fabrikazioa eta mantentze-lanak	% 49	91	300	(76)	(39)	-	187
<b>12.257</b>									

(1) Baterakuntzako doikuntzak eta homogeneizatzak egin ondoren (mila euro).

(2) Consortio Traza, SA sozietateak % 80ko partaidetza sendotu du sozietate honetan: S.E.M. Los Tranvías de Zaragoza, SA.

(3) Deloitte ikuskatua.

(4) Ikuskatu gabeak.

(5) Sozietate honen akzioak hainbat finantza-entitatearen alde pignoratuta daude.

(6) Urban Transport Solutions, B.V. sozietateak Urban Transport Solutions, LLC. sozietatean % 100eko partaidetza sendotu du.

#### Mila euro

	2014	2013
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>14.902</b>	<b>13.167</b>
Sozietateen emaitza	200	(392)
Bihurketa-diferentziak	(28)	(3)
Estaldura-eragiketengatik balio-aldaketak (17. oharra)	(2.964)	1.497
Aldakuntzak perimetroan eta intsuldaketak	147	633
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>12.257</b>	<b>14.902</b>

Partaidetzak sendotzean, Talderen trenbide-materialaren salmentako marjinak kendu dira partaidetzarekiko proportzioan. Lege-betebeharrik edo betebehar espliziturik ez denez izan, eta CAF Taldearen elkartutakoen izenean ordainketarik egin ez denez, ez da beharrezkoa zeron baloratuta dauden elkartu horiek egindako galera gehigarriak integratzea.

## b) Balore-zorro ez-korrontea

Izena	Partaidetzaren %	Inbertsioaren kostua (mila euro)	
		2014	2013
Alquiler de Trenes, AIE	5	1.202	1.202
Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, SA	-	-	17.058
Ferromovil 3000, SL	10	3.181	3.181
Alquiler de Metros, AIE	5	66	66
Plan Azul 07, SL	5,2	1.381	1.381
Arrendadora de Equipamientos Ferroviarios, SA	15	1.908	1.908
Iniciativa FIK, AIE	12,49	1.302	1.102
FIK Advanlife, SL	10,29	1	1
Albali Señalización, SA	3	398	398
Otros		260	321
<b>Guztira</b>		<b>9.699</b>	<b>26.618</b>

2014ko martxoaren 10ean, Taldeak Sociedad Metro de Sevilla Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía SA sozietatean zituen partaidetza saldu zuen. Partaidetza hori "Salmentarako eskuragarri dauden finantza-aktiboak" epigrafean erregistratuta zegoen 17.058 mila euroko zenbatekoarekin, eta transmisioaren zenbatekoa 17.587 mila eurokoa izan da. Osorik kobratuta dago, beraz, Taldeak 4.367 mila euroko irabazia erregistratu du erantsitako galera eta irabazien kontuko "Finantza-tresnak besterentzeagatiko hondatzea eta emaitza" epigrafean. Horietatik, 2013ko abenduaren 31n, 3.838 mila euroko zenbatekoa (ondorio fiskala kontuan hartu gabe) egoera-balantze bateratuko "Balio-aldaketengatiko doikuntzak – Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak" epigrafean erregistratuta zeuden.

Gainerako inbertsioak erosketa-kostuaren arabera baloratu ditugu ezin daitekeelako modu fidagarrian zehaztu haien arazoizko balioa, nahiz eta ez dagoen partaidetza horien inguruko narriadura-zantzurik (3.d. oharra).

2008ko ekitaldian, Taldeak Iniciativa FIK, AIE eta FIK Advantlife SL sozietateetako kapital sozialaren % 6,25 eta % 6ko partaidetzak harpidetu zituen. Sozietate horien helburu soziala ezagutza zientifikoen eta teknologikoen ikerkuntza, garapena eta ustiapena da. Harpidetutako partaidetzen balio nominala 3.125 mila euro eta 313 eurokoa da, hurrenez hurren. 2012ko ekitaldian, akziodunen arteko akordioetan gertatutako aldaketen ondorioz (horrek ez zuen Talderako ordainketa osagarriker eragin), ordainketen egutegi berria adostu zuten eta, horren ondorioz, Taldeak Iniciativa FIK, AIE izenekoan % 12,5eko partaidetza lortu zuen (aurretik, % 6,25ekoa zuen). 2014ko abenduaren 31n, partaidetza horiekin lotuta egin gabeko ordainketak 798 mila eurokoak dira (418 mila euro epe luzerakoak eta 380 mila euro epe laburrerakoak). Zenbateko horiek 190 mila euroko sei hilez behingo epeetan ordaindu behar dira. Gainera, 2014ko ekitaldian, Taldeak 180 mila euroko narriadura erregistratu du partaidetza horien balioa zuzentzeko. Zenbatekoa atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-tresnak besterentzeagatiko hondatzea eta emaitza" epigrafean zordundu da.

## c) Beste finantza-aktibo batzuk

2014ko abenduaren 31n Taldeak 15.044 mila euro ditu erregistratuta epe luzerako "beste finantza-aktibo batzuk" epigrafean Ctrains Companhia Manutenção mendeko sozietatearen finantza-zorren zabaltzearekin lotutako fidantzen kontzeptuan (16. oharra). Fidantza horrek merkatuko interes-tasa sortzen du eta maileguaren sei hileko tasari dagokie; 2025eko azaroaren eta 2026ko apirilaren artean liberatuko da maileguaren azken sei kuotetan.

#### d) Finantza-tresna eratorriak

Epigrafe honetan sartzen da epe luzeko mugaeguneko truke-tasa duten aseguru-kontratuen merkatuko balioa (17. oharra).

#### e) Maileguak eta kobratu beharreko kontuak

Kobratu beharreko epe luzerako maileguen eta kontu-sailen banakapena hau da (mila eurotan):

	14/12/31	13/12/31
Pertsonalari emandako maileguak	5.091	5.149
Partaidetza Planeko Konpromisoak	432	1.226
Epe luzerako Administrazio Publikoak (19. oharra)	53.488	52.824
Administrazio Publikoen hornidurak (19. oharra)	(16.366)	(26.756)
Epe luzerako bezeroak	562.301	554.214
Bezeroen horniketa epe luzera	-	(799)
Enpresa elkartuei emandako maileguak (10. oharra)	19.111	16.067
Hirugarrenei emandako maileguak	536	1.364
<b>Guztira</b>	<b>624.593</b>	<b>603.289</b>

#### Pertsonalari emandako maileguak

Sozietate nagusiak, langileekin sinatutako hitzarmenei jarraiki, zenbait mailegu ematen ditu, merkatuko interes-tasaren azpitik, 10-15 urteko epemugarekin. Taldeak ez ditu eguneratzen zenbateko horiek, horien eragina handia ez dela baiteritzo.

#### Partaidetza Planeko konpromisoak (Cartera Social)

1994an, "Partaidetza Plana" eratu zuten kontratu finkoa duten sozietate nagusiko enplegatuek sozietatearen kapital sozialera sarbidea izan dezaten. Horretarako, Cartera Social, SA izenekoa sortu zen. Sozietate hori da CAF, SAren akzioen titularrak eta, bertan, Sozietate nagusiko enplegatuek bertako 8 enplegatuk ordezkatzan dituzte fiduzidarioki. Cartera Social, SAK, ordutik, Sozietate nagusiari haren esku dauden CAF, SAren akzioen inguruko "eskubideak" saldu dizkio.

Honi atxikita dagoen egoera-balantze bateratuko "Finantza-aktibo ez-korronteak - Kobratu beharreko maileguak eta kontu-sailak" eta "Beste finantza-aktibo korronte batzuk" epigrafeetan azaltzen da aipatutako "eskubide" horietan egindako inbertsioa. Horiek Cartera Social, SA sozietateari erositakoak dira. Erosketa horren helburu bakarra enplegatuei urte batzuetako epean berriro saltzea da.

Plan hau, funtsean, hiru faseetan egin da. Lehenengoa 1994ko ekitaldian egin zen eta Sozietate nagusiak Cartera Social, SA sozietatearenak ziren CAF, SAren akzioen 632.000 "eskubide" erosi zituen 26,9 milioi euroren truke. Bigarrenean, 2005eko ekitaldian, 210.150 "eskubide" erosi zituen 14,3 milioi euroren truke. 2007ko ekitaldiaren amaieran, hirugarren fasea adostu zuten. Orduan, 171.747 "eskubide" gehiago erosi zituen eta eragiketa horren erosketa-kostua 50,7 milioi eurokoa izan zen CAF, SArentzat.

Sozietate nagusiak lehen aipatutako "eskubide" horiek enplegatuei egindako salmentaren prezioaren eta Planera Cartera Social, SA sozietatearen egiten ari den ekarpenen batura baino prezio handiagoan erosi zituenez, lehen aipatutako eskubide horien erosketek Sozietate nagusiarentzako galerak sortu zituzten. Galera horiek oso-osorik erregistratu ziren aurreko ekitaldietan eta horien zenbatekoa 49.587 mila eurokoa izan da aplikagarriak diren eguneratzeak kontuan hartu ondoren.

Aurreko guztiaren ondorioz, 2014ko abenduaren 31n, Sozietate nagusiak honi atxikitako 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko "Finantza-aktibo ez-korronteak - Kobratu beharreko maileguak eta kontu-sailak" izeneko epigrafean 432 mila euroko zenbateko gordina (1.226 mila euro 2013ko abenduaren 31n) du erregistratuta "eskubide" horientzat eta 2.122 mila euro "Beste finantza-aktibo korronte batzuk" epigrafean (5.202 mila euro 2013ko abenduaren 31n).

2014ko ekitaldian eskubideak saldu dira, haien kostu-balioa eta hornikuntza-balioa 6.084 mila eta 684 mila eurokoa zen gutxi gorabehera eta hurrenez hurren (10.355 mila eta 5.558 mila euro 2013an).

2014ko ekitaldian, Taldeak 203 mila euroko hornidura itzuli du erantsitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-tresnak besterentzeagatiko hondatzea eta emaitza" epigrafean ordainduta (1.036 mila euro 2013ko ekitaldian).

Konpromiso horrekin lotuta, Cartera Social, SA da CAF, SAren akzioen jabe bakarra. Hori dela eta, Sozietate nagusiko akziodun gisa dagozkion eskubide politiko eta ekonomiko guztiak ditu bere gain. Horrenbestez, CAF, SAK ez du Cartera Social, SAN sor daitezkeen irabazi eta galera ekonomikoen inguruko eskubiderik, betebeharrak edo arriskurik. Sozietate nagusiak, besterik gabe, prezio finkoan saltzeko konpromisoa du. Langileek aldiz, "eskubide" horiek eskuratzeko konpromisoa dute antzeko hileroko 84 epemuga berdinetan banatuta, Planaren faseetako bakoitza abian jarri den egunetik hasita. Aipatutako akzioak Cartera Social, SArenak izango dira 'eskubideak' erabili arte, eta eskubideak ezin dira erabili enplegatu bakoitzak CAF, SArenak izango duen lan-harremana bukatu baino lehen. Epe horretan, Cartera Social, SAK akzioen jabetza aipatutako eskubideak erosteko CAF, SAK ordaindutako zenbatekoarekin finantzatu du batez ere.

2014ko abenduaren 31n, Cartera Social SAK CAF SAren 915.828 akzio ditu, haren kapitalaren % 26,72ri dagozkienak (14. oharra). 2013ko abenduaren 31n, 996.617 zituen, kapitalaren % 29,07.

#### Epe luzerako administrazio publikoak

Taldeak, 2014ko abenduaren 31n, "Finantza-aktibo ez-korronteak - Kobratu beharreko maileguak eta kontu-sailak" izeneko epigrafean 53.488 mila euroko zenbatekoa du erregistratuta atzerriko administrazio publikoekin kobratu beharreko kontzeptu gisa, balio erantsiaren gaineko zergarekin lotuta (52.824 mila euro 2013ko abenduaren 31n). 2014 ekitaldian, Taldeak Brasilgo administrazio publikoen aurrean hornitutako saldoak egiaztatzeko ekintzak egin ditu, eta horien ostean 11.004 mila euroko zenbatekoa itzuli da (11.615 mila euroko hornidura 2013an) erantsitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Ibilgetua besterentzearen kaltea eta eragina" epigrafean, zerga horiek berreskuratzeari dagokionez Administrazioek egindako kalkulu onenen arabera.

#### Epe luzerako bezeroak

Epe luzerako bezeroek sartuta dute epe luzera kobratu beharreko 7.949 mila euroko eta epe laburrerako 1.044 mila euroko kontu bat (8.813 mila euro eta 985 mila euro hurrenez hurren 2013ko abenduaren 31n), material mugikorraren finantza-errentamenduko kontratu bati dagokiona. Guztira, 10.570 mila euro ordaindu behar dira eta Taldeak errentamenduari dagozkion hileroko kuotas jasoko ditu, modu iraunkorrean, 120 hilabetez. 2014an 1.500 mila euro jaso dira eta 695 mila euro erregistratu dira honi atxikitako galeren eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-sarrera" epigrafean, eragiketako interes-tasa inplizituarekin (3.n. oharra) (1.375 mila eta 754 mila euro hurrenez hurren, 2013ko ekitaldian).

Gainera, 2013ko abenduaren 31n, finantza-zailtasunak zituzten taldetik kanpoko hirugarrenekin kobratu beharreko kontuetako 21.429 mila euro ere sartzen ziren, batez ere Administrazio Publikoetakoak, eta horregatik birsailkatu zen kontu hori epe luzera kobratzeko, eta 799 mila euroko hornidura erregistratu zen. 2014ko ekitaldian, Taldeak 17.777 mila euroko zenbatekoa kobratu du epe luzerako kalkulaturako epeko kredituetatik eta kobratzeke zegoenaren zati bat epe laburrera birsailkatu du, eta hala, hornidura kendu du. Ekitaldi bakoitzaren amaieran, hornitutako zenbatekoen arteko aldea honi atxikitako 2014ko emaitzen kontu bateratuaren "Finantza-sarrerak" epigrafean dago erregistratuta (3.d. eta 12. oharra).

2010eko martxoaren 19an, Taldearen Ctrens-Companhía de Manutenção, SA sozietateak eta Companhia Paulista de Trens Metropolitanos (CPTM) enpresak 20 urterako emakida-kontratu bat sinatu zuten 36 tren fabrikatzeko eta alokairu-zerbitzuak emateko, prebentziorako mantentze-lanak, zuzenketak eta berrikuspenak egiteko eta Sao Pauloko (Brasil) 8. lineako (Diamante) flota modernizatzeko.

Hona hemen akordioaren ezaugarriak, aipatutakoez gain:

- Kuotas CPTMk bermatzen ditu. Sozietate emakidadunak gutxienezko kapitala izateari buruzko baldintzak bete beharko ditu, balio absolutuan eta aktiboaren portzentajea aintzat hartuta.
- Sozietate emakidadunak bankuko fidantza bidez CPTMrekin dituen betebeharrak behar bezala betetzen dituela bermatzen du (25.a. oharra); horretarako, 2014ko abenduaren 31n 30.673 mila errealetera igo du (9.524 mila euro).

– Emakidari lotutako eta emakidadunak kontratuko zerbitzuak eskaintzeko eskuratutako, ekoiztako edo ezarritako ondasun guztiak, ondasun kapitalak izan ezik, CPTMri itzuliko zaizkio emakida amaitzean eta ez da ordainik emango.

2010eko maiatzaren 31n, Grupo Provetren, SA de CV eta Garraio Kolektiboaren Sistemak (STC) 15 urterako kontratu bat sinatu zuten Mexiko Hiriko metroko 12. linearako 30 tren eraikitzeko eta horien alokatze-zerbitzua emateko, mantentze-lanak eta azterketa orokorrak egiteko.

Hona hemen akordioaren ezaugarriak, aipatutakoez gain:

- Komunikazio eta Garraio Idazkaritzak ordaindu beharreko kuotak, fideikomiso-sistema baten bidez subsidiarioki bermatuta daude, Partaidetza Federalen soberakinetatik eratorritako funtsekin.
- Sozietate emakidadunak abian den urtean jasotzea aurreikusitako ordainketen % 10eko banku-fidantza bidez bermatzen du STCren aurrean dituen betebeharrak beteko dituela (25.a. oharra).
- Emakidari lotutako eta emakidadunak kontratuko zerbitzuak eskaintzeko eskuratutako, ekoiztako edo ezarritako ondasun guztiak, ondasun kapitalak izan ezik, Komunikazio eta Garraio Idazkaritzari itzuliko zaizkio emakida amaitzean eta ez da ordainik emango.

Emakida horien erregistroa 12. FINAIB "Zerbitzuak emateko akordioak" araua aplikatuta egiten da, horretarako baldintzak betetzen baitira. Arau horrek xedatutakoari jarraiki, eskaintako jarduerak bereizi ditugu: eraikuntza, operazioa/mantentze-lanak eta finantzaketa.

Ondorioz, Taldeak aktibo ez-korronteko "Maileguak eta kobratu beharreko kontuak" eta aktibo korronteko "Beste zordun batzuk" epigrafeetan 554.352 mila eta 114.981 mila euroko saldoak erregistratu ditu hurrenez hurren 2014ko abenduaren 31n (523.972 mila euro eta 122.902 mila euro 2013ko abenduaren 31n) ordura arte egindako zerbitzuen prestazioari eta eraikuntza-jarduerarekin lotuta (egindako fakturazioarekiko zenbateko garbia). 2013an eraikuntza-jarduerarekin lotuta egindako inbertsioa 21.978 mila eurokoa izan zen, eta ez da inbertsiorik izan 2014an.

2011ko lehen seihilekoan hasi ziren, batez ere, alokairuaren eta mantentze-lanen zerbitzuak eskaintzen 8. linearen (Brasil) kasuan eta 2012ko bigarren seihilekoan 12. lineakoak (Mexiko).

Bi kontratu horietan, kuoten arabera etorkizuneko fluxuak erabat zehaztuta eta bermatuta daude hasien hasierako sinadura-UNETIK. Kuotetan aldakorra izan daitekeen zenbateko bakarra bezeroen esku jarritako tren-materialaren betekizun teknikoarekin lotuta gerta daitezkeen zigorrena da modu eskusiboan. Alderdi hori kontuan izan dugu jaso beharreko fluxuak zehazteko garaian. Ez dago kontratu horietan CAF Talderako demanda-arriskurik; izan ere, ez daude bidaiarien afluentziaren arabera jaso beharreko finantza-fluxuekin lotuta.



## 10. ALDERDI ELKARTUEKIN DITUGUN SALDOAK ETA ERAGIKETAK

Hau da sozietate elkartuekin egin diren eta bateratze-prozesuan kendu ez diren transakzioen xehetasuna (2.f. oharra):

Mila euro						
Sozietatea	2014			2013		
	Emandako zerbitzuak edo erregistratutako salmentak	Jasotako zerbitzuak edo erregistratutako erosketak	Finantza sarrerak	Emandako zerbitzuak edo erregistratutako salmentak	Jasotako zerbitzuak edo erregistratutako erosketak	Finantza sarrerak
Plan Metro, SA	7.590	-	2.788	4.868	-	-
Consortio Traza, SA(*)	592	-	-	2.235	-	-
Ferrocarriles Suburbanos, SA de CV	10.822	38	-	12.234	38	-
Tumaker, SL	200	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>19.204</b>	<b>38</b>	<b>2.788</b>	<b>19.337</b>	<b>38</b>	<b>-</b>

(\*) S.E.M. Los Tranvías de Zaragoza, SA izeneko partaidetutako sozietatearekin egindako transakzioak biltzen ditu.

Sozietate elkartuekin egindako eragiketetan sortutako marjinak behar bezala kendu dira bateratze-prozesuan, haien partaidetza-ehunekoaren proportzio berean (9.a. oharra).

Ekitaldi honetako eragiketen, aurreko urteetan egindakoen eta emandako aurrerakinen ondorioz, Taldeak integrazio osoaren arabera bateratu gabeko partaidetutako sozietateekin zituen saldo nagusiak hauek ziren 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n (2.f. oharra):

Mila euro								
Sozietatea	14/12/31				13/12/31			
	Kobratu beharreko kontuak	Ordaindu beharreko kontuak	Aurrerapen mailako aurrerakin garbiak	Epe luzerako maileguak (9.e oharra)	Kobratu beharreko kontuak	Ordaindu beharreko kontuak	Aurrerapen mailako aurrerakin garbiak	Epe luzerako maileguak (9.e oharra)
Plan Metro, SA (9.e oharra)	2.555	-	(7.132)	19.111	2.726	-	(8.096)	16.067
Sociedad de Economía Mixta los Tranvías de Zaragoza, SA	-	-	-	-	9.746	-	-	-
Ferrocarriles Suburbanos, SA de CV	516	11	-	-	5	4	-	-
Tumaker, SL	42	-	-	-	-	-	-	-
	<b>3.113</b>	<b>11</b>	<b>(7.132)</b>	<b>19.111</b>	<b>12.477</b>	<b>4</b>	<b>(8.096)</b>	<b>16.067</b>

2011ko ekitaldian, Inversiones en Concesiones Ferroviarias, SA mendeko sozietateak Plan Metro, SA sozietateari 15.104 mila euro aurreratu zizkion, hark aldi bateko hainbat finantza-konpromisori aurre egin ziezaien azken bezeroak ordainketen profileen aldaketa egin zuelako. Kreditu hori ez dago inbertsio garbian sartuta; izan ere, epemuga du ezarrita eta kobratu ahal izateko behar adinako bermeak ditu. Haren bezeroak ordainketetan atzerapenak izan zituenez, elkartutako enpresa horrek finantza-eredua egoera berrietara egokitzeko negoziazioak egin zituen finantza-entitateekin 2013ko ekitaldian. Negoziazioetatik ateratzen den egoeran CAF Taldeak aurreratutako dirua berreskuratuko dutela espero dugu. Era berean, Taldeak akordioa lortu du Plan Metro SArekin. Horri esker, goian aipatutako kontratuak interpretazioak armonizatu ditu eta kredituak sortutako interesengatik 2.788 mila euroko zenbatekoa duen finantza-sarrera erregistratu dute, erantsitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-sarrerak" epigrafean.

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzeko "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk – Beste zordun batzuk" epigrafean Cartera Social SAK kobratu beharreko kontu bat sartzen da, 880 mila euroko zenbatekoa duena. 2014 ekitaldian bertan behera utzi da Cartera Social SAK 2013ko abenduaren 31n osorik zuen 24.500 mila euroko kreditu-kontua. Kreditu horrek 321 mila euroko interesak sortu ditu erantsitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-sarrerak" epigraferako (771 mila euro 2013an), 2013ko abenduaren 24an sinatutako urteko kontratuan ezarritako merkatuko baldintzen arabera.

## 11. ERAIKUNTZAKO KONTRATUAK ETA IZAKINAK

Hauxe da izakinen osaera 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n:

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
Lehengaiak eta beste hornikuntza batzuk, bidean, amaituta eta erdi amaituta dauden produktuak (21. oharra)	149.513	129.605
Hornitzaileei emandako aurrerakinak	30.991	30.252
<b>Guztira</b>	<b>180.504</b>	<b>159.857</b>

2014ko abenduaren 31n, 401.882 mila euro inguruko lehengai-erosketen konpromiso irmoak zituen Taldeak gutxi gorabehera (26. oharra) (2013ko abenduaren 31n, 453.427 mila euro).

Sozietate bateratuek, izakinak behar bezala estaltzeko, aseguru-polizak kontratatuzko irizpideari jarraitzen diote. 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, egun horretan izakinek zuten kontabilitate-balio garbia estaltzen zuten aseguru-polizek.

3.e oharrean azalduta dagoen moduan, Taldeak ekitaldian sortutako eta urtebete baino gehiagoko produkzio-zikloa duten izakinekin lotura duten finantza-gastuak kapitalizatzen ditu. Arrazoi hori dela eta kapitalizatutako zenbatekoa, 2014ko eta 2013ko ekitaldietan salmentagatik emaitzetara egindako egozpena kontuan hartu gabe, 2.817 mila eurokoa eta 1.756 mila eurokoa izan da hurrenez hurren.

### Eraikuntzako kontratuak

Sortutako kostuetan eta aitortutako irabazietan metatutako zenbatekoa (aitortutako dagozkion galerak kenduta) eta 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n jasotako aurrerakinen zenbatekoa honako hau da:

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
Geroraturako fakturazioa (aktiboa) (3.g. eta 12. oharrak)	818.730	672.451
Aurretiatzko fakturazioa (pasiboa) (3.g. oharra)	(203.196)	(156.421)
<b>Garbia</b>	<b>615.534</b>	<b>516.030</b>
Sortutako kostuak gehi aurrerapen mailaren arabera aitortutako irabaziak eta galerak	2.278.578	1.525.742
Aurrerakinak aintzat hartu gabe egindako fakturazioa	(1.459.848)	(853.291)
Jasotako aurrerakinak	(203.196)	(156.421)
<b>Garbia</b>	<b>615.534</b>	<b>516.030</b>

### 12. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK

Honela zegoen osatuta zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontuen epigrafea 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n:

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
Bezeroak, eurotan	612.395	710.296
Atzerri-monetako bezeroak (3.h. oharra)	497.610	333.512
Hondatzeagatik hornidurak (3.d. oharra)	(2.999)	(3.232)
<b>Guztira</b>	<b>1.107.006</b>	<b>1.040.576</b>

Kobratzeko saldo horiek aurrerapen maila onartzearen ondorioz sortu dira batik bat, 3.f oharrean azaldu dugunez. Saldo horien zati bat (% 26 inguru 2014an; 2013n, % 35) bezeroei fakturatu zitzaizkien. Gainerakoa "Fakturatzeko dagoen egindako ekoizpena" (11. oharra) epigrafeari dagokio, haren saldo nagusia, 137.235 mila eurokoa (2013an 136.583 mila euro) Caracaseko Metroarekin egindako kontratu bati dagokio, eta hura kobratzea aseguru-poliza baten eta hornidura baten bidez estalita dago (20. oharra). Saldo nagusiak eurotan izan dira.

2014ko abenduaren 31n, kobratu gabe zeuden fakturatutako saldoen % 45 bost bezero nagusiri zegokien (2013ko abenduaren 31n % 41). Bezeroen saldoak atxikipenak zituen kobrantzetan 2014ko abenduaren 31n, 1.126 mila eurokoak (6.808 mila euro 2013ko abenduaren 31n).

"Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk" kontu-sailean 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n mugaeguneratutako saldoen zenbatekoa honako hau da, ez-korrante moduan sailkatutako kontuak barne (9.e. oharra):

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
Mugaeguneratuak > 90 egun	14.591	31.234
Mugaeguneratuak > 180 egun (*)	77.868	115.066
<b>Guztira</b>	<b>92.459</b>	<b>146.300</b>

(\*) Atal horretan, bezeroek egindako fakturen gaineko atxikipeak daude bilduta.

Horiek banaka aztertu ondoren, CAF Taldearen ustez, 2014ko eta 2013ko abenduaren 31ko 2.999 mila eta 3.232 mila eurok dute, hurrenez hurren, kobratu gabe geratzeko arriskua. Bestalde, egin dira jada narriaduragatiko hornidurak. 2014ko eta 2013ko ekitaldietan, kobratu gabeko kontuetako narriaduragatiko horniduraren mugimendu garbiak, eguneraketa-eragina dela eta 9. oharrean zehaztutakoaren osagarriak, atxikitako emaitzen kontu bateratuko "Ustiapeneko beste gastu batzuk" epigrafean erregistratutako 894 mila eta 1.586 mila euroko hornidura eragin du hurrenez hurren eta gutxi gorabehera.

### 13. BESTE FINANTZA-AKTIBO KORRANTE BATZUK

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n hau zen epigrafe honen zehaztapena:

#### 2014ko ekitaldia

Finantza-aktiboak: Izaera/kategoria	Mila euro				
	Kobratu beharreko maileguak eta kontu-sailak (9.e oharra)	Mugaegunera arte gordetako inbertsioak	Negoizatzeko mantendutako finantza-aktiboak (3.d. oharra)	Estalduratik eratorriak (17. oharra)	Guztira
Finantza-eratorriak	-	-	-	27.350	27.350
Beste finantza-aktibo batzuk	3.122	41.455	52.018	-	96.595
<b>Epe laburra/korronteak</b>	<b>3.122</b>	<b>41.455</b>	<b>52.018</b>	<b>27.350</b>	<b>123.945</b>

#### 2013ko ekitaldia

Finantza-aktiboak: Izaera/kategoria	Mila euro				
	Kobratu beharreko maileguak eta kontu-sailak (9.e oharra)	Mugaegunera arte gordetako inbertsioak	Negoizatzeko mantendutako finantza-aktiboak (3.d. oharra)	Estalduratik eratorriak (17. oharra)	Guztira
Finantza-eratorriak	-	-	-	34.401	34.401
Beste finantza-aktibo batzuk	6.194	4.749	52.359	-	63.302
<b>Epe laburra/korronteak</b>	<b>6.194</b>	<b>4.749</b>	<b>52.359</b>	<b>34.401</b>	<b>97.703</b>

“Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak” eta “Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak” ataletan, diruzaintzako soberakinak zor publikoan, berrerosketetan, epe laburreko gordailuetan, epe finkoko ezarpenetan, merkatuko ordaindukoetan eta errenta finkoko inbertsio-funtsetan sartuta daude. Epe laburrerako inbertsioak dira; horien emaitzak honi atxikita azaltzen den galera eta irabazien kontu baterako “Finantza-sarrerak” epigrafean ordainduta erregistratzen dira. 2014ko eta 2013ko ekitaldietan, Taldeak 5.205 mila eta 7.532 mila euroko sarrerak erregistratu ditu kontzeptu horregatik hurrenez hurren.

## 14. ONDARE GARBIA

### a) Sozietate nagusiaren kapital soziala

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, 3,01 euroko balio nominaleko 3.428.075 akzioz osatuta zegoen kapital soziala. Akzio horiek kontu-idazpen bidez ordezkaturak eta guztiak harpidetuta eta ordainduta zeuden (guztiak Burtsan kotizatzen dute).

Sozietate nagusiaren kapital sozialaren % 3 baino gehiago zuten sozietateak edo erakunde akziodunak hauek ziren 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n:

	Partaidetzaren %, 2014an	Partaidetzaren %, 2013an
Cartera Social SA (9. oharra) (*)	26,72	29,07
Kutxabank, SA	19,06	19,06
Caixabank, SA	-	3,01
Norges Bank	-	3,34
Templeton Investment Counsel, LLC.	3,03	3,03

(\*) Sozietate honetako akziodunak Sozietate nagusiko enpleguak dira (9. oharra).

2013ko ekainaren 8an, Sozietate nagusiko Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrean ahalmena eman zitzaion Administrazio Kontseiluari kapital soziala behin edo gehiagotan handitzeko akzio berriak jaulkita eta diru-ekarpenetan zordunduta bost urteko eperako eta kapital sozialaren erdira arte. Urteko kontu hauek formulatzeko garaian, ez da akordio horretatik inolako kapital-gehikuntzarik egin.

2010eko ekainaren 5ean, data horretatik aurrera bost urteko epean akzio propioak erosteko ahalmena eman zion Sozietate nagusiko Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak administrazio-kontseiluari. Urteko kontu hauek egin diren datan, ez da akordio horren bidezko akziorik erosi.

### b) Jaulkipen-prima

Jaulkipen-primaren saldoa eskuragarri dago erabiltzeko muga espezifikorik ez dagoen neurrian.

### c) Birbalorizazio-erreserba

Hau da erreserba horrek 2014 eta 2013 ekitaldietan izan duen zenbatekoa:

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
Aktibo materialen birbalorizazioa:		
Lurrak (FINA)	30.418	30.418
9/1983 Legearen arabeko eguneratzea	-	7.954
13/1991 Foru Dekretuaren arabeko eguneratzea	-	11.379
11/1996 Foru Arauaren arabeko eguneratzea	8.701	8.701
<b>Guztira</b>	<b>39.119</b>	<b>58.452</b>

#### 9/1983 Legearen eta 13/1991 Foru Dekretuaren arabeko eguneratzea

Indarrean den araudiaren arabera, kontu horietako saldoa erabilera librekoa da, beraz, 2014ko ekitaldian, sozietate nagusiak borondatezko erreserbetara intsuldatu du.

#### 11/1996 Foru Arauaren arabeko eguneratzea

Saldo hau kontabilitate-emaizta negatiboak berdintzeko, kapital soziala zabaltzeko edo bana ezin daitezkeen erreserbetara eramateko erabil daiteke, aplikatu gabeko kontuaren saldoari dagokionez. Kontu horren saldoa 11/1996 Foru Arauan aurrez ikusita ez bezala erabiliko balitz, saldo horri dagozkion zergak ordaindu egin beharko lirarteke.

### d) Legezko erreserba

Kapital-sozietateen Legearen Testu Bateratuaren arabera, ekitaldiko irabaziaren % 10 eraman behar da legezko erreserbetara, horiek kapital sozialaren % 20 izan arte. Legezko erreserba dagoeneko gehitu den kapitalaren % 20tik gora dagoen zenbatekoari dagokion kapitala handitzeko erabil daiteke. Aipatutako helburu horretarako izan ezik eta kapital sozialaren % 20 gainditzen ez duen bitartean, erreserba hori galerak berdintzeko bakarrik erabili ahal izango da, eta betiere horretarako erabil daitezkeen behar adinako beste erreserbarik ez badago. 2014ko eta 2013ko ekitaldien itxieran, erreserba hori erabat eratuta dago.

### e) Erreserba mugatuak eta eskuraezinak

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, 61.641 mila eta 45.338 mila euroko erreserbak zeuden, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren, bateratutako sozietateen banakako urteko kontuetan, legezko erreserban, balantzeak eguneratzeagatiko erreserban, produkzio-inbertsioetarako erreserban (2/2014 Foru Araua), kapitala amortizatzeagatiko erreserban eta abarretan, eta horiek ezinbesteko eta mugatutako izaera dute hurrenez hurren. Era berean, hainbat sozietatek finantzaketa-kontratuetatik eratorritako murriztapenak dituzte (16. oharra).

Mugatuak eta eskuraezinak dira, hurrenez hurren, erreserba horiek. Garapen-gastuen kontu-saila erabat amortizatu arte, debekatuta dago dibidenduak banatzea, erreserba erabilgarrien zenbatekoa amortizatu gabeko saldoen adinakoa, gutxienez, ez bada behintzat. 2014ko ekitaldiaren amaieran, beraz, 34.681 mila euroko erreserbak ez zeuden erabilgarri aipatutako arrazoiagatik (2013ko ekitaldiaren itxieran, 32.039 mila euro).

## f) Bihurketa-diferentziak

Hona hemen "Bihurketa-diferentziak" kontuaren banaketa, sozietate bakoitzaren arabera, 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n:

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
CAF México, SA de CV	(550)	(688)
CAF Brasil Industria e Comercio, SA	(17.787)	(18.381)
CAF Argentina, SA	(1.237)	(1.049)
CAF USA, Inc.	(89)	(23)
CAF Rail UK, Ltda.	(6)	(70)
CAF Chile, SA	30	(28)
Sefemex, SA de CV	(55)	(56)
Construcción, Mantenimiento, Ferrovías y Subsistemas, S.A. de C.V.	(571)	(563)
Corporación Trainemex, SA de CV	(15)	(17)
CAF Turquia, LS	(706)	(761)
CAF Argelia, EURL	(119)	(144)
CAF India Private Limited	(749)	(1.697)
Ctrens Companhia de Manutenção, SA	(48.312)	(49.785)
Trenes CAF Venezuela, CA	(619)	(171)
Provetren, SA de CV	597	2.744
CAF Sinyalizasyon Sistemleri Ticaret Ltd. Sirketi	(76)	(87)
CAF Rail Australia Pty, Ltd.	4	(3)
CAF Colombia, SAS	(144)	6
Sermantren, SA de CV	(2)	(2)
CAF Arabia, Co.	62	(5)
CAF New Zealand Ltd	8	(2)
Zhejiang Sunking Trainelec Traintic Electric Co, Ltd.	14	(3)
CAF Taiwan Ltd.	23	(4)
Urban Transport Solutions B.V.	(37)	-
<b>Guztira</b>	<b>(70.336)</b>	<b>(70.789)</b>

## g) Gutxiengoa duten akziodunak

Honekin batera doan egoera-balantze bateratuko "Ondare garbia – Interes minoritarioak" epigrafearen mugimendua eta osaera, 2014 eta 2013ko ekitaldietan, hau izan zen:

	Mila euro
<b>2012ko abenduaren 31ko saldoa</b>	<b>5.685</b>
Kanpoko bazkideei egotz dakiekeen irabazia	856
Bihurketa-diferentziak	(6)
Eremuan izandako aldaketa (2.f. oharra)	6.179
Dibidenduak	(2.465)
<b>2013ko abenduaren 31ko saldoa</b>	<b>10.249</b>
Kanpoko bazkideei egotz dakiekeen irabazia	2.450
Bihurketa-diferentziak	1
Eremuan izandako aldaketa	899
Dibidenduak	(895)
<b>2014ko abenduaren 31ko saldoa</b>	<b>12.704</b>

## h) Kapitalaren kudeaketa

Taldeko kapital-kudeaketaren xedea da kapital-kostua optimizatzeko finantza-egitura eraikitzea, betiere finantza-egoera sendoari eutsita. Politika horri esker, bateragarriak dira akziodunentzat balioa sortzea eta finantza-merkatuen kostu lehiakorrean jardutea, bai zorra birfinantzatzeko, bai negozio-funtsak estaltzen ez duen inbertsio-plana finantzatzeko.

CAF Taldeko administratzaileen iritziz, jarritako helburuak betetzearen adierazle da ahalik eta txikiena izatea matrizearekiko palanka-efektuaren maila. 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, zorraren zatirik handiena Brasilgo eta Mexikoko emakidari eta antzeko jardueri zegokien (3.u. eta 9.e. oharrak). Finantza-zor garbiaren zenbatekoaren eta ondare garbiaren arteko erlazioari deitzen zaio palanka-efektuaren maila:

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
<b>Finantza-zor garbia:</b>		
Itzuli beharreko aurrerakinak interesekin (15. oharra)	8.391	3.736
Kreditu-erakundeekiko zorrak – Pasibo ez-korrontea (16. oharra)	683.062	477.934
Kreditu-erakundeekiko zorrak – Pasibo korrontea (16. oharra)	158.039	232.705
Finantza-inbertsioak – Aktibo ez-korrontea (9.c. oharra)	(15.911)	(16.874)
Aldi baterako finantza-inbertsioak (13. oharra)	(93.473)	(58.149)
Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide	(197.111)	(127.150)
	<b>542.997</b>	<b>512.202</b>
<b>Ondare garbia:</b>		
Sozietate nagusiari esleitutakoa (14. oharra)	736.209	719.112
Interes minoritarioak (14. oharra)	12.704	10.249
	<b>748.913</b>	<b>729.361</b>

## 15. BESTE FINANTZA-PASIBO KORRONTE ETA EZ-KORRONTE BATZUK, ETA BESTE KONPROMISO BATZUK

Hona hemen Taldeak 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n zituen finantza-pasiboen banakapena, bakoitzaren izaeraren arabera sailkatuta, hobeto baloratzeko:

	Mila euro		
	14/12/31		
<b>Finantza-pasiboak: Izaera/kategoria</b>	<b>Ordaindu beharreko zorrak eta kontu-sailak</b>	<b>Estalduratik eratorritakoak</b>	<b>Guztira</b>
Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra)	683.062	-	683.062
Beste finantza-pasibo batzuk (estalduraren eratorririk gabe)	57.848	-	57.848
Estalduratik eratorriak (17. oharra)	-	18.557	18.557
<b>Epe luzerako zorrak / Finantza-pasibo ez-korronteak</b>	<b>740.910</b>	<b>18.557</b>	<b>759.467</b>
Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra)	158.039	-	158.039
Beste finantza-pasibo batzuk (estalduraren eratorririk gabe)	19.034	-	19.034
Estalduratik eratorriak (17. oharra)	-	27.699	27.699
<b>Epe laburrerako zorrak / Finantza-pasibo korronteak</b>	<b>177.073</b>	<b>27.699</b>	<b>204.772</b>
<b>Guztira</b>	<b>917.983</b>	<b>46.256</b>	<b>964.239</b>



Finantza-pasiboak: Izaera/kategoria	Mila euro		
	13/12/31		
	Ordaindu beharreko zorrak eta kontu-sailak	Estalduratik eratorritakoak	Guztira
Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra)	477.934	-	477.934
Beste finantza-pasibo batzuk (estalduraren eratorririk gabe)	64.561	-	64.561
Estalduratik eratorriak (17. oharra)	-	9.029	9.029
<b>Epe luzerako zorrak / Finantza-pasibo ez-korronteak</b>	<b>542.495</b>	<b>9.029</b>	<b>551.524</b>
Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra)	232.705	-	232.705
Beste finantza-pasibo batzuk (estalduraren eratorririk gabe)	21.193	-	21.193
Estalduratik eratorriak (17. oharra)	-	17.881	17.881
<b>Epe laburrerako zorrak / Finantza-pasibo korronteak</b>	<b>253.898</b>	<b>17.881</b>	<b>271.779</b>
<b>Guztira</b>	<b>796.393</b>	<b>26.910</b>	<b>823.303</b>

Hona hemen "Beste finantza-pasibo ez-korronte batzuk" delakoaren xehetasunak kontzeptuka:

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
Itzuli beharreko aurrerakinak	50.866	52.897
Langileekiko konpromisoak (3.l. eta 22. oharrek)	5.259	9.904
Beste pasibo batzuk (16. oharra)	1.723	1.760
<b>Guztira</b>	<b>57.848</b>	<b>64.561</b>

Beste finantza-pasibo ez-korronte batzuen hurrengo urteetarako epemugaren araberako xehetasuna honako hau da (mila eurotan):

2014		2013	
2016	11.502	2015	10.801
2017	10.407	2016	10.990
2018	10.185	2017	10.058
2019	5.094	2018	8.293
2020 eta hurrengoak	20.660	2019 eta hurrengoak	24.419
<b>Guztira</b>	<b>57.848</b>	<b>Guztira</b>	<b>64.561</b>

#### Itzuli beharreko aurrerakinak

Ikerketa eta Teknologia Sustatzeko Programengatik Zientzia eta Teknologia Ministerioak zenbait diru-laguntza eman dizkio Taldeari, ikerketa eta garapenerako proiektuak egiteko. Diru-laguntza horiek benetan kobratzean erregistratzen dira edo, hala badagokie, baterako proiektuaren koordinatzaileak kobratzen dituenean. Hauek izan dira laguntzak:

- Proiektu horien gastuen eta kostuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak.
- Itzuli beharreko aurrerakinak, interesik gabeko maileguetan (gehienetan). Hiru urteko gabealdia dute hasieran, eta hamar urtetik gorako epean amortizatzen dira.

Epe luzerako zatirako aipatu ditugun programa horiek 2014ko eta 2013ko ekitaldietan sortu dituzten mugimenduak (egungo balioaren arabera) hauek izan dira:

	Mila euro	
	Itzuli beharreko aurrerakinak	
<b>2012/12/31ko saldoa</b>	<b>56.472</b>	
Gehigarriak	6.400	
Epe laburrerako intsuldaketak	(9.975)	
<b>2013/12/31ko saldoa</b>	<b>52.897</b>	
Gehigarriak	6.157	
Erregularizazioak eta bestelakoak	1.979	
Epe laburrerako intsuldaketak	(10.167)	
<b>2014/12/31ko saldoa</b>	<b>50.866</b>	

Era berean, hartzekodunen saldo gisa itzuli beharreko aurrerakinengatik epe laburrera erregistratutako zenbatekoak hauek izan dira 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n hurrenez hurren: 17.136 mila eta 17.235 mila euro.

#### Langileekiko konpromisoak

Taldeak etorkizuneko konpromisoak erregistratuta ditu aurre-erretiroko planak harpidetuta dituzten langileekin (3.l oharra). Epe laburrerako konpromisoak atxikitako egoera-balantze bateratuko "Beste hartzekodun batzuk" epigrafean erregistratuta daude eta 2014ko abenduaren 31n 4.185 mila euroko zenbatekoa du (7.291 mila eurokoa 2013ko abenduaren 31n).

Era berean, Taldeak enplegu osteko prestazioen eta epe luzerako beste ordainketa batzuekin eta horiei estaldura ematera bideratutako aktibo atxikiekin lotuta bere gain hartutako konpromisoen egungo balioaren xehetasuna hauxe da 2014ko eta 2013ko ekitaldien itxieran (3.k. oharra):

	Mila euro	
	14/12/31	13/12/31
Hartutako konpromisoen uneko balioa	21.414	20.790
Ken - Aktibo atxikien arrazoizko balioa	(21.624)	(20.824)
<b>Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk – Beste hartzekodun batzuk</b>	<b>(210)</b>	<b>(34)</b>

Hartutako konpromisoek egun duten balioa aktuario independente adituek zehaztu dute. Zenbatekoak kuantifikatzeko, irizpide hauek aplikatu dituzte:

- Kalkulatzeko metodoa: "Proiektatutako kreditu-unitatea". Zerbitzu-urte bakoitza prestazioetarako eskubidea ematen duen unitate osagarriaren sortzailetzat hartzen du, unitate bakoitza bereizita aztertuta.
- Erabilitako aktuaritza-hipotesiak: inpartzialak eta elkarrekin bateragarriak. Oro har, kalkuluetan erabili dituzten aktuaritza-hipotesirik aipagarrienak hauek izan dira:

<b>Aktuaritza-hipotesiak</b>	<b>2014</b>	<b>2013</b>
Interes teknikoko tasa	% 3,20 (1)	% 4,41 (1)
Heriotza-tasaren taulak	PERM/F/2000P	PERM/F/2000P
Pentsioen berrikusketako urteko tasa	% 2	% 2
Erretiro adina	65-67	65-67

(1) Lehen 30 urteetan. Hortik aurrera % 1,15ean (2013ko ekitaldiaren itxieran erabilitako hipotesiaren arabera, % 2,42).

Aktibo atxikien arrazoizko balioa ekitaldiaren itxieran kalkulatu da. Horretarako, proiektatutako kreditu-unitatearen kalkulu-metodoa erabili da.

## 16. KREDITU-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK

Honekin batera doan egoera-balantze bateratuko epigrafearen osaera honako hau da:

	<b>Mila euro</b>			
	<b>14/12/31</b>		<b>13/12/31</b>	
	<b>Ez-korrontea</b>	<b>Korrontea</b>	<b>Ez-korrontea</b>	<b>Korrontea</b>
Maileguak eta finantza-erakundeeikiko kreditu-kontuak	683.062	154.151	477.934	228.727
Mugaeguneratzeko dauden sortutako interesak	-	3.888	-	3.978
<b>Guztira (15. oharra)</b>	<b>683.062</b>	<b>158.039</b>	<b>477.934</b>	<b>232.705</b>

39. NKA aplikatuta, kreditu-erakundeeikiko zorren zenbatekoak zuzenduta aurkeztu behar dira balantzean, maileguen irekiera eta formalizazioak eragindako kostuak jarrita, alegia.

9.e oharrean deskribatutako CPTMren trenen alokairu-eragiketari dagokionez, 2011ko maiatzaren 10ean, Ctrens-Companhia de Manutenção, SA (Ctrens) sozietate filialak Banco Nacional de Desenvolvimento Econômico e Social (BNDES) bankuarekin finantzaketa-kontratu bat sinatu zuen. Kontratuaren zenbatekoa, gehienez, Brasilgo 946.890 mila errealekoa zen. Maileguak sortzen duen interes-tasa TJLP (Taxa de Juros de Longo Prazo) gehi diferentzial bat da. Mailegu nagusia elkarren segidako 160 hilabetetan amortizatuko da eta lehen mugaeguna 2013ko urtarrila da. 2014ko abenduaren 31n, eskuragarri dagoen saldoa 805.064 mila Brasilgo errealekoa da, 249.972 mila euroren baliokidea, eta horietatik 235.232 mila eurok epe luzerako mugaeguna dute, eta 14.740 mila eurok, berriz, epe laburrekoa. Data horretan bertan, 2013an, saldoa 850.476 mila Brasilgo errealekoa zen, 261.096 mila euroren baliokidea, eta horietatik 247.101 mila eurok epe luzerako epemuga zuten, eta 13.995 mila eurok, berriz, epe laburrekoa.

Kontratu horrek Ctrens-Companhia de Manutenção, SA sozietatea mugatzen duten hainbat murriztapen-klausula ditu; besteak beste, banku-mailegu berriak eskuratzea, bermeak ematea, kapital-ordainketak egitea, dibidenduak banatzea eta 2013ko urtarriletik aurrera finantza-baldintza jakin batzuk betetzeko betebeharra. Baldintza horien artean dago Zor Zerbitzuaren Estalduraren Indizea (1,2tik gorakoa izan behar du) eta Gutxieneko Kapitalaren Egitura Formula (0,24tik gorakoa izan behar du).

Era berean, 2011ko ekainaren 15ean, sozietate filialak BNDESekin lagapen fiduziarioko kontratu bat sinatu zuen. Kontratu horren arabera, bermean lagatzen ditu CTRESNek CPTMrekin dituen kobrantza-eskubideak eta CPTMk filialarentzat emandako bermeak eta filialak CPTMri, sozietate nagusiari eta CAF Brasili eska diezaiokeen beste edozein zenbateko.

9.e. oharrean deskribatutako trenak epe luzera alokatzeko zerbitzuen kontratuari (PPS – 12. Linea) dagokionez, 2012ko abenduaren 7an, Provetren, SA de CV sozietate filialak BBVA Bancomer, SA, Banco Nacional de México, SA, Banco Santander (México) SA, Sumitomo Mitsui Banking Corporation eta Caixabank, SAK osatutako banku-sindikatu batekin epe luzerako finantzaketa-kontratu bat sinatu zuen, 300 milioi dolar estatubatuarrekoa. Maileguak sortutako interes-tasa LIBORen araberrakoa da. Interes-tasaren kurban gorabeherarik izan ez dadin, eta finantzaketa mota hauetan ohikoa den moduan, Provetrenek interes-tasaren estaldura-kontratu bat sinatu du finantzaketaren % 80rako eta epearen % 80rako (17. oharra).

Maileguaren zati nagusia hiru hilez behingo ondoz ondoko 39 kuotatan amortizatuko da eta kobrantzen profila PPSaren arabera doituko da. Lehen epemuga 2013ko urrikoa izango da. Amortizatutako kostuaren metodoaren arabera, 2014ko abenduaren 31n, finantza-pasiboa 207.069 mila dolarrekoa da, 170.562 mila euroren baliokidea, eta horietatik 150.448 mila eurok epe luzerako mugaeguna dute, eta 20.114 mila eurok, berriz, epe laburrekoa. 2013an, data berean, saldoa 255.070 mila dolarrekoa zen, 184.951 mila euroren baliokidea, eta horietatik 148.732 mila eurok epe luzerako mugaeguna zuten, eta 36.219 mila eurok, epe laburrekoa.

Kontratuak hainbat murriztaile ditu eta mugatu egiten dute Provetran, SA de CV; besteak beste, bankuko mailegu gehiago lortzeko, bermeak emateko, kapital-ordainketak egiteko, ratio jakin batzuetara iristen ez bada dibidenduak banatzeko eta 2013ko urritik aurrera finantza-baldintza jakin batzuk (horien artean Zor Zerbitzuaren Estaldura Indizea 1,15 baino altuagoa izatea) izateko mugak jartzen ditu.

Era berean, 2012ko abenduaren 7an, sozietate filialak Banco Invexekin fideikomiso-kontratu bat sinatu zuen. Fiduziazio gisa jokatu zuen eta BBVA Bancomer, SAK lehen fideikomisario gisa. Kontratu horren bidez, bermean lagatzen ditu Provetrenek PPSren pean dituen kobrantza-eskubideak, Interes Tasa Estaltzeko kontratutik eratorritako kobrantza-eskubideak, fabrikazio-eta mantentze-lanetako kontratuen kobrantza-eskubideak, BEZa berreskuratzeke edozein diru-sarrera eta aseguru-polizatik eratorritako zenbatekoak.

Ctrens-Companhia de Manutenção, SA eta Provetren, SA de CV filialen akzioak BNDESen eta lehen aipatutako banku-sindikatuaren alde pignoratuta daude, hurrenez hurren. Aipatutako epe luzerako bi finantzaketa-kontratueta mailegu-maileuek ez dute CAF Taldea osatzen duten sozietateetarako baliabiderik, baliabide teknikoetatik haragokorik behintzat.

2014ko ekitaldian, sozietate nagusiak 9 mailegu berri kontratatu ditu, Guztira 295.000 mila euroko zenbatekoarekin, eta 8 mailegu baliogabetu ditu 132.000 mila euroko zenbatekoarekin. Era berean, sozietate nagusiak 50.000 mila euroko mailegu bat berri zuen. Maileguak merkatuko baldintzetan kontratatu dira. Jarritako zenbatekoa, 200.000 mila euro, interes-tasa finkora erreferentziatuta daude (20.000 euro interes-tasaren swap bidez, 17. oharra) eta 145.000 mila euro Euriborrera erreferentziatutako interesa sortzen dutenak. 2014ko abenduaren 31n, eskuragarri dagoen saldoa, amortizatutako kostuaren metodoaren arabera, 280.478 mila eurokoa da epe luzera eta 63.750 mila eurokoa epe laburrera (2013ko abenduaren 31n, 70.000 mila euro epe luzera eta 112.000 mila euro epe laburrera).

2013ko ekitaldian, Sozietate nagusiak beste lau mailegu kontratatu ditu eta horien guztizko zenbatekoa 70.000 mila eurokoa izan da (epemuga epe luzerakoa). Era berean, sozietateak hiru mailegu berri zuen, Guztira 78.000 mila euroko zenbatekoarekin, eta beste bi mailegu kontratatu zituen 34.000 mila euroko zenbatekoarekin, epe laburreko epemugarekin. Mailegu horiek merkatuko baldintzetan kontratatu zituen eta Euriborrera erreferentziatutako interesa sortzen dute. Era berean, 2013ko abenduaren 31n, Sozietate nagusiak urtebete baino gutxiagoko epemuga zuten kreditu-lerroak erabili zituen. Horien zenbatekoa 53.295 mila eurokoa izan zen.

CAF Brasil Industria e Comercio SA mendeko sozietateak kreditu-erraztasunak ditu prest, zirkulatzaila finantzatzeko helburuz, 133.800 mila errealeko gutxi gorabeherako zenbatekoarekin, hau da, 41.544 mila euroren baliokidea (2013ko abenduaren 31n, 60.000 mila erreal), eta horietatik 12.420 mila eurok epe luzerako epemuga dute, eta 29.124 mila eurok, berriz, epe laburrekoa (6.140 mila euro epe luzera eta 12.332 mila euro epe laburrera 2013ko abenduaren 31n).

CAF USA Inc. mendeko sozietateak 2014an kreditu-lerroa izan du 30.000 mila dolarreko zenbatekoarekin (24.730 mila euro), epe laburreko epemugarekin eta zirkulatzailaren beharrak finantzatzera bideratuta.

6.177 mila euroko zenbatekoa duen gainerako finantza-zorretik, 1.693 mila eurok epe laburrerako epemuga dute (6.847 mila euro 2013ko abenduaren 31n eta horietatik 886 mila euro epe laburrera) eta mendeko sozietate ugari jasotako maileguz dagokie (merkatuko interes-tasa bati erreferentziatuta daude).

2013an, Sozietate nagusiak ikerketako eta garapeneko proiektu jakin batzuk finantzatzeko Euriborrera erreferentziatutako kreditu-lerroa kontratatu zuen 2015. urtera arte eta horren muga 125.000 mila eurokoa da. Kreditu hori finantza-ratio jakin batzuk betetzearen mende dago. 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, Sozietate nagusiak ez du kreditu-erraztasun horren inguruko zenbatekorik erabili.

Aurrez aipatutako kreditu-lerroaz eta aurreko ataletan aipatutako Taldeak egindako zorraz gain, Taldeko sozietateek erabili gabeko kreditu-erraztasunak dituzte 299.975 mila euroko zenbatekoarekin (148.112 mila euro 2013ko abenduaren 31n) erabili gabeko maileguen, kreditu-lerroen eta factoring forman prestatuta, horiek batez ere Euriborrera erreferentziatuta daude, merkatuko diferentziak bat gehituta.

Epe luzera begira kreditu-erakundeekin aurrez ikusitako zorren amortizazioak jarraian daude zehaztuta (mila eurotan):

	14/12/31		13/12/31
2016	71.242	2015	53.885
2017	72.076	2016	88.040
2018	62.381	2017	36.343
2019	237.975	2018	34.390
2020 eta hurrengoak	239.388	2019 eta hurrengoak	265.276
<b>Guztira</b>	<b>683.062</b>	<b>Guztira</b>	<b>477.934</b>

## 17. FINANTZA-TRESNA ERATORRIAK

Finantza-tresna deribatuak erabiltzen ditu CAF taldeak bere etorkizuneko jarduerak, eragiketek eta eskudiru-fluxuek jasaten duten arriskuez babesteko, truke-tasaren gorabeheraz, batik bat (5.a. oharra). Truke-tasarekiko babes moduan erabiltzen ditu CAF Taldeak deribatuak, haien aldaketek etorkizuneko kutxa-fluxuetan izan lezaketen ondorio negatiboa leuntzeko, salerosketak eta maileguak sozietate bakoitzak erabili ohi duen moneta ez den beste batean egiten direnean.

Era berean, integrazio globalaren metodoaren bidez integratutako hainbat sozietatek interes-tasen estaldura-kontratuak dituzte (5.a. oharra).

Hona hemen 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n bateratutako egoera-balantzean zeuden deribatuen (arrazoizko balioko estaldurakoak, gehienbat) balorazio-saldo garbien osaera:

## 2014ko ekitaldia

Salmentako deribatuak dibisan 2014/12/31n (arrazoizko balioa duen estaldura)	Epemuga (dibisan)		
	2015	2016	2017 eta hurrengoak
<b>Estaldurak:</b>			
Dolarraren truke-aseguruak (*)	421.624.251	96.014.491	135.817.996
Libra esterlinaren truke-aseguruak	4.903.048	89.463	-
Euroaren truke-aseguruak	31.493.289	-	-
Brasilgo errealaren truke-aseguruak	121.244.649	-	-
Koroa suediarretara trukatzeko aseguruak	253.221.468	31.664.353	-
Australiako dolarren truke-aseguruak	16.774.529	-	-
Zeelanda Berriko dolarraren truke-aseguruak	6.409.759	-	-
Turkiako liren truke-aseguruak	1.034.918	-	-
Taiwaneko dolarretako truke-aseguruak	1.546.385.865	77.422.500	-
Saudi Arabiako rialen truke-asegurak	595.270.630	9.944.560	-
Mexikoko pesoaren truke-aseguruak	394.308.394	1.854.650.000	-

(\*) CAF USA, Inc. eta Provetren sozietateetako inbertsio garbiaren estaldura sartzen da, 143.057 AEBko mila dolarretan.

Erosketako deribatuak dibisan 2014/12/31n (arrazoizko balioa duen estaldura)	Epemuga (dibisan)		
	2015	2016	2017 eta hurrengoak
<b>Estaldurak:</b>			
Dolarraren truke-aseguruak	7.913.422	1.800.000	700.000
Euroaren truke-aseguruak	36.794.294	-	-
Brasilgo errealaren truke-aseguruak	44.983.891	-	-
Mexikoko pesoaren truke-aseguruak	198.327.459	-	-
Libra esterlinaren truke-aseguruak	600.000	-	-

	Mila euro			
	Arrazoizko balioa		Eskudiru-fluxuak	
	14/12/31	13/12/31	14/12/31	13/12/31
<b>Estaldurak:</b>				
Dolarraren truke-aseguruak	(879)	11.713	-	-
Libra esterlinaren truke-aseguruak	140	94	-	-
Mexikoko pesoaren truke-aseguruak	103	(368)	-	-
Brasilgo errealaren truke-aseguruak	442	380	-	-
Suitzako frankoaren truke-aseguruak	(131)	(131)	-	-
Truke-aseguruak eurotan	986	3.950	-	-
Truke-aseguruak Australiako dolarretan	39	441	-	-
Truke-aseguruak koroa suediarretan	(157)	(176)	-	-
Leus errumaniarren truke-aseguruak	-	(56)	-	-
Truke-aseguruak Zeelanda Berriko dolarretan	(34)	7	-	-
Saudi Arabiako rialen truke-asegurak	(1.316)	(84)	-	-
Taiwaneko dolarren truke-aseguruak	(39)	914	-	-
Interes-tasen truke-aseguruak	(96)	-	(371)	-
<b>Balorazioa, itxieran (*)</b>	<b>(942)</b>	<b>16.684</b>	<b>(371)</b>	<b>-</b>

(\*) Zerga mailako eragina kontuan hartu aurretik.

## Maileguen epemugak (dibisatan)

Interes-tasen deribatuak (eskudiruaaren fluxuaren estaldura)	2015	2016	2017 eta hurrengoak
Swap Euribor	-	-	20.000.000 EUR
Cross-currency-swap CDI	63.800.000 BRL	-	-
Swap LIBOR	19.534.698 USD	20.206.653 USD	130.071.328 USD

## 2013ko ekitaldia

## Epemuga (dibisan)

Salmentako deribatuak dibisan 2013/12/31n (arrazoizko balioa duen estaldura)	2014	2015	2016 eta hurrengoak
<b>Estaldurak:</b>			
Dolarraren truke-aseguruak (*)	493.833.384	139.626.362	11.618.797
Libra esterlinaren truke-aseguruak	18.525.640	2.355.052	89.463
Euroaren truke-aseguruak	17.765.804	13.506.809	-
Brasilgo errearen truke-aseguruak	168.884.775	-	-
Korea suediarretara trukatzeko aseguruak	428.707.270	63.815.900	31.664.353
Australiako dolarren truke-aseguruak	22.931.513	15.441.320	-
Zeelanda Berriko dolarren truke-aseguruak	7.794.375	-	-
Leus errumaniarren truke-aseguruak	2.900.000	-	-
Kanadako dolarren truke-aseguruak	416.481	-	-
Taiwaneko dolarretako truke-aseguruak	1.303.011.183	876.064.543	-
Saudi Arabiako rialen truke-aseguruak	81.212.210	361.295.479	-

(\*) CAF USA, Inc. eta Provetren sozietateetako inbertsio garbiaren estaldura sartzen da, 98.138 AEBko mila dolarretan.

## Epemuga (dibisan)

Erosketako deribatuak dibisan 2013/12/31n (arrazoizko balioa duen estaldura)	2014	2015	2016 eta hurrengoak
<b>Estaldurak:</b>			
Dolarraren truke-aseguruak	30.512.719	1.810.394	-
Euroaren truke-aseguruak	34.059.205	-	-
Brasilgo errearen truke-aseguruak	43.040.891	-	-
Mexikoko pesoaren truke-aseguruak	257.066.278	91.943.459	-
Libra esterlinaren truke-aseguruak	500.000	-	-
Australiako dolarren truke-aseguruak	532.000	-	-
Zeelanda Berriko dolarren truke-aseguruak	454.898	-	-

2014ko eta 2013ko ekitaldien amaieran, SEM Los Tranvías de Zaragoza, SA sozietate elkartuak (9.a. oharra) hainbat finantza-truke zituen kontratatuta, finantza-zorren nominalarekin lotuta. Finantza-truke horiek eskudiru-fluxuen estaldurarako tresna gisa izendatu dira interes-tasaren arriskuagatik eta Taldeari dagokion balorazioa efektu fiskalaren 5.850 mila euro garbikoa zen 2014ko abenduaren 31n (2.886 mila euro 2013ko abenduaren 31n). Zenbateko hori 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuko "Ondare garbia – Balio-aldaketak eragindako doiketak – Estaldura-eragiketak" epigrafean sailkatu da.

Estaldura-tresnaren epemuga bat dator eskudiru-fluxuak gertatzea aurrez ikusitako ekitaldiarekin.

2014ko ekitaldian, galera eta irabazien kontu bateratuan zordundutako eta egindako estaldura-eragiketen eraginkortasunik gabeko zatiari dagokion eraginak 391 mila euroko zenbatekoa duen gastua sortu du (2013ko gastua 26 mila eurokoa izan zen).

Horrez gain, arrazoizko balioaren deribatuen balioak izan duen likidazioak eta aldaketak 4.069 mila euroko sarrera eta 3.886 mila euroko gastua eragin dute 2014ko eta 2013ko ekitaldietan; zenbateko horiek estalitako kontu-sailen balioak jasan duen aldaketaren antzekoak dira.

Taldean estalitako kontu-sailak (Merkatuko Arriskuei buruzko 5.a. oharrean zehaztutakoaren arabera) kontratu komertzial bakoitzean bildutako dibisan egindako eragiketak izan dira. Estalduren kontratazioko hasierako unean, eragiketa horiek konpromiso irmo (kasu horretan, arrazoizko balioa duten estaldura gisa erregistratzen dira) edo gertatzeko probabilitate maila altuko transakzio gisa (kasu horretan, eskudiru-fluxuaren estaldura gisa erregistratzen dira) osatzen dira.

## 18. ZERGA KORRONTEAK ETA GERORATUAK

2014ko abenduaren 31n, ikuskapenerako irekita zeuden batez ere azken lau ekitaldiak CAF Taldea osatzen duten sozietateetako jarduerari dagozkion zerga nagusiekin lotuta.

Sozietate nagusiak, 2007ko ekitalditik, Gipuzkoako lurralde historikoan ordaintzen ditu zergak Kontsolidazio Fiskaleko Erregimenean mendeko sozietate jakin batzuekin batera.

Taldearen kontabilitateko emaitzaren eta Sozietateen gaineko Zergari dagokion gastuaren arteko berdinkatzea hauxe da:

	Mila euro	
	2014	2013
<b>Zergen aurreko kontabilitateko emaitza</b>	<b>80.456</b>	<b>114.299</b>
Matrizearen zerga-tasa	28%	28%
<b>Sozietateen gaineko zerga, matrizearen zerga-tasaren arabera kalkulatuta</b>	<b>22.528</b>	<b>32.004</b>
Filialen zerga-tasa ezberdinak eragindako efektua	3.817	3.785
Salbuetsitako sarrerek eta fiskalki deduzigarriak ez diren gastuek eragindako efektua	2.018	1.723
Ekitaldian erregistratutako dedukzioen eta zerga mailako beste laguntza batzuek eragindako efektu fiskala	(10.760)	(6.879)
Aurreko ekitaldietan onartu edo erregistratu gabeko geroratutako zergek edo zerga-kredituek eragindako efektu fiskala	390	(3.779)
Zerga-kredituen hondatzeek eta zerga geroratuek eragindako efektu fiskala	400	110
Ekitaldian onartutako doikuntzak aurreko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergarekin lotuta Aurreko ekitaldietako sozietateen zerga	(74)	455
Zerga-tasan gertatu diren aldaketak	8	(2)
NF 1/2013 balantzeen eguneraketa-eragina	-	(4.155)
<b>Galera eta irabazien kontu bateratuan onartutako zergak eragindako gastua, Guztira (sarrera)</b>	<b>18.327</b>	<b>23.262</b>
<b>Zerga korronteak eragindako gastua (sarrera) (*)</b>	<b>14.175</b>	<b>19.861</b>
<b>Zerga geroratuak eragindako gastua (sarrera)</b>	<b>4.152</b>	<b>3.401</b>

(\*) Aurreko ekitaldietako sozietateen gaineko zergak eta doikuntzak biltzen ditu.

Egotzitako zerga-kargaren eta, ekitaldi horretan, atxikitako egoera-balantze bateratuko aktiboaren edo pasiboaren "geroratutako zerga aktiboak" eta "geroratutako zerga pasiboak" epigrafeetan dago erregistratuta.



Honakoa da saldo horien osaera eta mugimendua:

	Mila euro				
	13/12/31	Gehigarriak	Bajak	Bihurketa-diferentziak	14/12/31
<b>Geroratutako zerga aktiboak:</b>					
Aplikatu gabeko deduzioak eta zerga-oinarri negatiboak (3.m. eta 9. oharra)	76.648	42.653	(20.070)	5.680	104.911
Denboran deduzigarriak ez diren hornidurak	77.900	8.819	(36.825)	754	50.648
Partaidetzen Plana (9. oharra)	248	-	(248)	-	-
NF 1/2013 balantzeen eguneraketa-eragina	4.393	-	(675)	-	3.718
Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk	3.094	1.525	(43)	(11)	4.565
	<b>162.283</b>	<b>52.997</b>	<b>(57.861)</b>	<b>6.423</b>	<b>163.842</b>
<b>Geroratutako zerga pasiboak:</b>					
Amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua (7., 8. eta 9. oharra)	105.581	6.930	(9.589)	9.504	112.426
Zorroko hornidurak	25.110	-	-	-	25.110
Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra)	-	-	(61)	-	(61)
Lurren birbalorazioa (14. oharra)	11.829	-	-	-	11.829
Salmentarako eskuragarri dauden aktiboak	134	-	(134)	-	-
Merkataritza Funtza	362	1	-	-	363
Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk	4.004	415	(1.514)	(146)	2.759
	<b>147.020</b>	<b>7.346</b>	<b>(11.298)</b>	<b>9.358</b>	<b>152.426</b>

	Mila euro				
	12/12/31	Gehigarriak	Bajak	Bihurketa-diferentziak	13/12/31
<b>Geroratutako zerga aktiboak:</b>					
Aplikatu gabeko deduzioak eta zerga-oinarri negatiboak (3.m. eta 9. oharra)	19.798	67.944	(8.692)	(2.402)	76.648
Denboran deduzigarriak ez diren hornidurak	78.707	26.131	(24.016)	(2.922)	77.900
Partaidetzen Plana (9. oharra)	2.095	-	(1.847)	-	248
NF 1/2013 balantzeen eguneraketa-eragina	-	4.393	-	-	4.393
Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk	1.475	1.842	-	(223)	3.094
	<b>102.075</b>	<b>100.310</b>	<b>(34.555)</b>	<b>(5.547)</b>	<b>162.283</b>
<b>Geroratutako zerga pasiboak:</b>					
Amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua (7., 8. eta 9. oharra)	41.426	79.450	(8.707)	(6.588)	105.581
Zorroko hornidurak	25.110	-	-	-	25.110
Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra)	(26)	26	-	-	-
Lurren birbalorazioa (14. oharra)	11.829	-	-	-	11.829
Salmentarako eskuragarri dauden aktiboak	-	134	-	-	134
Merkataritza Funtza	358	4	-	-	362
Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk	5.586	-	(1.591)	9	4.004
	<b>84.283</b>	<b>79.614</b>	<b>(10.298)</b>	<b>(6.579)</b>	<b>147.020</b>

Taldeak, 2014ko ekitaldian, 9.057 mila euroko zenbatekoa duten dedukzioak egiaztatzea aurrez ikusi du (15.298 mila euro 2013ko ekitaldian). Horiek, batez ere, I+G arloko dedukzioen eta zerga bikoitzagatiko kenkarien ingurukoak dira. 2014ko zergaren aurreikuspenaren ostean aplikatu gabeko kenkarien zenbatekoa 72.683 mila eurokoa da (60.723 mila euro 2013ko ekitaldian); horietatik 31.052 mila euro (sozietate nagusiaren Talde fiskalarenak batez ere) "Zerga geroratuengatiko aktiboak - Aplikatu gabe dauden dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak" epigrafean erregistratuta daude (19.903 mila euro 2013ko ekitaldian). Aktibatutako konpentsatu gabeko zerga-oinarri negatiboen zenbatekoa 73.859 mila eurokoa da 2014ko abenduaren 31n (56.745 mila euro 2013ko ekitaldian), zenbateko horiek batez ere sozietate nagusiaren Talde fiskalari dagozkio 28.948 mila euroko zenbatekoarekin eta 43.183 mila euro Provetren, SA de CVri dagozkio. Horien jatorria aktiboaren zati handiaren amortizazio fiskal bizkortua izan da, Ingurumena Babesteko Prokuradoretza Federalak (PROFEPA) emandako ingurumenarekiko errespetuzko ondasunen ziurtapenaren ondorioz. Era berean, Provetren, SA de CVk pasibo geroratuaren zergagatik 76.288 mila euroko zenbatekoa du erregistratuta, finantza-egoeretan aktiboaren liburuetaiko zenbatekoaren eta Mexikon indarrean den araudiaren arabera % 30eko tasarekin kalkulaturako haien balio fiskalaren arteko aldi bateko diferentzia dela eta.

Oro har, aipaturako dedukzioen helburu diren aktiboek edo ondare-elementuek Taldean funtzionamenduan jarraitu behar dute aurrez ikusitako helburuekin lotuta gutxienez bost urteko epean edo, hiru urteko epean, ondasun higigarriak direnean, horien bizitza erabilgarria txikiagoa denean izan ezik. Hori dela eta, ez dira transmisioaren, errentamenduaren edo erabiltzeko hirugarren batzuei egindako lagapenaren helburu bihurtuko, justifikaturako galeretan izan ezik.

Geroratutako zerga dela eta aktiboak berreskuratzearekin lotutako ziurgabetasuna kontuan hartuta, Taldeak eskaeren zorroaren ebaluazioan oinarritutako aktibazio-irizpidea mantentzen du. Irizpide horrek zehaztutakoaren arabera, Taldeak, gutxi gorabehera, aktibatu gabe ditu 54.477 mila euroko zenbatekoa duten dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (51.939 mila euro 2013ko ekitaldian). Dedukzio horiek hurrengo ekitaldietan aplikatzeko aukera dagoen heinean aktibatuko dira indarrean dagoen araudiak zehaztutako mugen eta epeen arabera. Horrez gain, Taldeak erregistratu gabeko aktiboaren geroratutako zergak ditu. Horiek ez dute epemuga zehatzik eta haien zenbatekoa 12.533 mila eurokoa da (13.558 mila eurokoa 2013an).

Taldearen zerga mailako dedukzioen, aktiboaren geroratutako zergen eta zerga-oinarri negatiboaren zenbatekoa eta aplikatzeko epea honako hau da:

	Mila euro	
	2014/12/31	2013/12/31
Epemuga 2015ean	-	18
Epemuga 2016an	63	24
Epemuga 2017an	401	416
Epemuga 2018an	1.281	1.374
Epemuga 2019an	380	380
Epemuga 2020an	557	557
Epemuga 2021ean	168	168
Epemuga 2022an	-	-
Epemuga 2023an	-	-
Epemuga 2024an	-	43
Epemuga 2025ean	2.007	3.879
Epemuga 2026an	8.366	7.411
Epemuga 2027an eta hurrengoetan	31.891	30.069
Epemugarik gabe	21.896	21.158
	<b>67.010</b>	<b>65.497</b>

2014ko Sozietateen gaineko Zergaren truke ordaindu beharreko kontuaren kalkulua egiteko, 265 mila euroko zenbatekoa (2013an, 6.402 mila euro) duten dedukzioak hartu dira kontuan. Horiek 2013ko abenduaren 31ko atxikitako egoera-balantze bateratuko "Zerga geroratuengatiko aktiboak" izeneko epigrafean aktibatuta zeuden. Dedukzio horiekin batera, atzerriko

zergarekin lotutako gastua hartu da kontuan eta horren zenbatekoa 3.194 mila eurokoa da. Era berean, 2013ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren estimazioaren eta azkenean aurkeztutako aitorpenaren arteko aldeak direla eta, 74 mila euroko gastua sortu da (2013ko ekitaldian, sarrera 455 mila eurokoa izan zen).

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betikoz ordaindutakotzat hartu aurkeztutako aitorpenak zerga arloko agintariak ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epaia amaitu arte. 2014ko ekitaldia ixtean, Taldeak 2010eko eta hurrengo ekitaldiak Sozietateen gaineko Zerga ikuskapenerako irekita zituen. Gainera, 2011ko ekitaldikoak eta hurrengoetakoak irekita ditu zergak Espainian ordaintzen dituzten sozietateen eta atzerriko sozietateen kasuan aplikagarriak diren gainerako zergetarako, aplikagarria den tokiko araudiaren arabera. Sozietate nagusiko administratzaileen ustez, aipatutako zergak behar bezala ordaindu dira; hori dela eta, eragiketei emandako zerga mailako trataeragatik indarrean dagoen araudiaren interpretazioan desadostasunak gertatuta ere, bertatik erator daitezkeen pasiboek (gauzatuko balira) ez lukete eragin aipagarririk izango honi atxikita azaltzen diren urteko kontuetan.

2013ko maiatzaren 14an, Beasaingo Udalak Sozietate nagusiari jakinarazi zion 2009-2013 aldietako hainbat zergaren inguruko egiaztapeneko eta ikerketako jarduerak hasiko zituela. Sozietate nagusiaren administratzaileek uste dute erregistratutakoez gain beste galerarik ez dela gertatuko.

Horrez gain, 2013ko azaroan eta abenduan, Aduanen eta Zerga Berezien Bulegoak hainbat likidazio jakinarazi zizkion sozietate nagusiari. 2014ko urteko kontuak egiteko garaian, prozesuetako batek zabalik jarraitzen du, baina administratzaileek egindako estimazioen arabera, ez dira pasibo esanguratsuak gertatuko.

Sozietate nagusiko eta CAF Investigación y Desarrollo, SLko batzar orokorrek Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2013ko otsailaren 5eko 1/2003 Foru Dekretuan-arauan xedatutako balantzeen eguneraketa onartu zuten. Horren ondorioz, emaitza-kontuak 4.155 mila euroko emaitza positiboa bildu zuen "Irabazien gaineko zergak" epigrafean. Zenbateko hori aurrez ikusitako onartutako zerga-kreditu garbiari dagokio, arauak ezarritako % 5eko eguneraketan kargaren inguruan egingo dutela aurrez ikusita, betiere.

## 19. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Honako hau da 2014ko eta 2013ko abenduaren 31ko Administrazio Publikoarekin zeuden saldoen osaera:

Kontzeptua	Mila euro							
	14/12/31				13/12/31			
	Aktiboa		Pasiboa		Aktiboa		Pasiboa	
	Ez-korrontea	Korrontea	Ez-korrontea	Korrontea	Ez-korrontea	Korrontea	Ez-korrontea	Korrontea
Gizarte Segurantza	-	6	-	8.595	-	4	-	7.887
Ogasun publikoa								
Balio erantsiaren gaineko zerga (9. oharra)	37.122	63.126	-	15.101	26.068	51.311	-	16.703
Beste batzuk	-	810	-	192	-	1.247	-	178
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren konturako atxikipean	-	-	-	9.411	-	-	-	9.313
Sozietateen gaineko Zerga (3.m. oharra)	-	6.493	-	3.513	-	17.604	-	1.866
Diru-laguntzengatik zordun den ogasun publikoa	-	1.635	-	-	-	1.254	-	-
<b>Guztira</b>	<b>37.122</b>	<b>72.070</b>	<b>-</b>	<b>36.812</b>	<b>26.068</b>	<b>71.420</b>	<b>-</b>	<b>35.947</b>

2011n, Balio Erantsiaren Zergaren Entitate Taldeen Erregimen Berezia eskuratu genuen eta horko partaide da Sozietate nagusia mendeko beste sozietate batzuekin batera.

## 20. HORNIDURA KORRONTEAK ETA EZ-KORRONTEAK

### Hornidura ez-korronteak

Taldeak hornidurak zuzkitzen ditu, "Hornidura ez-korronteak" epigrafean, iraganeko gertakariak direla eta sortutako betebeharrak dela medio. Obligazioa amaitzen denean, zenbait baliabide uztekoa da Taldea, hura kitatzeko. Sozietate nagusiko administratzaileek data horretarako eginiko kalkulurik onena da zenbatekoa, eta egungo balioarekin erregistratzen da, finantza-eragina nabarmena bada, betiere. 2014ko eta 2013ko ekitaldietan, 1.736 mila euro eta 2.050 mila euroko ordainketak egin zituen Taldeak, eta 1.946 mila euro eta 2.287 mila euro eman ditu, galera eta irabazien kontu bateratuko "Pertsonal-gastuak. Soldadak eta lansariak" epigrafean (22. oharra) kontuan zordunduta gehienbat.

### Hornidura korronteak

Epigrafe honen mugimendua (3.ñ. oharra) hau izan da 2014 eta 2013an (mila euro):

	Berme- eta asistentzia- zerbitzuak, kontratu- erantzukizunak eta abar (3.f eta 3.ñ oharrek)	Auziak	Beste hornidura batzuk (3.ñ. oharra)	Guztira
<b>2012/12/31ko saldoa</b>	<b>334.054</b>	<b>11.254</b>	<b>3.373</b>	<b>348.681</b>
Horniduren zuzkidura garbia (3.k., 3.ñ. eta 18. oharrek)	(7.065)	(3.488)	(857)	(11.410)
Bihurketa-diferentziak	(2.244)	-	-	(2.244)
<b>2013/12/31ko saldoa</b>	<b>324.745</b>	<b>7.766</b>	<b>2.516</b>	<b>335.027</b>
Horniduren zuzkidura garbia (3.k., 3.ñ. eta 18. oharrek)	(70.669)	(72)	(137)	(70.878)
Bihurketa-diferentziak	1.180	-	-	1.180
<b>2014/12/31ko saldoa</b>	<b>255.256</b>	<b>7.694</b>	<b>2.379</b>	<b>265.329</b>

### Kontratu mailako erantzukizunak, eta bermea eta laguntza teknikoa

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, epe laburreko hornidurak, batez ere, kontratu mailako erantzukizunen ondoriozko zuzkidurenak dira (147 milioi euro 2014ko abenduaren 31n eta 210 milioi euro 2013ko abenduaren 31n, hurrenez hurren) eta bermeenak eta salmenta ondorenekoak (108 milioi euro 2014ko abenduaren 31n eta 116 milioi euro 2013ko abenduaren 31n, hurrenez hurren).

Honi erantsitako 2014ko galera eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafean 70.878 mila euroko sarrera erregistratu da (2013ko ekitaldian 15.912 mila euroko gastua). Ekitaldia ixtean beharrezkoak diren kontzeptu horien horniduren eta aurreko ekitaldiaren itxieran erregistratutakoen arteko diferentziari dagozkio zenbateko horiek. Kontratuak bermatzeko 2014ko eta 2013ko ekitaldietan emandako zerbitzuen gastuak (57.453 eta 53.829 mila euro, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren) erantsitako 2014ko eta 2013ko galera eta irabazien kontu bateratuko "Hornidurak" eta "Pertsonal-gastuak" epigrafeetan erregistratu ziren.

Taldeak 2008an kontratu bat sinatu zuen Caracaseko Metroarekin Espainian 48 tren fabrikatzeko eta hornitzeko. 2014 eta 2013 ekitaldiak ixtean, bezeroari tren guztiak bidalita zeuden. Kontratuak ezartzen dituen baldintzen ondorioz, 2014ko abenduaren 31n, Taldeak data horretan 66.535 mila euroko hornidura bat (65.204 mila euro 2013ko abenduaren 31n) du eratuta eta aurreko taulako kontratu-erantzukizunen atalean dago erregistratuta (12. oharra).

## Auziak

2014ko abenduaren 31n auziengatiko hornidura, batez ere, bi bezerorekin bi kontratu baliogabetzearen ondorioz sor daitekeen itzultze posiblei dagokie, eta horietarako, beste 9.201 mila euro daude erregistratuta erantsitako egoera-balantze bateratuaren "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk - Beste hartzekodun batzuk" epigrafean (8. oharra). Urteko kontu bateratu hauek formulatu diren datan, planteatutako hainbat helegite konpontzeko zain dago, eta Administrazioaleek egindako kalkulu onena erregistratu da.

Sozietate nagusiko administrazioaleen ustez, ez da erregistratutakoez gain beste pasiborik sortuko 2014ko abenduaren 31ko datarekin. Gainera, horiekin lotutako baliabideen irteera 2015-2017 ekitaldietan gertatuko dela aurrez ikusi dute.

## 21. SARRERAK ETA GASTUAK

### a) Hornidurak

	Mila euro	
	2014	2013
Kontsumoak (*)	673.189	494.514
Beste enpresa batzuek egindako lanak	69.951	65.496
<b>Guztira</b>	<b>743.140</b>	<b>560.010</b>

(\*) % 73 euroguneko monetatan; gainerakoa, AEBko dolarretan eta Brasilgo errealetan (2013an, % 85 eurogunean).

### b) Ustiapeneko beste gastu batzuk

	Mila euro	
	2014	2013
Kanpoko Zerbitzuak	237.776	231.631
Zergak	2.395	1.838
Trafikoko eragiketen eta beste batzuen hornikuntzek eragindako aldaketa (20. oharra)	(66.354)	(14.326)
Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk	342	392
<b>Guztira</b>	<b>174.159</b>	<b>219.535</b>

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SArean eta mendeko sozietateen auditoria-zerbitzuei dagozkin ordainsariak (sei hilez behingo berrikusketak barne) 792 mila eurokoak izan dira (2013an 770 mila eurokoak). Zenbateko horretatik, Deloitte izeneko mundu mailako erakundeko enpresek ikuskatutako sozietateen urteko ikuskapenei 590 mila euro dagozkie (2013ko ekitaldian 582 mila euro). Horrez gain, 290 mila euroko zenbatekoa duten beste zerbitzu profesional batzuekin lotutako ordainsariak fakturatu dituzte (241 mila euro 2013ko ekitaldian); 49 mila euro auditoriarekin lotutako egiaztapen-zerbitzuengatik; 206 mila euro zerbitzu fiskalengatik eta gainerakoa beste zerbitzu batzuekin lotuta (49 mila, 137 mila eta gainerako euroak 2013ko ekitaldian).

### c) Ingurumenari buruzko informazioa

2014ko ekitaldian, ingurumena babestera eta hobetzera bideratutako sistemetan, ekipamenduetan eta instalazioetan inbertsioak egin dituzte 95 mila euroko zenbatekoaren truke (738 mila euroko inbertsioa 2013an).

2014ko ekitaldian Taldeak 61 mila euroko ingurumen-izaerako diru-laguntzak jaso ditu.

2013ko azaroaren 15ean egindako Ministroen Kontseiluak 2013-2020 aldirako CO2 igorpenen eskubideen doako azken esleipena onartu zuen eta Sozietateari aldi horretan 151.537 CO2 tona igorri ahal izateko eskubideak eman dizkiote. Esleitutako eskubideen bolumena baino gehiagoko igorpenak eginez geroz, beharrezkoa izango da merkatuan igorpen-eskubideak eskuratzea.

2014ko ekitaldian Taldeak 17.765 tonako igorpenak egin ditu (16.782 tona 2013an), emanda zituen 19.846 tonako eskubideen aldean (20.197 tona 2013an), beraz, sozietateak ez du pasiborik erregistratu ekitaldia ixtean. 2014ko ekitaldian, Taldeak ez du igorpen-eskubiderik saldu (2013ko ekitaldian ere Taldeak ez zuen igorpen-eskubiderik saldu).

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, Taldeak ez zuen ingurumena babestu eta hobetzearekin lotutako auzirik edo kontingentziarik. Taldeko Sozietateen Administrazioaileen ustez, ez da enpresaren ingurumen-jarduera dela-eta pasibo aipagarriarik sortuko. Horregatik, egoera-balantze bateratu honetan ez dago hornidurarik kontzeptu horretarako.

2014ko ekitaldian, Taldeak 985 mila euroko gastuak egin zituen ingurumen arloan (2013ko ekitaldian 859 mila eurokoak).

### d) Ustiapenerako laguntzak

2014an eta 2013an emaitzetara bideratutako diru-laguntza gehienak deialdi ezberdinetan ministerioko hainbat programetatik lortutako diru-laguntzei dagozkienak dira eta justifikatu beharreko kostuak sortu dituzte.

Laguntza horiek itzuli egin behar dira (merkatuan indarrean dagoen interes-tasa eta guzti) proiektu horietan aurrez ikusitako I+Gko inbertsioak egiten ez badira.

Atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafean 2014ko eta 2013ko ekitaldietan erregistratutako ustiapenerako diru-laguntzen zenbatekoak 3.823 mila eta 2.225 mila eurokoak izan dira hurrenez hurren.

## 22. BATEZ BESTEKO LANGILE KOPURUA ETA PERTSONAL-GASTUAK

2014ko eta 2013ko batez besteko langileen kopurua hau izan da:

Maila profesionala	Batez besteko langile kopurua	
	2014	2013
Enplegatuak	3.324	3.162
Langileak	4.703	4.315
<b>Guztira (*)</b>	<b>8.027</b>	<b>7.477</b>

(\*) 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, langileen kopurua 8.206 eta 7.632 pertsonakoa zen, hurrenez hurren.

Langile gizonetzkoen eta emakumezkoen batez besteko kopuruak hauek izan dira 2014an eta 2013an:

Maila profesionala	2014		2013	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Enplegatuak	2.497	827	2.384	778
Langileak	4.503	200	4.150	165
<b>Guztira</b>	<b>7.000</b>	<b>1.027</b>	<b>6.534</b>	<b>943</b>

Sozietateko administratzaile guztiak gizonetzkoak dira.

Bestalde, hauek dira pertsonal-gastuak, zehaztuta (mila eurotan):

	2014	2013
Soldatak eta ordainsariak (3.k., 3.l. eta 3.ñ. oharra)	299.653	296.156
Gizarte Segurantza	88.001	80.238
Beste zenbait gastu (3.k. oharra)	18.582	18.066
<b>Guztira</b>	<b>406.236</b>	<b>394.460</b>

Galera eta irabazien kontu bateratuko "Pertsonal-gastuak – Soldatak eta ordainsariak" zenbatekoan 1.567 mila euroko itzulerarako zenbatekoa biltzen da (12.243 mila euro 2013 ekitaldian hornituta) aurrejubilazioei dagokiena (15. oharra).

### 23. ADMINISTRAZIO KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA

#### a) Administrazio Kontseiluari egindako ordainketak eta beste zenbait prestazio

Sozietate nagusiak 1.297 mila eta 1.399 mila euro (gutxi gorabehera) erregistratu zituen Administrazio Kontseiluaren ordainsari, dieta eta bizitza-aseguruetan, 2014an eta 2013an. Mendeko sozietateek ez dute inolako zenbatekorik erregistratu. 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, ez zegoen sozietate nagusiaren nahiz mendekoen Administrazio Kontseiluko oraingo zein lehengo kideei emandako aurrerakin, berme edo krediturik, eta Taldeak ez zuen bere gain hartu horiekiko inolako obligaziorik pentsio edo bizitza-aseguruengatik, 3.k oharrean adierazitakoak izan ezik.

#### b) Administratzaileen aldetik izan daitezkeen interes-gatazka egoerekin lotutako informazioa

2014ko eta 2013ko ekitaldietan, Kapital Sozietateen legean definitutakoaren arabera Administrazio Kontseiluko kideetako edota haiei lotutako inork ez die jakinarazi Administrazio Kontseiluko gainerakoei Sozietatearen interesekin izan zitzaizketen zeharkako edota zuzeneko gatazka-egoerarik.

### 24. ZUZENDARITZA GORENARI EGINDAKO ORDAINKETAK

Sozietateko gobernu-txosten lotesleak agintzen duenez, sozietate nagusiko goi-zuzendaritzaren pertsonal-gastuak (diru-ordainketak, jenerotan egindako ordainketak, Gizarte Segurantza eta abar) aurreko oharrean banakatu dira, aldi berean Administrazio Kontseiluko kide ere baitira.

2014ko eta 2013ko ekitaldietan ez da negozioren jardun arruntaz besteko eragiketarik egin zuzendariekin.

## 25. BESTELAKO INFORMAZIOA

### a) Abalak, bermeak eta bestelako aktibo eta pasibo kontingente batzuk

2014ko abenduaren 31n, finantza-erakundeek eta aseguru-konpainiek merkataritza-eragiketak betetzea bermatzeko hirugarrenen alde taldeari emandako abalen zenbatekoa 1.728.878 mila eurokoa zen (2013ko abenduaren 31n, 1.735.795 mila eurokoa). Abal teknikoak ziren gehienak, jasotako eskaerak beteko direla bermatzeko aurkeztuak. Zenbateko horretatik, 37.147 mila euro Zientzia eta Teknologia Ministerioak (15. oharra) eta beste zenbait erakunde publikok emandako diru-laguntzen eta itzuli beharreko aurrerakinen abalei dagozkie (49.571 mila euro 2013ko abenduaren 31n).

2013ko ekitaldian, Brasilgo Defentsa Ekonomikoaren Administrazio Batzordeak tren-fabrikatzaile batzuen inguruko ikerketa-prozesua jarri zuen abian (tartean dago CAF Taldeak Brasilen duen filiala) kontratu jakin batzuetako lizitazioan lehia askearen aurkakoak diren jardunbide posibleak gertatu diren ondorioztatzeko asmoz. Era berean, 2014ko martxoan, Sao Pauloko Ministerio Público Estadualek gai horrekin lotuta salaketa bana aurkeztu zuen, horietako bat lehen auzialdian baztertu dute (5. Linea) eta bigarrena (mantentze-lana) komunikazioko eta izapidetzeko fasean dago, eta salatutako legez kontrako batzuk preskribatutzat jo dituzte. Azkenik, filialak kontu korrante batian egindako blokeoaren gaineko helegitea aurkeztu du. 2014ko abenduaren 31n, blokeatutako saldoa 279 mila eurokoa zen. Urteko kontu bateratu hauek formulatu diren garaian, filial horrek ez du erreklamazio ekonomikorik jaso.

2014ko martxoan, Mexikoko Distritu Federaleko Gobernuak 12. Lineako zati goratuko zerbitzua eten zuen, geltokietan eta egituran akatsak topatu ostean. Bideen desegonkortasuna eragin zuten akatsak geratu ziren agerian.

Distritu Federaleko Obra eta Zerbitzuen Idazkaritzak, 12. Linearen eraikitzaile den partzuergoarekin, CAF eta hainbat tokiko erakunderekin, batera TSO eta SYSTRA etxeekin lankidetzan aritzea adostu zuen, Linea hori birgaitzeko ekintzak definitzeko beharrezkoak diren neurketa tekniko, azterketa eta analisiak egin daitezzen.

PPS Kontratua sinatu zenetik eta are gehiago 12. Linearen zati bat itxi zenetik, CAF Taldearen arrera izan da Distritu Federaleko Gobernu Agintaritzekin ahalik eta lankidetzan handiena erakustea, bai maila teknikoan, bai zuzendaritzaren arloan, CAF Mexikok fabrikatutako trenak PPS Kontratuei aplikagarri zaizkien nazioarteko arau guztiak betetzen dituztela argudiatuta, eta beraz, Provetrenek eta CAF Mexikok 12. Lineako bidaiarien garraioa zati batean eten izanaren gainean erantzukizunik ez dutela.

Urteko kontu bateratu hauek formulatu diren datan, jarraitu beharreko ekintza zuzentzaileak zehazteko eta sortutako egoerari irtenbidea emateko beharko diren akordioetarako baliagarri izango diren azterketa eta analisiak egiten jarraitzen dute.

2014ko eta 2013ko ekitaldietan, CAF Taldeak ez du aktibo edo pasibo kontingenterik identifikatu, aurreko atalean aipatutakoaz gain.



**b) Hornitzaileei egindako ordainketa-gerorapenei buruzko informazioa. Hirugarren xedapen osagarria. 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legeko "Informazio betebeharra" (2013ko uztailaren 27ko 11/2013 legeak aldatutakoa artikuluko batzuetan)**

Ondoren adieraziko dugu xehetasunez 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak eskatutako informazioa:

**Ekitaldi amaieran egindako ordainketak eta egiteke daudenak (mila euro)**

	2014		2013	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Legezko epearen barruan egindakoak	148.184	25,77	156.682	28,95
Gainerakoa	426.880	74,23	384.619	71,05
<b>Ekitaldiko ordainketak Guztira</b>	<b>575.064</b>	<b>100</b>	<b>541.301</b>	<b>100</b>
Ordainketen PMPE (egunak)	35,79		32,51	
PMP	76,54		74,79	
Ekitaldiaren amaieran legezko epea gaindituta duten geroratzeak	33.309		36.322	

Hornitzaileentzako ordainketei buruzko aurreko laukian adierazitako datuek ondasunen eta zerbitzuen hornitzaileekin zorrak izateagatik hartzekodun komertzialak direnei egiten diete erreferentzia. Beraz, egoera-balantzearen pasibo korrontearen "Hornitzaileak" eta "Beste hartzekodun batzuk-Hainbat hartzekodun" kontu-sailletako datuak dituzte.

Ordainketen aurreratutako batez besteko gainditutako epea (PMPE) ekitaldian hornitzaileei egindako ordainketa bakoitzaren produktuen batukariak zenbakitzailean osatzen duen koziantearen arabera kalkulatu da ordainketarako legezko epeari dagokion atzerapen handiagoarekin eta epean gainditutako atzerapeneko egun kopurua kontuan hartuta, eta izendatzailean ekitaldian egindako ordainketen guztizko zenbatekoa kontuan hartuta ordainketarako legezko epea baino handiagoa den atzerapenarekin. Ordainketen batez besteko epe ponderatua (PMP) kalkulatzeko, ordainketa guztiak hartu dira kontuan ordainketarako legezko epearen aurretik edo ondoren egin diren kontuan hartu gabe.

2013ko ekitaldian, 3/2004 Legearen eta merkataritza-eragiketetan berandutzearen aurkako borrokarako neurriak ezartzen dituen 15/2010 Legearen ezarritako xedapen iragankorren arabera, Taldeari aplikagarri zitzaion ordainketaren legezko gehieneko epea 60 eguneko zen. 2014 ekitaldirako, artikuluko batzuetan 3/2004 Legea aldatzen duen 11/2013 Legearen arabera, Taldeari aplikatutako gehieneko epea hornitzailearekin kontratuan adostutako hura izango da, eta edonola ere ez da izango 60 egun natural baino gehiagoko eperik adosteko aukerarik.

## 26. ITXIERA ONDORENGO GERTAERAK

2014ko abenduaren 31n, 5.251.114 mila euro inguruko eskaera-zorroa zuen kontratu irmoarekin eta konturako egindako fakturazioen zenbatekoak kenduta (4.802.858 mila euro 2013ko abenduaren 31n) (11. oharra). 2015eko urtarrilaren 31n, zenbateko hori 5.496.451 mila eurokoa zen (4.709.071 mila eurokoa 2014ko urtarrilaren 31n).

## 27. EUSKARAZKO ITZULPENERAKO GEHITUTAKO AZALPENA

Taldearen finantza-egoera bateratu hauek Taldeari aplikagarri zaion finantza-informazioa emateko araudi-esparruan oinarrituta aurkeztu dira (ikus 2-a oharra). Taldeak aplikatutako kontularitzako praktika batzuk, araudi-esparrua betetzen dutenak, baliteke ez bat etortzea oro har onartutako kontularitzako beste printzipio eta arau batzuekin.

## Administrazio Kontseiluaren Onarpena

96

JOSÉ M <sup>º</sup> BAZTARRICA GARIJO jauna	Presidentea
ANDRÉS ARIZCORRETA GARCÍA jauna	Kontseilari Delegatua
ALEJANDRO LEGARDA ZARAGÜETA jauna	Kontseilaria
JOSÉ ANTONIO MUTILOA IZAGIRRE jauna	Kontseilaria, KUTXABANK, S.A. Ordezkarria
LUIS MIGUEL ARCONADA ECHARRI jauna	Kontseilaria
JOSÉ MIGUEL DE LA RICA BASAGOITI jauna	Kontseilaria
FERMÍN ARRESE ARRATIBEL jauna	Kontseilaria
XABIER GARAIALDE MAIZTEGUI jauna	Kontseilaria
JOSÉ IGNACIO BERROETA ECHEVARRIA jauna	Kontseilaria
JUAN JOSÉ ARRIETA SUDUPE jauna	Kontseilaria
ALFREDO BAYANO SARRATE jauna	Idazkarria

Idazkariak jaso du diligenza hau, eta CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, SAK eta mendeko sozietateek osatzen duten CAF Taldearen (bateratua) 2014ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontu bateratuak eta kudeaketa-txosten bateratua 2015eko otsailaren 25eko bileran Administrazio Kontseiluko kideek formulatu ondoren, agiri hau sinatu dute. 4694tik 4824ra, biak barne, elkarren segidan zenbakitutako 131 orri ditu agiriak, guztiak ere idazkariak ontzat emanak eta sinatuak eta lehendakariak berretsiak. Testu-amaieran, administratzaile guztiek sinatu dute agiria.

Donostian, 2015eko otsailaren 25ean.

Onespena

PRESIDENTEAK

JOSÉ M<sup>º</sup> BAZTARRICA GARIJOK

Onespena

KONTSEILUKO IDAZKARIAK

ALFREDO BAYANO SARRATEK

# Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiaren onarpenaren mende jarritako akordioak

**Akziodunen Ohiko Batzar Nagusia. Egoitza sozialean, Beasainen (Gipuzkoa), egingo da 2015eko ekainaren 13an, 12:30ean lehen deialdian eta, hala badagokio, hurrengo egunean, toki eta ordu berean, bigarren deialdian:**

## GAI ZERRENDA

**Lehenengoa:** Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, SAren 2014ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, sozietateen talde bateratuko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketa aztertzeta eta, hala badagokio, onartzea.

**Bigarrena:** 2014ko ekitaldiari dagokion emaitza aplikatzeko proposamena onartzea; hau da, akzio bakoitzeko 5,25 euro gordineko dibidenduak banatzea.

**Hirugarrena:** kontuen auditoreak berriz aukeratzea.

**Laugarrena:** Kontseilarien izendapena eta berrautaketa.

- 4.1 Javier Martínez Ojinaga jaunaren izendapena
- 4.2 María José de Larrea García-Morato andrearen izendapena
- 4.3. José María Baztarrica Garijo jaunaren berrautaketa
- 4.4. Alejandro Legarda Zaragüeta jaunaren berrautaketa
- 4.5. Xabier Garaialde Maiztegi jaunaren berrautaketa

**Bosgarrena:** Estatutu Sozialak aldatzea.

- 5.1. Batzar Nagusiaren erregimenari eta funtzionamenduari dagozkion aldaketak: Estatutu Sozialen 12, 13, 16, 18, 20, 22, 25 eta 26 artikulua aldatzea.
- 5.2. Administrazio Kontseiluaren erregimenari eta funtzionamenduari dagozkion aldaketak: Estatutu Sozialen 28, 29, 31, 32, 33, 34, 35, 36, 38 eta 39 artikulua aldatzea.
- 5.3. Administrazio Kontseiluko Batzordeen inguruko aldaketak: Estatutu Sozialetako 37 eta 37 bis artikulua aldatzea eta 37 ter artikulua berri bat sartzeta.
- 5.4. Estatutu Sozialen beste aldaketa batzuk: Estatutu Sozialen 2 (helburu soziala) eta 42 (kontuak onartzea) artikuluen aldaketa.

**Seigarrena:** Batzar Nagusiko Araudia aldatzea.

**Zazpigarrena:** Kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostenaren gaineko kontsultarako bozketa.

**Zortzigarrena:** Sozietatearen Administrazio kontseiluari bere akzioak modu eratorrian eskuratzeko baimena

**Bederatzigarrena:** CAFeko Administrazio Kontseiluak onartutako Kontseiluaren Araudiaren aldaketen gaineko informazioa Batzarrari.

**Hamargarrena:** Administrazio Kontseiluari eskumenak eskuordetzea aurreko akordioak formalizatzeko eta exekutatzeko.

## Emitza aplikazio proposamena

98

Sozietate nagusiaren zerga ondorengo 27.042 mila euroko emitza aplikatzea, honela banatuta: 17.997 mila euro dibidenduetara, 9.045 mila euro borondatezko erreserbetara.

## Administrazio Kontseilua

JOSÉ M <sup>o</sup> BAZTARRICA GARIJO jauna	Presidentea
ANDRÉS ARIZCORRETA GARCÍA jauna	Kontseilari Delegatua
ALEJANDRO LEGARDA ZARAGÜETA jauna	Kontseilaria
JOSÉ ANTONIO MUTILOA IZAGIRRE jauna	Kontseilaria, KUTXABANK, S.A. Ordezkaria
LUIS MIGUEL ARCONADA ECHARRI jauna	Kontseilaria
JOSÉ MIGUEL DE LA RICA BASAGOITI jauna	Kontseilaria
FERMÍN ARRESE ARRATIBEL jauna	Kontseilaria
XABIER GARAIALDE MAIZTEGUI jauna	Kontseilaria
JOSÉ IGNACIO BERROETA ECHEVARRIA jauna	Kontseilaria
JUAN JOSÉ ARRIETA SUDUPE jauna	Kontseilaria
ALFREDO BAYANO SARRATE jauna	Idazkaria

2015eko otsailaren 25ean, Administrazio Kontseiluko kideek kapital sozialaren % 19,064 zuten.

# INFORMAZIO OSAGARRIA 2010-2014

Egoera-balantze bateratuak  
Galdu-irabazien kontu bateratuak  
Burtsari Buruzko Informazioa

## 2014, 2013, 2012, 2011, 2010 eko abenduaren 31ko Egoera-Balantze Bateratuak (Mila euro)

100

Aktiboa	2014	2013	2012	2011	2010
<b>Aktibo ez korrontea:</b>					
<b>Ibilgetu ukiezin</b>					
Merkataritza Funtza	15	15	15	232	596
Beste ibilgetu ukiezin bat	37.673	35.172	42.036	30.567	211.865
	<b>37.688</b>	<b>35.187</b>	<b>42.051</b>	<b>30.799</b>	<b>212.461</b>
<b>Ibilgetu materiala, garbia</b>	<b>271.839</b>	<b>286.593</b>	<b>300.102</b>	<b>288.539</b>	<b>300.967</b>
<b>Partaidetza-metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak</b>	<b>12.257</b>	<b>14.902</b>	<b>13.167</b>	<b>11.558</b>	<b>16.979</b>
<b>Finantza-aktibo ez-korrontea</b>	<b>669.549</b>	<b>657.233</b>	<b>760.828</b>	<b>420.422</b>	<b>56.718</b>
<b>Zerga geroratuagatiko aktiboak</b>	<b>163.842</b>	<b>162.283</b>	<b>102.075</b>	<b>110.353</b>	<b>113.005</b>
<b>Aktibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>1.155.175</b>	<b>1.156.198</b>	<b>1.218.223</b>	<b>861.671</b>	<b>700.130</b>
<b>Aktibo korrontea:</b>					
<b>Izakinak</b>	<b>180.504</b>	<b>159.857</b>	<b>250.827</b>	<b>365.464</b>	<b>354.906</b>
<b>Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk</b>					
Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak	1.107.006	1.040.576	761.312	716.010	669.400
Beste zordun batzuk	188.410	206.739	218.204	109.546	77.328
Zerga korronteaगतिको aktiboak	6.493	17.604	12.844	3.684	4.324
	<b>1.301.909</b>	<b>1.264.919</b>	<b>992.360</b>	<b>829.240</b>	<b>751.052</b>
<b>Beste finantza-aktibo korrontea batzuk</b>	<b>123.945</b>	<b>97.703</b>	<b>129.025</b>	<b>235.519</b>	<b>358.467</b>
<b>Beste aktibo korrontea batzuk</b>	<b>4.591</b>	<b>2.022</b>	<b>1.742</b>	<b>2.691</b>	<b>3.433</b>
<b>Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide</b>	<b>197.111</b>	<b>127.150</b>	<b>76.682</b>	<b>86.214</b>	<b>55.705</b>
<b>Aktibo korrontea, guztira</b>	<b>1.808.060</b>	<b>1.651.651</b>	<b>1.450.636</b>	<b>1.519.128</b>	<b>1.523.563</b>

<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>2.963.235</b>	<b>2.807.849</b>	<b>2.668.859</b>	<b>2.380.799</b>	<b>2.223.693</b>
-------------------------	------------------	------------------	------------------	------------------	------------------

2012 eta 2011 ekitaldietako datuak 2013 ekitaldiko memoria bateratuko 2.e. oharren arabera birsailkatu dira.

<b>Pasiboa eta ondare garbia</b>	<b>2014</b>	<b>2013</b>	<b>2012</b>	<b>2011</b>	<b>2010</b>
<b>Ondare garbia :</b>					
<b>Berezko funtsak</b>					
Eskrituratutako kapitala	10.319	10.319	10.319	10.319	10.319
Jaulkipen-prima	11.863	11.863	11.863	11.863	11.863
Birbalorizazio-erreserba	39.119	58.452	58.452	58.452	58.452
Sozietate nagusiko eta integrazio bidez bateratutako beste sozietate batzuetako beste erreserba batzuk orokorra eta partaidetza-metodoaren bidezkoa	691.777	618.264	554.784	444.554	351.221
Sozietate nagusiari esleitutako ekitaldiko emaitza	59.679	90.181	99.454	146.182	129.624
	<b>812.757</b>	<b>789.079</b>	<b>734.872</b>	<b>671.370</b>	<b>561.479</b>
<b>Balio-aldaketen ondoriozko doiketak</b>					
Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak	-	3.704	-	-	-
Estaldurako eragiketak	(6.212)	(2.882)	(4.449)	(1.820)	-
Bihurketa-diferentziak	(70.336)	(70.789)	(28.508)	(5.106)	2.145
	<b>(76.548)</b>	<b>(69.967)</b>	<b>(32.957)</b>	<b>(6.926)</b>	<b>2.145</b>
<b>Sozietate nagusiari egotz dakioken ondare garbia</b>	<b>736.209</b>	<b>719.112</b>	<b>701.915</b>	<b>664.444</b>	<b>563.624</b>
<b>Interes minoritarioak</b>	<b>12.704</b>	<b>10.249</b>	<b>5.685</b>	<b>2.820</b>	<b>9.660</b>
<b>Ondare garbia, guztira</b>	<b>748.913</b>	<b>729.361</b>	<b>707.600</b>	<b>667.264</b>	<b>573.284</b>
<b>Pasibo ez korrontea:</b>					
<b>Hornidura ez-korrontekak</b>	<b>5.075</b>	<b>4.785</b>	<b>4.678</b>	<b>3.662</b>	<b>2.146</b>
<b>Finantza-pasibo ez-korrontekak</b>					
Kreditu-erakundeekiko zorrak	683.062	477.934	480.517	242.171	240.565
Beste zenbait finantza-pasibo	76.405	73.590	69.222	84.159	66.624
	<b>759.467</b>	<b>551.524</b>	<b>549.739</b>	<b>326.330</b>	<b>307.189</b>
<b>Zerga geroratuengatikoko pasiboak</b>	<b>152.426</b>	<b>147.020</b>	<b>84.283</b>	<b>85.956</b>	<b>55.934</b>
<b>Beste pasibo ez-korronte batzuk</b>	<b>66.880</b>	<b>52.366</b>	<b>22.741</b>	<b>8.727</b>	<b>5.546</b>
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>983.848</b>	<b>755.695</b>	<b>661.441</b>	<b>424.675</b>	<b>370.815</b>
<b>Pasibo korrontea:</b>					
<b>Hornidura korrontekak</b>	<b>265.329</b>	<b>335.027</b>	<b>348.681</b>	<b>247.798</b>	<b>211.104</b>
<b>Finantza-pasibo korrontekak</b>					
Kreditu-erakundeekiko zorrak	158.039	232.705	108.962	5.878	20.344
Beste zenbait finantza-pasibo	46.733	39.074	30.808	28.096	21.946
	<b>204.772</b>	<b>271.779</b>	<b>139.770</b>	<b>33.974</b>	<b>42.290</b>
<b>Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk</b>					
Hornitzaileak	463.067	460.652	439.866	417.312	440.363
Beste hartzekodun batzuk	293.197	252.808	369.900	584.089	580.235
Zerga korrontegatikoko pasiboak	3.513	1.866	1.089	5.322	4.013
	<b>759.777</b>	<b>715.326</b>	<b>810.855</b>	<b>1.006.723</b>	<b>1.024.611</b>
<b>Beste zenbait pasibo korronte</b>	<b>596</b>	<b>661</b>	<b>512</b>	<b>365</b>	<b>1.589</b>
<b>Pasibo korrontea, guztira</b>	<b>1.230.474</b>	<b>1.322.793</b>	<b>1.299.818</b>	<b>1.288.860</b>	<b>1.279.594</b>
<b>Pasiboa eta ondare garbia, guztira</b>	<b>2.963.235</b>	<b>2.807.849</b>	<b>2.668.859</b>	<b>2.380.799</b>	<b>2.223.693</b>

## 2014, 2013, 2012, 2011, 2010 eko abenduaren 31ri dagozkion Galdu-Irabazien Kontu Bateratuak (Mila euro)

102

(Zor) Hartzekoa	2014	2013	2012	2011	2010
<b>Eragiketa jarraituak:</b>					
Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.447.141	1.535.240	1.721.186	1.725.099	1.563.206
+/- Amaitutako produktuen eta fabrikazioan daudenen izakinen arteko aldaketa	7.690	(149.530)	(222.057)	66.356	(20.207)
Enpresak bere aktiborako egindako lana	9.840	7.106	1.325	2.054	1.783
Hornidurak	(743.140)	(560.010)	(595.441)	(965.028)	(829.824)
Ustiapeneko beste sarrera batzuk	5.289	4.117	5.327	6.402	9.172
Pertsonaleko gastuak	(406.236)	(394.460)	(352.334)	(342.745)	(318.160)
Ustiapeneko beste gastu batzuk	(174.159)	(219.535)	(376.105)	(263.301)	(203.711)
<b>Ebitda</b>	<b>146.425</b>	<b>222.928</b>	<b>181.901</b>	<b>228.837</b>	<b>202.259</b>
Ibilgetuaren amortizazioak	(42.398)	(42.552)	(39.231)	(36.788)	(31.278)
Ibilgetua besterentzearen ondoriozko kaltea eta eragina	10.958	(29.065)	(1.282)	(27.266)	(14.337)
<b>Ustiapenaren emaitza</b>	<b>114.985</b>	<b>151.311</b>	<b>141.388</b>	<b>164.783</b>	<b>156.644</b>
Finantza arloko sarrerak	10.187	13.974	24.437	9.620	11.473
Finantza arloko gastuak	(47.252)	(47.687)	(35.273)	(26.627)	(2.102)
Trukeko aldeak	(2.394)	(3.645)	(3.176)	39	(9.217)
Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko kaltea eta emaitza	4.357	1.013	355	(639)	2.685
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa	373	(275)	17	(8)	(45)
<b>Finantza arloko emaitza</b>	<b>(34.729)</b>	<b>(36.620)</b>	<b>(13.640)</b>	<b>(17.615)</b>	<b>2.794</b>
Partaidetza-metodoaren bidez baloratutako erakundeen emaitza	200	(392)	17	(3.301)	(846)
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>80.456</b>	<b>114.299</b>	<b>127.765</b>	<b>143.867</b>	<b>158.592</b>
Irabazien gaineko zerga	(18.327)	(23.262)	(27.711)	(14.260)	(14.880)
<b>Eragiketa jarraituetatik eratorritako</b>					
<b>ekitaldiko emaitza</b>	<b>62.129</b>	<b>91.037</b>	<b>100.054</b>	<b>129.607</b>	<b>143.712</b>
Jarduera etenetatik etorritako ekitaldiko emaitza	-	-	-	11.842	(18.272)
<b>Ekitaldiko emaitza bateratua</b>	<b>62.129</b>	<b>91.037</b>	<b>100.054</b>	<b>141.449</b>	<b>125.440</b>
<b>Honi egotzitakoa:</b>					
Sozietate nagusia	59.679	90.181	99.454	146.182	129.624
Interes minoritarioak	2.450	856	600	(4.733)	(4.184)
<b>Akzio bakoitzeko irabazia (eurotan)</b>					
Oinarrizkoa	17,41	26,31	29,01	42,64	37,81
Diluitua	17,41	26,31	29,01	42,64	37,81


2010eko datuak egokituak izan dira 2011ko ekitaldian etenda moduan sailkatutako eragiketak ondo adierazita gera daitezen.



## Burtsari Buruzko Informazioa

103

2014ko abenduaren 31n, 3,01 euroko balio nominaleko 3.428.075 akzioz osatuta zegoen Sozietate nagusiaren 10.318.506 euroko kapital soziala. Akzio horiek kontu-idazpen bidez ordezkaturata eta guztiz harpidetuta eta ordainduta zeuden. Guztiek Burtsan kotizatzen dute.



	2014	2013	2012	2011	2010
<b>Burtsa-kapitalizazioa</b>					
Datuak abenduaren 31n	1.036.478.476	1.317.409.223	1.196.398.175	1.319.808.875	1.336.949.250
<b>Datuak akzioko</b>					
Mozkin garbiak akzioko (BPA)	17,41	26,31	29,01	42,64	37,81
Dibidenduak akzioko	5,25	10,50	10,50	10,50	10,50
Kontabilitate-balioa akzioko (VC)	214,76	209,77	204,75	193,82	164,41
<b>Burtsa-ratioak</b>					
PER (Batez besteko kotizazioa/BPA)	18,53	12,53	13,08	9,02	10,07
Batez besteko kotizazioa/EBITDA (*)	7,55	5,07	7,15	5,76	6,46
PVC (Batez besteko kotizazioa/VC)	1,50	1,57	1,85	1,98	2,32
Errentagarritasuna dibidenduko	1,63%	3,18%	2,77%	2,73%	2,76%
Pay-out (Dibidendua/BPA)	30,16%	39,91%	36,19%	24,62%	27,77%

(\*) 2010eko datuak egokituak izan dira 2011ko ekitaldian etenda moduan sailkatutako eragiketak ondo adierazita gera daitezzen.



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.

## BULEGOAK

---

### ENPRESAREN HELBIDEA

Jose Miguel Iturrioz, 26  
20.200 BEASAIN (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: +34 943 880 100  
Faxa: +34 943 881 420  
caf@caf.net

### BULEGO NAGUSIAK

Padilla kalea, 17, 6  
28006 MADRIL  
Espainia  
Tel.: +34 91 436 60 00  
Faxa: +34 91 436 03 96  
caf@caf.net

### AKZIODUN SAILA

Jose Miguel Iturrioz, 26  
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)  
Tel.: +34 943 189 262 (arreta-  
zerbitzurako telefonoa)  
Faxa: +34 943 189 263  
accionistas@caf.net

---

### CAF ALEMANIA

Seidlstraße 26  
80335 Munich  
Alemania  
Tel.: +49 (0)89 544 790 120  
Faxa: +49 (0)89 544 790 250

### CAF ESTATU BATUAK

1401 K Street, N.W. Suite 1003  
20.005-3418 - WASHGTON DC  
Estatu Batuak  
Tel.: 1 202 898 4848  
Faxa: 1 202 216 8929

### CAF QATAR

Al Fardan Office Tower, 14th Floor,  
West Bay, Doha  
Qatar  
Tel.: +974 44101506  
Faxa: +974 44101500

### CAF FRANTZIA

16 rue Friant  
75014 Paris  
Frantzia  
Tel.: + 33 1 82 73 01 00  
Faxa: + 33 5 62 91 05 77

### CAF MEXIKO

Eje 1 Norte (Mosqueta) Edificio  
Oriente 1ª piso  
Col. Buenavista, Delegación  
Cuahtémoc c.p. 06350  
Mexiko  
Tel.: +52 55 568 875 43  
Faxa: +52 55 568 811 56

### CAF ALJERIA

Bachdjerrah - Chemin de la Wilaya 13  
Les 4 Chemins - Kouba Arjeria  
Arjeria  
Tel.: + 213 770 176 068  
Faxa: 0 982 50 18 66

### CAF RAIL ERRESUMA BATUA

The TechnoCentre Puma Way  
Coventry, CV1 2TT  
Rail Erresuma Batua  
Tel.: +44(0)2476 158195

### CAFTXILE

Avda. de los conquistadores 1700,  
Piso 27  
Comuna de providencia  
Txileko Santiago  
Tel.: +56 2 473 7200  
Faxa: +56 2 473 7290

### CAF INDIA PVT LTD

113-116, 1st Floor, Block - A, Naurang  
House, 21, Kasturba Gandhi Marg,  
New Delhi-110001  
India  
Tel.: +91 11 4025 0000/ 4734 0794  
Faxa: +91 11 4734 0680

### CAF ITALIA

Via G. Parini, 2  
20121 Milano  
Italia  
Tel.: +39 02 4975 9575  
Fax: +39 02 4975 9575

### CAF MALAYSIA

20th Floor Menara Boustead,  
69, Jalan Raja Chulan, 50200 Kuala  
Lumpur  
Malaysia  
Tel.: +603 21449371  
Faxa: +603 21418006

### CAF HERBEHEREAK

Weena 290  
3012 Nj Rotterdam  
Herbehereak  
Tel.: +31 (0)10 282 1402  
Faxa: +31 (0)10 282 1222

### CAF BRASIL

Rua Tabapua, nº81 - 10º andar  
CEP 04533-010 ITAIM IBI  
São Paulo  
Brasil  
Tel.: +55 11 3074-0600  
Faxa: +55 11 3074-0624

### CAF RAIL AUSTRALIA PTY LTD

Level, 17, suite 5, 1 Margaret St.  
Sydney NSW 2000 Australia  
Australia  
Tel.: +61 (0) 2 8084 5119  
Fax: +61 (0) 2 8068 6983

### CAF POLONIA

Emilii Plater 53/1116  
00113 Warsaw  
Polonia  
Tel.: +48 22 5286788  
Faxa: +48 22 5286701

### CAF ARGENTINA

Chacabuco 380 1er Piso  
C1069AAH  
Ciudad Autónoma de Buenos Aires  
Argentinako Errepublikak  
Tel.: +54-11-4343-4500

### CAF USA RAIL SERVICES

2600 South Shore Blvd,  
Suite 300, League City,  
TX 77573  
USA